

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**9347** *8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Giza eskubideen izenean, nahitaez borrokatu behar da haurtzaroko indarkeriaren aurka. Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioan hurrei eta nerabeei aitortutako eskubideak sustatzeko, funtsezkoa da haurren eta nerabeen giza duintasunarekiko eta osotasun fisiko eta psikologikoarekiko errespetua ziurtatu eta sustatzea, indarkeria mota oro prebenituz.

Adingabeak babestea lehentasunezko betebeharra da botere publikoentzat, eta halaxe dago aitortuta Espainiako Konstituzioaren 39. artikuluan eta nazioarteko hainbat tratatutan; azken horien artean, nabarmentzekoa da aipatutako Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onetsia eta Espainiak 1990ean berretsia.

Haurrak babesteko arau-erreferente nagusiak, Nazio Batuen esparrura mugatuta, konbentzio horretako hautazko hiru protokoloak eta Haurraren Eskubideen Batzordearen ohar orokorrak dira, zeinak nazioarteko zuzenbidearen esparru hori hurrei eta nerabeei dagozkien hezkuntza-, osasun-, lege- eta gizarte-errealitateekin lotzeaz arduratzen baitira. Lege organiko honetan, bereziki, ohar orokor hauek dira garrantzitsuak: 12. Ohar Orokorra, 2009koa, entzuna izateko eskubideari buruzkoa; 13. Ohar Orokorra, 2011koa, hurrek inolako indarkeriarik ez jasateko duten eskubideari buruzkoa; eta 14. Ohar Orokorra, 2014koa, haurraren interes gorena lehentasunez aintzat hartzeari buruzkoa.

Europar Batasunak, bestalde, Lisboako Tratuaren 3. artikuluan jasotzen du «haurraren eskubideen babesa», eta politika erkidearen helburu orokor bat da hori, hala barne-espazioan nola kanpo-harremanetan.

Europako Kontseiluak, era berean, nazioarteko estandar batzuk ditu adingabeen eskubideak babesten direla bermatzeko, hala nola Haurrak Sexu Esplotaziotik eta Abusutik Babesteko Hitzarmena (Lanzaroteko Hitzarmena), Emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena), Gizakien Salerosketaren Aurkako Borrokari buruzko Hitzarmena eta Ziberdelinkuentziari buruzko Hitzarmena. Europako Kontseiluak, bestalde, haurrak fisikoki zigortzeko modu guztiak ezabatzeke deia egiten die estatu kide guztiei Haurraren Eskubideetarako Estrategian (2016-2021).

Lege organiko honek lotura du, halaber, Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Itunaren konpromiso eta jomugekin, bai eta 2030 Agendarenekin ere hainbat arlotan; oso bereziki, 16.2 helburuarekin: «Haurren aurkako tratu txarra, esplotazioa, salerosketa eta indarkeria eta tortura mota guztiak amaiaraztea». Gizarte zuzen, baketsu eta inklusiboak sustatzeko 16. helburuaren barruan dago hori. Neskek, beren adinagatik eta sexuagatik, are diskriminazio eta eraso handiagoak pairatzen dituzte maiz. Horregatik, lege honek kontuan

hartu behar ditu neskek neska izate hutsagatik jasaten dituzten indarkeriak, horiei heldu eta aurrea hartu ahal izateko; eta, aldi berean, azpimarratu behar du errespetuan eta berdintasunean oinarritutako heziketa ematen duen gizartea baino ez dela izango nesken aurkako indarkeria erazteko gai.

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren eta aipatutako gainerako erreferenteen arabera, Espainiak behar beste neurri sustatu behar ditu legegintzan, administrazioan, gizartean eta hezkuntzan, haur eta nerabe orok indarkeria, kalte, abusu fisiko edo mental, axolagabekeria edo zabarkeria, tratu txar edo esplotazio mota guztietatik aske garatzeko duen eskubidea bermatzeko.

Espainiako araudian, aurrerapen handiak egin dira adingabeen eskubideen defentsari dagokionez, bai eta adingabeak indarkeriatik babesteari dagokionez ere. Bilakaera horretan sartzen da uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak eta uztailaren 28ko 26/2015 Legeak urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan egindako erreforma (26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Adingabearen Babes Juridikoarena, partzialki aldatzen dituen Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea), biek ala biek aldatu egin baitzuten haurrak eta nerabeak babesteko sistema. Erreforma horren bidez, adingabeak indarkeria mota guztietatik babesteko printzipio gidaria txertatu zen administrazio-jarduketan, barnean hartuz adingabeen familia-ingurunean gertatutakoak, genero-indarkeria, gizakien salerosketa eta trafikoa, eta emakumeen mutilazio genitala. Legeak xedatutakoaren arabera, botere publikoek nahitaez sentsibilizazio-, prebentzio-, laguntza- eta babes-jarduketak egin behar dituzte haurren aurkako edozein motatako tratu txarrei aurre egiteko, eta behar diren prozedurak ezarri behar dituzte administrazio publiko eskudunen arteko koordinazioa ziurtatzeko. Hala, sakonki berrikusi behar dute adingabeak babesteko sistemako erakundeen funtzionamendua, eta, ostean, babes eraginkor bat eratu arrisku-eta babesgabezia-egoerarako.

Testuinguru horretan, Diputatuen Kongresuak, 2014ko ekainaren 26ko osoko bilkuran, azpibatzerde bat sortzea erabaki zuen, haurren aurkako indarkeriaren arazoa aztertzeke. Azpibatzerde horrek ehun eta berrogei ondorio eta proposamen onartu zituen, eta, horietan oinarrituz, legez besteko proposamen bat onetsi zen 2017an, zeinaren bidez Gobernuari eskatu baitzitzaion haurren aurkako indarkeria erazteko lege organiko bat onesteko lanei ekin diezaiela bere eskumenen esparruan eta autonomia-erkidegoekin lankidetzan.

Alabaina, aurrerapen horiek gorabehera, Haurren Eskubideen Batzordeak, 2018an Espainiako haurren eskubideen egoera aztertu ondoren, berriro adierazi zion gure herrialdeari haurren aurkako indarkeriari buruzko lege integral bat onetsi behar zuela, genero-indarkeriaren esparruan onetsitakoaren arau-irismen bera izan behar zuena.

Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko lege integral bat onestek ez dio erantzuten adingabeen babes integralari dagokionez Espainiak bere gain hartutako nazioarteko konpromisoak gure ordenamendu juridikoan sartzeko beharrari bakarrik, noski; horrez gain, gure gizartearen garapen osasuntsuarekin zerikusi zuzena duen gaiaren garrantziari ere erantzuten dio.

Haurren Eskubideen Batzordeak aipatutako 13. Ohar Orokorrean adierazten duenez, aski ezagunak dira hurrek eta nerabeek jasaten dituzten indarkeriaren eta tratu txarren ondorio larriak. Ekintza horiek, beste ondorio askoren artean, lesioak eta horien ondoriozko desgaitasuna eragin ditzakete; osasun-arazo fisikoak, hala nola garapen fisikoan atzeratzea eta gerora gaixotasunak agertzea; ikasteko zailtasunak, eskolan eta lanean errendimendu-arazoak izatea barne; ondorio psikologiko eta emozionalak, hala nola nahasmendu afektiboak, trauma, antsietatea, segurtasunik eza eta autoestimua suntsitzea; buruko osasun-arazoak, hala nola antsietatea eta nahasmendu depresiboak edo suizidio-saioak, eta osasunerako kaltegarriak diren jokabideak, hala nola mendekotasuna sortzen duten substantzia gehiegi kontsumitzea edo sexu-jardueran goiz hastea.

Adingabeen aurkako indarkeria errealtate gaitzesgarria da eta hainbat frontetara dago zabaldua. Maiz oharkabeen pasa daiteke, eremu intimoetan gertatu ohi delako, hala nola familian eta eskolan; hain zuzen ere, ingurune horietan jazotzen dira gorabehera gehienak, nahiz eta segurtasuneko eta garapen pertsonalerako esparru izan beharko luketen haur

eta nerabeentzat. Sarritan, gainera, aldagai soziologikoak, hezkuntzakoak, kulturalak, sanitarioak, ekonomikoak, administratiboak eta juridikoak biltzen dira indarkeria-agertoki horietan; horrenbestez, gaiari legegintzaren bidez heltzeko saio orotan, diziplina anitzeko ikuspegi zabala behar da.

Azpimarratzekoa da desgaitasuna duten haur eta nerabeak bereziki direla sentikor eta kalteberak indarkeria mota horren aurrean, are modu larriagoan daudela haren ondoreak pairatzeko arriskuan eta zailtasun handiagoak dituztela beren eskubideak beste edozeinek bezala baliatzeko.

Lege honek modu integral batean egiten dio aurre haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari, eta arrisku-faktoreen eta ondorioen dimentsio anitzeko izaerari erantzun zabala ematen dio. Legea, administrazio-esparruetatik harago joanez, jurisdikzio-ordena askotan sartzen da, bere borondate holistikoa baieztatzeko. Ikuspegi didaktiko batetik, funtsezko lehentasuna ematen die prebentzioari, sozializazioari eta hezkuntzari, bai adingabeen artean, bai familien eta gizarte zibilaren beraren artean. Babesteko, goiz detektatzeko, laguntzeko, urratutako eskubideak berrezartzeko eta biktima oneratzeko neurriak ezartzen ditu arauak, guztiak ere biktimizazio sekundarioa saihesteko jardunbide egoki gisa identifikatutako arreta-eredu integralan inspiratuta.

Lege honek bide ematen dio autonomia-erkidegoekiko lankidetzari, eta saihestu egiten du hain garrantzitsua den gai honetan zegoen zatikatze operatiboa. Beste prebentzio- eta babes-paradigma bat ezartzen du adingabeen eskubideak urratzen diren kasuetarako, Estatuko lurralde osorako, eta bide ematen du administrazio publikoak, bakoitza bere eskumenen esparruan, gehiago inplikatzeko Estatuaren nazioarteko konpromisoekin bat datorren irismen orokorreko helburu batean, hau da, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan.

Legeak, funtsean, haurrek eta nerabeek inolako indarkeria motarik ez jasateko duten eskubideari erantzuten dio, zorrozki hartzen ditu bere gain Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak, eta, izaera integrala izanda, urrats bat egiten du aurrera bere eraginpeko esparruari lotutako gaietan, bai errealitate hertsiki substantiboan, bai bere borondate didaktiko, dibulgatzaile eta kohesionatuan.

## II.

Legeak hirurogei artikulatu ditu, atariko tituluan eta bost titulutan banatuak, eta bederlatzi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta hogeita bost azken xedapen.

Atariko tituluak legearen eremu objektiboa eta subjektiboa jorratzen ditu; haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren kontzeptua definitzen du, bai eta tratatu ona ere, eta legearen helburu eta irizpide orokorrak ezartzen ditu. Era berean, adingabeekin arruntean harremana duten profesionalen prestakuntza espezializatua arautzen du, hasierakoa eta etengabekoa, eta administrazio publikoen arteko kooperazio eta lankidetzak jasotzen du, bai eta lankidetzak publiko-pribatua ere. Administrazio publikoen arteko kooperazio eta lankidetzak beharrezkoa da, eta, horretarako, Haurren eta Nerabeen Konferentzia Sektoriala sortzen da.

I. tituluan, haurrek eta nerabeek indarkeriaren aurrean dituzten eskubideak jasotzen dira; besteak beste, informazioa eta aholkularitza jasotzeko eskubidea, esateko dutena entzunarazteko eskubidea, arreta integralerako eskubidea, prozedura judizialean esku hartzeko eskubidea eta doako laguntza juridikorako eskubidea.

II. tituluak indarkeria-egoerak komunikatzeko eginbeharra arautzen du. Alde horretatik, eginbehar generiko bat ezartzen du, herritar guztiei eragiten diena; hain zuzen ere, eskumena duen agintaritzari berehala komunikatzea haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-aztarna oro. Komunikatzeko eginbehar hori modu zorrotzagoan ezartzen da beren kargu, lanbide, ofizio edo jarduera dela-eta adingabeei laguntza, zaintza, irakaskuntza edo babesa emateko eginkizuna duten kolektiboentzat edo langile kualifikatuentzat, honako hauetan: osasun-zentroak, ikastetxeak, kirol- eta aisia-zentroak, haurrak babesteko zentroak eta adingabeen erantzukizun penaleko zentroak, harrera-zentroak, asilo eta laguntza humanitarioko zentroak eta haurrak edo nerabeak bizi ohi

diren establezimenduak. Kasu horietan, informazioa komunikatzeko eta trukatzeko mekanismo egokiak ezartzeko betebeharrak ezartzen zaie administrazio publiko eskudunei.

Bestalde, aurreikusten da eskumena duten administrazio publikoak beharrezkoak eta irigarriak diren baliabideez hornituko direla indarkeriaren biktima diren edo indarkeria-egoera baten lekuko izan diren haurrek eta nerabeek berek eman dezaten gertatuaren berri modu seguru eta errazean. Horri dagokionez, legez aitortzen da komunikabide elektronikoen garrantzia, hala nola haurrei eta nerabeei laguntzeko telefono-lineena. Komunikabide horiek doakoak izango dira, eta administrazioek sustatu, lagundu eta zabaldu egin beharko dituzte halakoak.

Gainera, berriaz arautzen da Interneten haurren edo nerabeen aurkako indarkeria edo abusua diren edukiak baldin badaude hori komunikatzeko eginbeharrak, halakoak delitu izan edo ez; Interneten eta sare sozialen eremua, izan ere, bereziki da sentikorra alde horretatik.

Edozein kasutan, legeak bermatu egiten du indarkeria-egoerak komunikatzeko eginbeharrak betetzen duten pertsonen babesa eta segurtasuna, eginbehar hori betetzera bultzatzeko helburuarekin.

III. tituluak sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzio goiztiarra arautzen ditu, eta I. kapituluan jasotzen du Estatuko Administrazio Orokorra haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko estrategia bat izateko betebeharrak duela, arreta berezia eskainiz familia-, hezkuntza- eta osasun-eremuei, gizarte-zerbitzuei, teknologia berriei, kirolari eta aisiari, eta Segurtasun Indar eta Kidegoei.

II. kapitulua dauden jarduketak mailei buruzkoa da, eta sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzio goiztiarra azpimarratzen ditu. Zehazki, administrazio publikoek haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko plan eta programa espezifikoak ezartzeko beharrezkoak diren, arrisku-taldeak identifikatuz eta plan zein programa horiek gauzatzeko aurrekontu-baliabideak zehaztuz. Era berean, indarkeria eragiten duten erradikalizazio- eta doktrinatzeko-prozesuen aurrean sentsibilizazioko, prebentzioko eta detekzio goiztiarreko neurriak ezarri behar direla xedatzen du. Detekzio goiztiarrari dagokionez, detektatu diren indarkeria-egoerak komunikatzen direla bermatzeko neurriak hartzean jartzen da azpimarra.

III. kapitulua familia-eremuari dago eskainia, eta ideia hauxe du abiapuntu: familiak, gizartearen oinarriko unitatea denez, bai eta haurrak eta nerabeak garatzeko ingurune naturala ere, administrazio publiko guztien lehentasunezko helburua izan behar du, edozein formatakoa dela ere, familia delako haurren aurkako indarkeria prebenitzeko lehen maila, eta tratu onaren kultura bultzatu behar du, haurdunaldiaren unetik bertatik.

Hori dela eta, legeak indartu egiten ditu familiei laguntza, aholkularitza eta arreta emateko baliabideak, arrisku-faktoreak saihesteko eta prebentzio-faktoreak areagotzeko. Horretarako, familietako arriskuen analisia egin beharra dago, helburuak eta aplikatu beharreko neurriak definitu ahal izateko. Guraso guztiek behar dute laguntza guraso-ardurak behar bezala betetzeko; horrenbestez, egiteko hori modu egokian betetzeko, laguntza horiek eskuratu behar dituzte, besteak beste. Horretatik, okerrak konpontzeko laguntzak edo laguntza terapeutikoak baino lehen, prebentzioa eta familiarren garapena sustatzera bideratutakoak eman behar dira. Familia-eremuko politika guztiek ikuspegi positiboa hartu behar dute familian esku hartzearen inguruan; batetik, familien autonomia eta gaitasuna indartzeko, eta, bestetik, behar bezala funtzionatzen ez dutenean laguntza behar duten bakarrak familiarik kalteberenak diren ideia baztertzeko.

Nabarmenezkoa da legean guraso-erantzukizuna modu positiboan egikaritzeari egiten zaion erreferentzia. Hain zuzen ere, kontzeptu integratzaile gisa agertzen da, horren bidez hausnartu ahal izateko zer eginkizun duen familiek egungo gizartean, eta, orobat, hainbat orientazio eta gomendio praktikoa eskaintzeko, haren oinarriak familia-politika publikoen eremutik artikulatzeari begira.

Horretatik, trebetasun horiek bultzatu eta eskuratzeko neurriak ezartzen ditu legeak, betiere familia bakoitzaren behar bereiziz eta arreta berezia eskainiz familian haustura eta genero-indarkeria jazotzen diren kasuetan adingabearen interes gorena babesteari.

IV. kapituluak hainbat neurri garatzen ditu indarkeria ikastetxeetan prebenitzeko eta goiz detektatzeko, ezinbestekotzat jotzen baita ikastetxeetan jardutea, gizarteratzeko funtsezko inguruneak baitira haurren eta nerabeen bizitzan. Proposatutako erregulazioak sakondu eta osatu egiten du Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 124. artikuluan ezarritako esparrua; izan ere, artikulua horretan jasotako bizikidetzaplanarekin batera, protokoloak izateko beharra ere xedatzen du, honako hauen zantzuen aurrean jarduteko: abusuak eta tratu txarrak, eskola-jazarpena, ziberjazarpena, sexu-jazarpena, genero-indarkeria, etxeko indarkeria, suizidioa, autolesioa eta beste edozein indarkeria mota. Protokolo horiek behar bezala funtziona dezaten, ongizate- eta babes-koordinatzailearen figura ezartzen da ikastetxe guztietan. Adingabeak segurtasun digitalaren arloan gaitzeko beharra ere jasotzen da.

V. kapituluan, Goi Mailako Hezkuntzak eta Unibertsitateen Kontseiluak haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokan izan beharreko parte-hartzea arautzen da.

VI. kapituluan, osasun-eremuari buruzko hainbat neurri jasotzen dira, administrazio publikoek Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluan izan beharreko lankidetzan oinarrituta. Esparru horretan, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko beste batzorde bat sortzeko konpromisoa ezartzen da, eta, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteari begira, osasun-jarduketarako protokolo erkide bat prestatzeko agindua ematen zaio batzorde horri. Gainera, indarkeria-egoeran dauden adingabe guztiei eman beharreko arreta unibertsalaren esparruan, osasun mentalari arreta integrala emango zaiola bermatzen da, eta adinari egokituia.

VII. kapituluak indartu egiten ditu gizarte-zerbitzuetan lanean aritzen diren funtzionarioek haurrak eta nerabeak babesteko dituzten eginkizunak. Ildo horretan, agintaritzaren agente izaera ematen zaie funtzionario horiei, adingabeak babesteari dagokionez dauzkaten funtzioak eraginkortasunez bete ahal izateko, gerta bailiteke indarkeria-egintzen edo egoera gatazkatuen eraginpean egotea; adibidez, babesgabezia-kasuetan adingabea familiari kentzeko aukerarekin lotutakoetan.

Gainera, familian esku hartzeko banakako plan bat diseinatzeko beharra ezartzen da, eta gainerako administrazioek, epaileek eta tartean diren eragile sozialek parte hartu behar dute diseinu horretan. Gainera, kasuen jarraipena egiteko eta kasuok erregistratzeko sistema bat ere behar dela ezartzen da, abian jarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko.

VIII. kapituluan, administrazio publikoek egin eta sustatu beharreko jarduketak arautzen dira, haurrek eta nerabeek, familiariek, hezitzaileek eta adingabeekin lan egiten duten profesionalak Internet modu seguru eta arduratsuan erabiliko dutela bermatzeko.

Kirolaren eta aisiaren eremuari buruzkoa da IX. kapitulua, zeinak xedatzen duen jarduketa-protokoloak izan behar direla eremu horretako indarkeriari aurre egiteko. Horrez gain, betebeharrak jakin batzuk ezartzen dizkie adingabeekin kirol- edo aisia-jarduerak egin ohi dituzten entitateei; horien artean, nabarmentzekoa da babes-ordezkararen figura ezartzen duela.

X. kapitulua Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa da eta bi artikulua ditu. Horietako lehenak ziurtatzen du Segurtasun Indar eta Kidego guztiek, maila guztietan (Estatukoa, autonomikoa, tokikoa), adingabeen aurkako indarkeria-egoerak ikertzen, prebenitzen, detektatzen eta egoera horietan jarduten espezializatutako unitateak izango dituztela eta prest egongo direla halako kasuetan behar bezala jarduteko; horrez gain, ezartzen du polizia-kidego guztiek prestakuntza espezifiko jasoko dutela horrelako egoerak tratatzeko.

Bigarren artikulua xedatzen du zer irizpideren arabera jardun beharko duen poliziak haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuetan, eta adierazten du jarduketa horretan lehenetsunak izango direla haurren eta nerabeen eskubideak errespetatzea eta haien interes gorena kontuan hartzea. Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek bete beharreko jarduketa-protokoloak ezertan galarazi gabe, legeak nahitaezko jarduketa-irizpideen zerrenda bat jasotzen du, bi helburu nagusirekin: indarkeriaren biktima den haur edo nerabeari tratu ona ematea eta biktimizazio sekundarioa saihestea.



Nahitaezko jarduketa-irizpide horien artean, biziki garrantzitsua da adingabeari oro har deklarazioa hartzea saihesteko betebeharra, behar-beharrezkoa den kasuetan izan ezik. Hori bat dator 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Prozedura Kriminalaren Legearen erreformarekin, horren bidez nahitaezkozat ezartzen baita instrukzio-organoak alde aurretik eraturako froga egitea. Adingabeak egitateen narrazio bakar bat egitea da lege honen helburua, Instrukzioko Epaitegian; ez da beharrezkoa une hori baino lehen egitea, ez eta geroago ere.

XI. kapituluak, berriz, Estatuko Administrazio Orokorrak atzerrian dituen eskumenak arautzen ditu, atzerrian dauden espainiar nazionalitateko adingabeen interesak babesteari dagokionez.

Azkenik, XII. kapituluan, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak datu pertsonalen babesari dagokionez duen eginkizuna jasotzen da; hala, adingabeen eskubide digitalak bermatu beharko ditu, kanal irisgarri bat ezarriz eta zilegi ez diren edukiak berehala kenduz.

IV. tituluak, adingabeak babesteko zentroetako jarduketei buruzkoa bera, jarduketa-protokoloak aplikatzeko betebeharra ezartzen die babes-zentroei. Protokolo horiek indarkeria-egoerak prebenitzeko, goiz detektatzeko eta indarkeria-egoeretan ekiteko jarduketak jasoko dituzte, eta ebaluatu egingo da protokoloen eraginkortasuna. Protokolo horien esparruan, halaber, arreta indartua ezartzen da prebentzioko, detekzio goiztiarreko eta esku hartzeko jarduketa espezifikoen kasu hauetarako: babes-neurrien pean dauden eta egoitza-zentroetan bizi diren adingabeak ustez abusuen, sexu-esplotazioaren eta gizakien salerosketaren biktima diren kasuak.

Horrez gain, xedatzen da Fiskaltzak gainbegiratu egingo dituela adingabeak babesteko zentroak, dagokion konexio informatikoa egongo dela haurrak babesteko entitate publikoekin, eta, orobat, entitate horiek etengabeko komunikazioa izango dutela hala Fiskaltzarekin nola, hala badagokio, adingabea zentroan sartzea erabaki zuen agintari judizialarekin.

V. tituluak, administrazio-antolamenduari buruzkoa bera, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko informazioaren erregistro zentral bat sortzeko konpromisoa jasotzen du I. kapituluan. Erregistro horri administrazio publikoek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Segurtasun Indar eta Kidegoek igorri beharko diote informazioa.

II. kapituluak, bestalde, araudi espezifikoa sartzen du Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboari buruz; erregistro horrek, aurrerantzean, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentrala izango du izena. Hala, garatu eta zabaldu egiten du adingabeen babesa, hobetu egiten baitu sistema, sexu-askatasunaren edo -ukigabetasunaren aurkako edo gizakien salerosketako deliturik egin ez izanaren betekizuna ezarriz adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten jarduerak egin ahal izateko.

Legearen ondoretarako, adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten lanbide, ofizio eta jarduerak zein diren zehazten da; hala, beren esentzia dela-eta haur eta nerabeekin tratu errepikatu, zuzen eta erregularra izatea —ez noizbehinkako soila— dakarten lanbide, ofizio eta jarduerak direla xedatzen du; eta, edozein kasutan, berariaz haietzako jarduerak edo zerbitzuak sartzen direla definizio horretan.

Babesa zabaltze aldera, langile guztiek izango dute sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako deliturik egin ez izana egiaztatzeko betebeharra; hots, beren kontura edo besteren kontura diharduten langileek, sektore publikoek nahiz pribatukoek, bai eta boluntarioek ere.

Gainera, administrazio-isiltasunaren zentzu negatiboa ezartzen da interesdunak eskatuta sexu-izaerako delituen aurrekariak ezerezteko hasten diren prozeduretan.

Xedapen gehigarriari dagokienez, Justizia Administrazioaren eta gizarte-zerbitzuen arloko aurrekontu-zuzkidura ezartzen da biktimizazio sekundarioaren aurka borrokatzeko eta legeak agindutako betebeharrak berriak betetzeko; hala, administrazio publikoei agintzen zaie beren eskumenean esparruan bizileku-irtenbideei eman diezaietela lehentasuna, kideetako bat adingabea duten familiak etxegabetzean; haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko iritzi publikoaren datuen jarraipena egin dezatela, aldian-aldian

inkestak eginez; langile-gastuen arloan indarrean dagoen araudia bete dezatela, eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralari eta Haurren Aurkako Tratu Txarren Erregistro Bateratuari buruzko erreferentziak egunera ditzatela. Era berean, seigarren xedapen gehigarrian, Gobernuari agindua ematen zaio urtebeteko epean ezartzeko administrazioek, enpresek edo beste entitate batzuek aurrekaririk baden modu automatizatuan egiaztatu ahal izateko behar diren mekanismoak. Zazpigarren xedapen gehigarriak, berriz, jarraipen-batzorde bat sortzeko konpromisoa jasotzen du, legearen abiaraztea eta haren ondorio juridiko eta ekonomikoak azter ditzan eta legearen eragina ebalua dezan. Zortzigarren xedapen gehigarriak lurraldean sartzea eta asilo-prozedura izatea bermatzen die nazioarteko babes behar duten haurrei, edozein direla ere haien nazionalitatea eta Espainian sartzeko modua, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legean ezarritako baldintzetan. Azkenik, bederatzigarren xedapen gehigarriak arduraldi eskusiboko hartzaile espezializatuaren Gizarte Segurantzako araubidea erregulatzeko agindua ematen dio Gobernuari.

Bukatzeko, nabarmentzekoak dira legearen azken xedapenen bidez hainbat arauditan egiten diren aldaketak.

Azken xedapenetako lehenak Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen du.

Lehenengo eta bigarren apartatuetan, segurtasun juridiko handiagoa ematen zaie hala biktimei nola delitu batek kalte egin dien pertsoneri. Horrenbestez, aldatu egiten dira 109 bis artikulua eta 110. artikulua, eta egungo jurisprudentzia islatzen da, akusazio-idazkia egiteko epemuga igaro ondoren biktimak eta kaltetuak pertsonatzeko aukera ematen duena baldin eta Fiskaltzak edo bertaratutako gainerako akusazioek egindako akusazio-idazkiari atxikitzen bazaizkio. Horrela, delituaren biktimen benetako babes judizialerako eskubidea bermatzen da, eta, aldi berean, ikertutako pertsonen defentsa-eskubidea errespetatzen da.

Hirugarren apartatuan, aldatu egiten da 261. artikulua, eta salbuespen bat ezartzen zaio salaketa egiteko betebeharraren lekapearen araubide orokorrari; izan ere, delituegitatea egin duen pertsona salatze bidez betebeharra ezartzen zaie delitu egin duen pertsonaren ezkontideari eta hurbileko senideei adingabe baten edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona baten aurka egindako delitu astuna denean; hala, Lanzaroteke Hitzarmeneko eskakizunetara egokitzen da gure legedia. Era berean, laugarren apartatuan 416. artikulua aldatzen da, salbuespen batzuk ezartzen baitzaizkio deklaratzeko betebeharraren lekapeari, prozesu penalean adingabeak edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonak babesteko.

Bosgarren apartatutik hamalagarrenera bitartekoek osotasunez eta sistematikoki arautzen dute aurrez eraturako froga, eta baliozko izateko bete beharreko betekizunak ezartzen dituzte. Gainera, aldatu egiten da prozesu penalean har daitezkeen eta adingabeengan edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonengan eragina izan dezaketen izaera penaleko eta zibileko kautela-neurrien erregulazioa.

Aurrez eraturako froga tresna egokia da biktimizazio sekundarioa saihesteko, eta bereziki eraginkorra da biktimak adingabeak direnean edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonak direnean. Haien kalteberatasun berezia dela eta, derrigorrezkoa izango da lekukoa 14 urte baino gutxiagokoa denean edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona denean. Halakoetan, agintari judizialak, aurrez eraturako froga egin ondoren, ahozko judizioan deklarazioa egitea erabaki ahal izango du, zioak emanez, soil-soilik alderdietako batek eskatzen bada eta beharrezkotzat jotzen bada.

Hortaz, salbuespenezkoa izango da 14 urte baino gutxiagokoek edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen judizioan deklaraztea, arau orokorra izango baita aurrez eraturako froga instrukzio-fasean egitea eta judizio-ekitaldian erreproduzitzea. Horrela, lehen deklarazioaren eta ahozko judizioaren arteko denbora-tarteak ez dio kontakizunaren kalitateari eragingo, eta saihestu egingo da biziki kalteberak diren biktimen biktimizazio sekundarioa.

Azken xedapenetako bigarrenak aldatu egiten du Kode Zibilaren 92. artikulua, bai banantze-, deuseztasun- eta dibortzio-prozesuetan adingabearen interes gorena

indartzeko, bai zaintza- eta jagoletza-araubideak betetzeko beharrezkoak diren kautelak daudela ziurtatzeko.

Aldatu egiten da Kode Zibilaren 154. artikulua ere, garbi zehaztuta gera dadin seme-alaba adingabeen bizilekua erabakitze ahalmena bi gurasoei dagokien ahalaren barruan dagoela, arau orokor gisa. Horrek esan nahi du ahalmen hori gurasoetako bati eten edo kendu ez bazaio, edo ahalmen hori gurasoetako bati eskusiboki eman ez bazaio, bien adostasuna beharko dela, edo, halakorik ezean, epailearen baimena beharko dela, adingabea lekualdatzeko, edozein dela ere haren zaintzari edo jagoletzari buruz hartu den neurria. Autonomia-erkidego batzuek hala ezarri dute jada, berariaz. Horrela, argitu egiten dira nazioarteko araudiko kontzeptu autonomoen inguruko interpretazio-zalantzak; zehazki, hauetakoak: Kontseiluaren 2003ko azaroaren 27ko 2201/2003 Erregelamendua, ezkontzaren eta guraso-erantzukizunaren arloko ebazpen judizialen eskumenari, aitorpenari eta betearazpenari buruzkoa, zeinaren bidez indargabetu egiten den 1347/2000 (EE) Erregelamendua, eta Guraso-erantzukizunaren eta haurren babes-neurrien arloko eskumenari, lege aplikagarriari, aitorpenari, betearazpenari eta kooperazioari buruzko Hitzarmenaren 2., 9. eta 3. artikulua (hitzarmen hori 1996ko urriaren 19an egin zen, Hagan). Izan ere, nazioarteko araudian, zaintzaren eta jagoletzaren barruan sartzen da adingabearen bizilekuari buruz erabakitze eskubidea, eta kontzeptu autonomo hori ez dator bat gure barne-legeetan zaintzari eta jagoletzari ematen zaien edukiarekin, eta ez da harekin nahasi behar. Aldaketa horrek osatu egiten du Kode Zibilaren 158. artikuluen indarreko idazkera, non babes-neurri hauek aurreikusten diren: «Gurasoetatik edozeinek edo hirugarren pertsonak adingabea eramatea saihesteko beharrezkoak diren neurriak, eta, bereziki, aurretiaz epailearen baimena behar izatea adingabearen egoitza lekuz aldatzeko».

Aldatu egiten da Kode Zibilaren 158. artikulua, epaileak erabaki ahal izan dezan guraso-ahala eta/edo zaintza eta jagoletza kautelaz etetea edo ebazpen judizialean edo judizialki onetsitako hitzarmenean ezarritako bisita- eta komunikazio-araubidea kautelaz etetea, eta, oro har, egokitzat jotzen dituen gainerako xedapenak eman ditzan, adingabea arriskutik aldentzeko edo bere familia-inguruneak edo hirugarren pertsonak kalterik ez egiteko, betiere adingabeari entzunaldia emango zaiola bermatuz.

Azkenik, Kode Zibilaren 172.5 artikulua aldatzen da, zeinak babes-entitate publikoen tutoretza eta behin-behineko zaintza bertan behera uzteko kasuak arautzen dituen, eta sei hilabetetik hamabira luzatzen da epea, adingabeak zentroa bere borondatez utzi zuenetik zenbatzen hasita.

Azken xedapenetako hirugarrenaren bidez, aldatu egiten da Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorra; hala, programa espezifikoko ezartzen dira haurren eta nerabeen aurkako indarkeriarekin lotutako delituengatik kondenatutako barneratuentzat, berrerortzea saihesteko, eta horien jarraipena egitea ere xedatzen da, baimenak eta baldintzapeko askatasuna emateko.

Azken xedapenetako laugarrenak Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen du. Aldaketa horren bidez, prestakuntza espezializatuaren beharra arautzen da karrera judizialean eta fiskalean, letraduen kidegoan eta Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten gainerako langileen kasuan, prestakuntza hori jasotzeko agintzen baitu nazioarteko araudi osoak; hain zuzen ere, haurrekin eta desgaitasunen bat duten pertsonekin zerikusia duten gaiak kolektibo kalteberei buruzkoak direlako. Era berean, aukera ematen da unitate administratiboetan (besteak beste, Lege Medikuntzako eta Auzitegi Zientzietako Institutuetan eta Biktimei Laguntzeko Bulegoetan, zeinak Justizia Ministerioaren mende dauden) unitate horien jarduketa-arloetan espezializatutako beste profesional batzuk funtzionario gisa sartzeko, biktimei diziplina anitzeko laguntza ematearren.

Azken xedapenetako bosgarrenak aldatu egiten du Publizitatearen azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorra, eta adierazten du publizitatea ez-zilegia dela bai adingabeen aurkako edozein indarkeria edo diskriminazio mota eragiten duenean, bai izaera sexista, arrazista, estetiko, homofobiko edo transfobikoko estereotipoak nahiz desgaitasun-arrazoietan oinarriturikoak sustatzen dituean.



Azken xedapenetako seigarrenak garrantzi handiko zenbait aldaketa egiten ditu Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoan.

Bestela arautzen dira Zigor Kodearen 22.4, 314, 511, 512 eta 515.4 artikuluetan jasotako gorroto-delituak. Hala, adina bi modutara sartu da diskriminazio-kausa gisa; izan ere, hurrei eta nerabeei ez ezik, babes behar duen beste kolektibo sentikor bati ere aplikatzen zaio: adinekoei, hain zuzen. Lege-testu honek duen babes-espituarekin bat, bestalde, tipo penal horien barruan aporofobia eta gizarte-bazterkeria sartzeko baliatu da erreforma, delitu-jarduketaren oinarrian behartsuekiko arbuioa, higuina edo mespretxua dauzkan gizarte-fenomenoari erantzunez. Zergati hori espresuki aipatzen du Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. artikulua.

Luzatu egiten da adingabeen aurka egindako delitu astunenak preskribatzeko epea, zenbatzen hasteko eguna aldatuz: biktimak 35 urte betetzen dituenetik zenbatuko da preskripzio-epea. Horrela, saihestu egiten da inpunitate-espazioak egotea biktimek arlo psikologikoan poliki asimilatzen dituztela eta maiz berandu detektatzen direla estatistikoki frogatuta dagoen delituetan.

Delituaren biktima 18 urtetik beherakoa den kasuetan, ofendituaren barkamena ez da izango, aurrerantzean, erantzukizun kriminala azkentzeko kausa; hala, babes osoagoa emango zaie haur eta nerabeei alde batek eskatuta pertsegi daitezkeen delituetan.

Giza hilketa edo erailketa dela-eta zigortuta daudenei nahitaez kenduko zaie guraso-ahala bi egoera hauetan: egileak eta biktimak elkarrekin seme edo alaba bat dutenean eta biktima egilearen seme edo alaba denean.

Hamabi urtetik hamalaura luzatzen da 148.3 artikuluko lesio-delituaren azpitipo astundua aplikatzeko adina, babes-esparru egokiagoa baita, bizi-tarte horretan izan ohi den kalteberatasuna aintzat hartuta.

Aldatu egiten dira sexu-erasoen tipo astunduaren idazketa, 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-abusu eta -erasoen tipoarena eta adingabeen prostituzio-, sexu esplotazio- eta ustelkeria-tipoena (180., 183., 188. eta 189. artikulua), egungo errealiterata eta lege honen aurreikuspenetara egokitzeko. Gainera, aldatu egiten da 183 quater artikulua, 183. artikulua 1. apartatua eta 183 bis artikulua lehenengo paragrafoaren bigarren tartekian aurreikusitako delituetara soilik mugatzeko 16 urte baino gutxiagoko adingabearen adostasun eskearen bidez erantzukizun kriminala azkentzeko ondorea, egilea adinaren eta garapen edo heldutasun fisiko eta psikologikoaren arabera adingabearengandik hurbil dagoen pertsona bat denerako eta betiere egintzak adingabearen sexu-askatasunaren aurkako erasoak ez direnerako.

Aldatu egiten da 225 bis artikuluko tipo penala, adingabeak osteari dagokiona; hala, haren subjektu aktibo izaten ahalko dira bai adingabearekin bizi ohi den gurasoa, bai adingabearekin egonaldi-araubide baten arabera bakarrik egon ohi den gurasoa.

Azkenik, beste delitu-tipo batzuk sortzen dira teknologiararen eta komunikazioaren arloko bitartekoen bidez jarduten dutenen inpunitatea saihesteko; halako jokabideek, izan ere, arrisku larriak eragiten dituzte adingabeen bizitzarako eta osotasunerako, eta alarma handia pizten dute gizartean. Zigortu egiten dira bitarteko horien bidez adingabeen suizidioa, autolesioa edo elikadura-nahasmenduak sustatzen dituztenak, bai eta adingabeen aurkako sexu-izaerako delituak sustatzen dituztenak ere. Gainera, berariaz aurreikusten da agintari judizialek kendu egingo dituztela eduki horiek saretik, delituek jarraipenik izan ez dezaten.

Azken xedapenetako zazpigarrenak aldatu egiten du Doako Laguntza Juridikoaren urtarilaren 10eko 1/1996 Legea; hala, doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortzen zaie adingabeei eta desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen indarkeriazko delitu astunen biktima direnean, auzitan jarduteko dituzten baliabideak gorabehera.

Azken xedapenetako zortzigarrenak aldatu egiten du Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, partzialki aldatzen dituena Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea; hala, osatu egiten du 2015ean haurrak eta nerabeak babesteko sistemari egindako berrikuspena, arrisku-egoera baloratzeko arrisku-adierazleen deskribapenarekin. Era berean, 14 bis artikulua sartzeko, urgentzia-kasuetan gizarte-zerbitzuen lana errazteko. Azkenik, berme-sistema bat ezartzen da haurrak

babesteko sistemetan, eta babes-erakunde publikoek zaindu egin behar dituzte berme horiek, bereziki kalteberatasun-egoeran dauden haur eta nerabeei dagokienez, hala nola Espainiara bakarrik iristen diren haurren kasuan edota guraso-zaintzarik gabeko haur eta nerabeen kasuan.

Aipatutako urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan egindako erreforma osatzeko, 20 ter artikulutik 20 quinquies artikulura bitartekoak sartzen dira, Europar Batasuneko estatu batetik edo 1996ko Hagako Hitzarmeneko estatu batetik iritsitako adingabeen mugaz haraindiko harreraren inguruan egindako eskaerei aplikatu beharreko baldintzak eta prozedura arautzeko. Kasu horietan haurren eskubideak betetzen direla bermatu behar du Espainiako Agintaritzak Zentralak, eta ziurtatu behar du Espainian betearazi nahi den babes-neurriak haren interes gorena babesten duela. Era berean, Espainiatik Europar Batasuneko beste estatu batera edo 1996ko Hagako Hitzarmeneko estatu batera mugaz haraindiko harrerarako eskaerak helarazteko prozedura arautzen da. Lehen kasuari dagokionez, honako hauek hartzen dira aintzat: Ezkontzaren eta guraso-erantzukizunaren arloko ebazpen judizialen eskumenari, aitorpenari eta betearazpenari buruzko Kontseiluaren 2003ko azaroaren 27ko 2201/2003 (EE) Erregelamendua, zeinaren bidez indargabetu egiten den Kontseiluaren 1347/2000 (EE) Erregelamendua, eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 25eko (EB) 2019/1111 Erregelamendua, ezkontzaren eta guraso-erantzukizunaren arloko ebazpenen eskumenari, aitorpenari eta betearazpenari buruzkoa eta adingabeak nazioartean osteari buruzkoa.

Horrela, bete egiten dira nazioarteko hitzarmenetatik eratorritako betebeharrak, eta, horrez gain, Konstituzio Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren azken jurisprudentzia-irizpideetara egokitzen da idazketa berria; hurrenez hurren, 2019ko maiatzaren 9ko 64/2019 epaian eta 2016ko urriaren 11ko epaian daude jasota irizpideok.

Azken xedapenetako bederatzigarrenak aldatu egiten ditu Prozedura Zibilarren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 779. eta 780. artikulua; hala, gehienez ere hiru hilabeteko epea ezartzen du adingabeen babesaren arloan administrazio-ebazpenen aurkakotza bideratzen den prozeduratan, hasten direnetik kontatzen hasita. Horrez gain, aurreikusten da adingabeek berek aukeratu ahal izango dituztela beren defendatzaileak, murriztu egiten dira prozeduraren epeak, eta kautela-neurriak hartzeko aukera jasotzen da.

Azken xedapenetako hamargarrenak aldatu egiten du Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 1. artikulua, jasota gera dadin lege horretan aipatzen den genero-indarkeriak barnean hartzen duela emakumeei galera edo kaltea eragiteko helburuarekin haien senide edo hurbileko adingabeen gainean erabiltzen den indarkeria ere.

Azken xedapenetako hamaikagarrenak aldatu egiten du Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 4. artikulua, adingabeek egindako delituen biktimen eskubideei buruzkoa, eta genero-indarkeriaren biktimen eskubide berriak konfiguratzeko, egitateen egilea 18 urtetik beherakoa den kasuetarako; horretarako, egokitu egiten du Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 7.3 artikuluan aurreikusitakoa.

Azken xedapenetako hamabigarrenak aldatu egiten du Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia: beste arau-hauste bat sartzen du lan-arloan; zehazki, sexu-arloan aurrekariak dituzten pertsonen adingabeekin lotutako jardueretan lana ematea.

Azken xedapenetako hamahirugarrenak aldatu egiten du Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legea, eta ezartzen du indarkeriaren biktima diren adingabeen arretari buruzko erregistroak historia klinikoan jaso behar direla. Horri esker, kasuen jarraipen hobea egin ahal izango da, bai eta osasun publikoko arazo horren munta aintzat hartuko eta errazago zainduko ere.

Azken xedapenetako hamalagarrenak aldatu egiten du Osasun Lanbideen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legea, osasun-zientzietako espezialista-tituluak emateari dagokionez.

Azken xedapenetako hamabosgarrenak Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legea aldatzen du, haurrek eta nerabeek beren intereseko espedienteetan entzunak izateko duten eskubidea ziurtatzeko, beren defentsa-eskubidea zainduz, eta, halaber, askatasunez adierazteko duten eskubidea ziurtatzeko, haien intimitatea bermatuz.

Azken xedapenetako hamaseigarrenak aldatu egiten du uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duena, eta aldaketa horren bidez eguneratu egiten du Lege eta Auzitegiko Medikuntzako espezialitatearen izena.

Azken xedapenetako hamazazpigarrenak lege hau onesten denetik sei hilabeteko epean Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Estatu Kontseilua sortzeko agindua ematen dio Gobernuari.

Azken xedapenetako hemezortzigarrenak eskumen-titulua ezartzen du, eta adierazten du lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 2., 5., 6., 7., 8., 16., 18., 27., 29. eta 30. puntuetan aurreikusitakoaren babesean ematen dela.

Azken xedapenetako hemeretzigarrenak ezartzen du xedapen zehatz batzuek izaera arrunta dutela.

Azken xedapenetako hogeigarrenak bi lege-proiektu egiteko agindua ematen dio Gobernuari, jurisdikzio penalaren eta zibilaren espezializazioa eta Fiskaltzaren espezializazioa ezartzeko. Era berean, ezartzen da eskumena duten administrazioek epe berean arautuko dituztela haur eta nerabeetan espezializatutako organo judizialei laguntza espezializatua ematen dieten lantalde teknikoaren osaera eta funtzionamendua, erantzun judiziala hobetu ahal izateko, diziplina anitzeko ikuspegi batetik, eta haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen berdintasunezko babes egoki eta uniformeak lortzeko.

Azken xedapenetako hogeita batgarrenak baimena ematen die Ministroen Kontseiluari eta Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako, Justiziako eta Barne-arazoetako titularrei legea garatzeko behar beste arau emateko, erreferentzia berezia eginez adingabeak babesteko eta erreformatzeko zentroetan euste- eta segurtasun-neurrien arloan aplikatu beharreko araubideari.

Lege honetan aurreikusitakoarekin bateraezina den araudia egokitu beharra dago, eta azken xedapenetako hogeita bigarrenak egokitzapen hori arautzen du, eta hogeita hirugarrenak, berriz, Europar Batasuneko zuzenbidearen txertaketa.

Azken xedapenetako hogeita laugarrenak agindua ematen dio Gobernuari adingabeen adina zehazteko prozedura arau bidez eta lege hau onesten denetik hamabi hilabeteko epean garatzeko.

Bukatzeko, azken xedapenetako hogeita bosgarrenak lege hau indarrean noiz jarriko den arautzen du.

### III

Legea izapidetzean, txostena eskatu zaie Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari, Kontseilu Fiskalari, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari, Desgaitasunaren Kontseilu Nazionalari, Gizarte Ekintzako Gobernu Kanpoko Erakundearen Estatu Kontseiluari eta Hirugarren Sektoreren Plataformarekiko Elkarrizketa Zibilerako Batzordeari. Era berean, kontsulta egin zaie hala autonomia-erkidegoei nola toki-erakundeei, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren bitartez. Azkenik, txostena egin dute Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak, haren Ordezko Batzordeak eta Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak eta haren Aholku Batzordeak.

Lege hau bat dator Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioekin. Aurreko paragrafoetan azaldutakoak garbi erakusten du bete egiten direla premia- eta efikazia-printzipioak. Izan ere, lege honek haurren eta nerabeen aurkako indarkeriak dakarren eskubide-urraketaren aurrean babes integral eta uniformeak emateko sistema bat erregulatuko duen esparru arautzaile bat dakar Estatuko lurralde osorako, egungo eredu

zaticatua baztertuta, eta horren beharra zegoen; horrela adingabeei babes handiagoa emango zaie. Era berean, legea bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, arestian aipatutako helburuak lortu ahal izateko ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen baitu, eta bat dator segurtasun juridikoaren printzipioarekin ere, legea koherentea baita Estatuko eta nazioarteko ordenamendu juridikoarekin, bete egiten dituelako bai Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikuluan ezarritakoa, zeinak adierazten baitu estatu kideek tratu txarren mota guztietatik babestu behar dituztela haurrak eta nerabeak, bai Haurraren Eskubideen Batzordeak 2010ean eta 2018an Espainiari egindako gomendioak. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua izapidetzean bete egin dira aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta informazio publikoaren izapidea, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26. artikulua 2. eta 6. apartatueta aurreikusitakoarekin bat. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, nahiz eta administrazio-zamak areagotu egiten diren, zama horiek ezinbestekoak baino ez dira legearen helburuak lortzeko, eta ez dira inolaz ere alferrekoak.

Esaten den moduan, erreformaren bidez, burutu egiten da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/93/EB Zuzentarauaren 3. artikulua 2. apartatutik 4.era bitartekoak, 6. artikulua eta 9. artikulua a), b) eta g) letrak Espainiako Zuzenbidean txertatzeko prozesua. Zuzentarau hori adingabeen sexu-abusuen, sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurka borrokatzeari buruzkoa da, eta Kontseiluaren 2004/68/JAI Esparru Erabakia ordeztzen du.

## ATARIKO TITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea.

1. Hurrek eta nerabeek beren osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta moralerako dituzten oinarrizko eskubideak edozein indarkeria motaren aurrean bermatzea da legearen xedea. Horretarako, hurrek eta nerabeek beren nortasuna askatasunez garatu ahal izatea ziurtatuko du, eta babes integraleko neurriak ezarriko ditu, barnean hartuta sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa eta kaltearen erreparazioa, haien bizitza garatzen den eremu guztietan.

2. Lege honen ondoretarako, indarkeriatzat jotzen da adingabeak beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen dituen ekintza, ez-egite edo tratu zabar oro, baldin eta adingabe haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, indarkeria hori gauzatzeko modua eta bitartekoa gorabehera, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez gauzatutakoa ere; bereziki, indarkeria digitala.

Edozein kasutan, indarkeriatzat joko dira tratu txar fisiko, psikologiko eta emozionala; zigor fisikoak, umiliagarriak eta laidogarriak; arduragabekeria eta tratu zabarra; mehatxuak, irainak eta kalumniak; esplotazioa, sexu-indarkeria barne; ustelkeria; haur-pornografia; prostituzioa; eskola-jazarpena, sexu-jazarpena, ziberjazarpena; genero-indarkeria; mutilazio genitala; gizakien salerosketa, edozein helburutarako izanik ere; ezkontza behartua eta haur-ezkontza; pornografia eskatu gabe eskura jartzea; sexu-estortsioa; datu pribatuak publikoki zabaltzea, bai eta haien familia-eremuan edozein indarkeriazko portaera izatea ere.

3. Lege honen ondoretarako, haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideak errespetatuz printzipio hauek aktiboki sustatzen dituen tratua da tratu ona: elkarrenganako errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetzeta demokratikoa, gatazken konponbide baketsua, legearen aldetik babes berbera jasotzeko eskubidea, aukera-berdintasuna, eta haurrak eta nerabeak diskriminatuzko debekua.

2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Lege hau Espainiako lurraldean dauden adingabeei aplikatzekoa da, haien nazionalitatea eta administrazio-egoera edozein direla ere, eta, halaber, atzerrian dauden Espainiako nazionalitatea duten adingabeei, 51. artikuluan ezarritako moduan.

2. Espainiako lurraldean diharduten edo dauden pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatu guztiek dituzte lege honetan ezarritako betebeharrak. Ondore horietarako, pertsona juridikoa Espainiako lurraldean dagoela jotzen da egoitza soziala, zuzendaritzaren egoitza eraginkorra, sukurtsala, ordezkari eta edozein motatako establezimendua Espainiako lurraldean duenean.

3. artikulua. *Helburuak.*

Lege honetako xedapenen helburuak hauek dira:

a) Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota guztiak baztertzeko eta desagerrarazteko sentsibilizazio-neurriak ezartzen direla bermatzea, botere publikoei, haur eta nerabeei eta familiei tresna eraginkorrak emanez esparru guztietan, sare sozialetan eta Interneten, bereziki familian, hezkuntzan, osasun-zerbitzuetan, gizarte-zerbitzuetan, arlo judizialean, teknologia berrietan, kirolean eta aisian, Justizia Administrazioan eta Segurtasun Indar eta Kidegoetan.

b) Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko prebentzio-neurri eraginkorrak ezartzea, haurrei eta nerabeei informazio egokia emanez, esku hartzeko eremu guztietan espezializazioa eta lanbide-praktika hobetuz, familiei lagun eginez, gurasotasun positiboko tresnak eskainiz eta adingabeen parte-hartzea indartuz.

c) Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra bultzatzea, haurrekin eta nerabeekin arruntean harremana duten profesionalei diziplinarteko, hasierako eta etengabeko prestakuntza emanez.

d) Haurren eta nerabeen ezagutzak eta trebetasunak indartzea, tratu ona sustatzen aktiboki parte har dezaten, eta indarkeria errekonozitzeko eta horren aurrean erreazionatzeko gai izan daitezen.

e) Haurrek eta nerabeek, beren aurkako indarkeriaren testuinguruetan, entzunak izateko eta beren iritzia behar bezala kontuan har daitezen duten eskubidea indartzea, haur eta nerabe horien babes zuzentzat eta biktimizazio sekundarioa saihestuz.

f) Esparru zibil, penal eta prozesala indartzea, indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeen benetako babes judiziala ziurtatzeko.

g) Administrazio-esparrua indartzea, indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei administrazio-babes hobea bermatzeko.

h) Biktima adingabeen eskubideak erreparatu eta leheneratuko direla bermatzea.

i) Oso egoera kalteberan dauden haur eta nerabeek arreta berezia jasoko dutela bermatzea.

j) Diskriminazio mota oro erauziko dela eta diskriminazio horretatik babesteko laguntza emango dela bermatzea, eta, halaber, estereotipoak gaindituko direla bermatzea estereotipo horiek sexistak, arrazistak, homofobikoak, bifobikoak edo transfobikoak direnean edota arrazoi estetikoetan, desgaitasunean, gaixotasunean, aporofobian, gizarte-bazterkerian edo beste edozein inguruabar edo egoera pertsonal, familiar, sozial edo kulturetan oinarritzen direnean.

k) Jarduketa koordinatua eta etengabeko lankidetzak bermatzea administrazio publikoen eta sentsibilizazioan, prebentzioan, detekzio goiztiarrean, babesean eta erreparazioan parte hartzen duten sektoreetako profesionalen artean.

l) Gure gizartean haurren aurkako indarkeria egotea eragiten duten egiturazko arazoak ikuspegi orokor batetik aztertu eta erauzteak.

m) Lege honetan garatutako esparru guztietan, adingabeak bere bizitza egiten duenetan, tratu oneko ingurune seguru eta inklusiboak sortzeko behar diren protokolo, mekanismo eta neurriak ezartzea. Ingurune segurutzat hartuko da haurren eskubideak



errespetatzen dituen eta babesten duen giro fisiko, psikologiko eta sozial bat sustatzen duena, ingurune digitala barne.

- n) Adingabearen irudia babestea, jaiotzen denetik hil ostera arte.

#### 4. artikulua. *Irizpide orokorrak.*

1. Adingabearen interes gorena interpretatzeko printzipio eta irizpide orokorrak aplikatu behar dira, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikuluan jasoak (1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, partzialki aldatzen dituen Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea), baita hauek ere:

- a) Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota oro debekatzea.
- b) Prebentziozko jarduketak lehenestea.
- c) Jarduketa guztien elementu nagusi gisa haur eta nerabeenganako tratu ona sustatzea.
- d) Jarduketen integritasuna sustatzea, administrazioen arteko eta administrazioen barruko koordinaziotik eta kooperaziotik abiatuta, bai eta nazioarteko kooperaziotik ere.
- e) Haurrak eta nerabeak biktimizazio sekundariotik babestea.
- f) Haurrekin eta nerabeekin arruntean harremana duten profesionalak espezializatzea eta gaitzea, indarkeria-egoerak goiz detektatzeko.
- g) Adingabeen autonomia eta gaitasuna indartzea beren aurkako edo beste inoren aurkako indarkeria-egoerak goiz detektatzeko eta behar bezala erantzuteko.
- h) Neurriak indibidualizatzea, indarkeriaren biktima den haur edo nerabe bakoitzaren behar espezifikoak kontuan hartuta.
- i) Genero-ikuspegia sartzeko haurren eta nerabeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duen edozein neurri diseinatzean eta ezartzean.
- j) Desgaitasunaren ikuspegi transbertsala sartzeko haurren eta nerabeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duen edozein neurri diseinatzean eta ezartzean.
- k) Nesken eta mutilen arteko tratu-berdintasuna sustatzea, hezkidetzeta eta ekitatezko irakaskuntza sustatuz eta genero-rol eta -estereotipoak eraitsiz.
- l) Adingabeari eragiten dioten erabaki guztietan adingabearen interes gorena formalki ebaluatu eta zehaztea.
- m) Adingabeen biziraupena eta garapen osoa ziurtatzea.
- n) Haurrek eta nerabeek eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko daukaten eskubidea egikaritzen dela ziurtatzea.
- ñ) Irisgarritasun unibertuala bermatzea, ezinbesteko neurri gisa, legearen aginduak haur eta nerabe guztientzat gauzatzeko, salbuespenik gabe.

2. Behar diren neurri guztiak hartzea indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeen errekonferentzia fisiko, psikiko, psikologiko eta emozionala sustatzeko eta haien gizarteratzea bultzatzeko.

3. Indarkeria-egintzak egin dituzten adingabeek laguntza espezializatua jaso beharko dute, hezigarria bereziki, tratu ona sustatzera eta indarkeriazko jokabideak prebenitzera bideratua, berrerortzea saihesteko.

#### 5. artikulua. *Prestakuntza.*

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua sustatuko eta bermatuko dute adingabeekin arruntean harremana duten profesionalentzat haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideen arloan. Prestakuntza horrek honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a) Lege honek aipatutako indarkeria mota oro prebenitzeko eta goiz detektatzeko heziketa.
- b) Indarkeria-zantzuak detektatu ondoren egin beharreko jarduketak.

c) Interneten segurtasunari eta erabilera seguru eta arduratsuari buruzko prestakuntza espezifikoa, erabilera trinkoarekin eta jokabide-nahasmenduak sortzearekin lotutako gaiak barnean direla.

d) Haur eta nerabeekiko tratu ona.

e) Arrisku-faktoreen eta indarkeriarekiko esposizio eta kalteberatasun handiagoko faktoreen identifikazioa.

f) Biktimizazio sekundarioa saihesteko mekanismoak.

g) Genero-erolek eta -estereotipoek haur eta nerabeek pairatzen duten indarkerian duten eragina.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaz gain, administrazio publikoek bermatu beharko dute, beren eskumenen esparruan, irakasleek eta hezitzaileek prestakuntza espezifikoa jasotzen dutela hezkuntza inklusiboaren arloan.

3. Abokatuen eta prokuradoreen elkargoek erraztasunak emango dizkiete beren kideei, prestakuntza espezifikoa jaso dezaten haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren alderdi materialen eta prozesalen inguruan, bai barne-zuzenbidearen ikuspegitik, bai Europar Batasuneko zuzenbidearen eta nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik; erraztasunak emango dizkiete, halaber, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren arloan etengabeko prestakuntzako programetara jotzeko.

4. Artikulu honetan aipatzen diren prestakuntza-jarduketak diseinatzean, oso kontuan izango dira bai genero-ikuspegia, bai desgaitasuna duten adingabeen behar espezifikoak, bestelako arraza-, etnia- edo nazio-jatorria dutenenak, desabantaila ekonomikoko egoeran daudenenak, LGTBI kolektibokoak diren edo beste edozein sexu-aukera edo -orientazio edo genero-identitate duten adingabeenak, eta bidaiderik gabeko adingabeenak.

6. artikulua. *Administrazio publikoen arteko lankidetzeta eta kooperazioa.*

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lankidetzan aritu beharko dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141. artikuluan ezarritako moduan, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, goiz detektatzeko, babesteko eta erreparatzeko arloetan eraginkortasunez jardun ahal izateko.

2. Administrazio publikoek nazioko eta nazioarteko erakunde-lankidetzeta sustatuko dute, informazioa, ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeke ekintzen bidez.

3. Administrazio publiko guztien artean behar den kooperazioa bermatzeko, Haurren eta Nerabeen Konferentzia Sektorialean helduko zaie lege hau aplikatzearekin zerikusia duten gaiak.

7. artikulua. *Haurren eta Nerabeen Konferentzia Sektoriala.*

1. Haurren eta Nerabeen Konferentzia Sektoriala administrazio publikoen arteko kooperaziorako organoa da haurren eta nerabeen babesaren eta garapenaren arloan.

2. Konferentzia horrek helburu hauek lortzeko xedez jardungo du:

a) Koherenteak eta osagarriak izatea administrazio publikoek haurren eta nerabeen eskubideak babesteari eta garatzeari begira egiten dituzten jarduerak, eta, bereziki, kolektibo horien aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokan egiten dituztenak.

b) Eraginkortasun eta efizientziarik handienarekin aritzea administrazio publikoek lege honetan aurreikusitakoa betez sustatutako politika, programa eta proiektuak identifikatu, formulatu eta gauzatzean.

c) Administrazio publikoek haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko estrategia prestatzen eta ebaluatzen parte hartzea.

3. Konferentzia Sektorialak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 147.3 artikuluan ezarritakoaren arabera onetsiko du bere barne-antolaketako eta -funtzionamenduko erregelamendua, eta autonomia-erkidegoen, toki-erakundeen eta haurren pobrezia-aren aurka borrokatzeko goi-komisarioaren presentzia eta esku-hartzea bermatuko du.

8. artikulua. *Lankidetzta publiko-pribatua.*

1. Administrazio publikoek lankidetzta publiko-pribatua sustatuko dute haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoeretan prebentzioa, detekzio goiztiarra eta esku-hartzea errazteko, eta, horretarako, komunikabideekin, eragile sozialekin, elkargo profesionalekin, konfesio erlijiosoekin eta haur eta nerabeekin arruntean harremana duten edo haien harreman-eremu materialean diharduten gainerako entitate pribatuekin hitzarmenak egitea bultzatuko dute.

2. Era berean, administrazio publiko eskudunek behar diren neurriak hartuko dituzte III. tituluko VIII. kapituluari jasotako teknologia berrien sektorearekin lankidetzan aritzeko ekintzak behar bezala gauzatzen direla ziurtatzeko.

Bereziki, informazioaren eta komunikazioaren teknologietako enpresen, administrazio publikoetako datuak babesteko agentzien, Segurtasun Indar eta Kidegoen eta Justizia Administrazioaren lankidetzta sustatuko da, sareetan haurren eta nerabeen aurkako indarkeria dakarten legez kanpoko edukiak al bait azkarren detektatzeko eta kentzeko.

3. Interneten adingabeak babestearekin zerikusia duten informazioak, ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak gizarte zibilarekin trukatzeko sustatuko dute administrazio publikoek, diziplina anitzeko ikuspegi inklusiboa hartuta.

4. Haurren aurkako indarkeria-kasuetan, administrazio publikoen eta komunikabideen arteko lankidetzak arreta berezia emango dio biktimaren eta haren familiakoekin ohorea, intimitatea eta irudia errespetatzeari, baita adingabea hil den kasuetan ere. Egoera horretan, jaraunsleen edo gurasoen baimen espresua beharko da edozein irudi mota zabaltzeko.

## I. TITULUA

### Haurrek eta nerabeek indarkeriaren aurrean dauzkaten eskubideak

9. artikulua. *Indarkeriaren biktima diren haurren eta nerabeen eskubideak bermatzea.*

1. Indarkeriaren biktima diren haur eta nerabe guztiei bermatzen zaizkie lege honetan aitortutako eskubideak.

2. Administrazio publikoek indarkeriaren biktima diren haurren eta nerabeen eskura jarriko dituzte, bai eta haien legezko ordezkarien eskura ere, lege honetan aurreikusitako eskubideak eraginkortasunez egikaritzen direla bermatzeko baliabideak, aintzat hartuta horietara jotzeko zailtasunik handiena dutenen inguruabar pertsonalak, familiakoak eta sozialak. Kasu orotan, kontuan hartuko dira desgaitasuna duten edo kalteberatasun bereziko egoeran dauden adingabeen premiak.

3. Haurrek eta nerabeek eskubidea dute beren sexu-orientazioa eta genero-identitatea, sentitua edo adierazia, bizi-ingurune guztietan errespetatu diezazkieten; halaber, behar diren babesa eta laguntza jasotzeko eskubidea dute arrazoi horien inguruko diskriminazioaren edo indarkeriaren biktima direnean.

4. Lege honetan aurreikusitako eskubideak behar bezala egikaritzen direla bermatzeko, indarkeriaren biktima diren haurrek eta nerabeek Biktimizei Laguntzeko Bulegoen laguntza eta babesa izango dituzte, eta bulego horiek adingabeak babestera zuzendutako gainerako baliabide eta zerbitzuak koordinatzeko mekanismo gisa jardungo dute.

Ondore horietarako, Justizia Ministerioak eta eskumenak transferituta dauzkaten autonomia-erkidegoek beste administrazio publiko batzuekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin hitzarmenak onestea sustatuko dute, biktimentzako laguntza efikaziaz koordinatzeko.

10. artikulua. *Informazio- eta aholkularitza-eskubidea.*

1. Administrazio publikoek lege honetan jasotzen diren eta zuzenean aplikatzekoak zaizkien neurriei buruzko informazioa emango diete indarkeriaren biktima diren haur eta

nerabeei, betiere haien egoera pertsonala eta heldutasun-maila kontuan hartuta, eta, hala dagokionean, haien legezko ordezkariari, eta haiek izendatutako konfiantzazko pertsonari; orobat, informazioarako edo salaketarako mekanismo edo bideei buruzko informazioa emango diete.

2. Indarkeriaren biktimei diren haur eta nerabeak dagokien Biktimei Laguntzeko Bulegora bideratuko dira; bertan, kasu bakoitzean beharrezkoa den informazioa, aholkularitza eta laguntza jasoko dituzte, Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako informazioa eta aholkularitza hizkera argi eta ulergarrian eman beharko dira, haurrek eta nerabeek uler dezaketen hizkuntza batean, maila sentsorialean eta kognitiboan erabilerrazak diren formatuen bidez, eta hartzaileen inguruabar pertsonaletara egokituta, sarbide unibertsala bermatuz. Lurraldeek hizkuntza koofizialak dauzkatenean, haurrak edo nerabeak hautatzen duen hizkuntza koofizialean jaso ahal izango du informazio hori.

#### 11. artikulua. *Biktimek esateko dutena entzunarazteko daukaten eskubidea.*

1. Haurrak eta nerabeak berme guztiekin eta adin-mugarik gabe entzungo direla bermatuko dute botere publikoek, eta, kasu orotan, ziurtatuko dute prozesu hori unibertsalki irisgarria izango dela indarkeria egiaztatzearekin eta biktimen erreparazioarekin zerikusia duten prozedura administratibo, judizial edo bestelako guztietan. Haien interes gorenaren aurkakoa denean soilik murriztu ahal izango da, eta arrazoituta betiere, haurrek eta nerabeek entzunak izateko daukaten eskubidea.

2. Profesionalak, metodologiak eta espazioak behar bezala prestatuta eta espezializatuta daudela ziurtatuko da, biktimei adingabeen lekukotza zorroztasunez, kontuz eta errespetuz jasoko dela bermatzeko. Adin goiztiarrean dauden biktimei entzuteari begira, arreta berezia jarriko zaie profesionalen prestakuntzari, metodologiei eta ingurua egokitzeari.

3. Botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte helduen interferentzia edo manipulazioa eragiten duten planteamendu teorikoak edo berme zientifikorik gabeko irizpideak (hala nola gurasoen alienazio-sindromea delakoa) kontuan har ez daitezzen.

#### 12. artikulua. *Arreta integralerako eskubidea.*

1. Botere publikoek arreta integrala emango diete indarkeriaren biktimei diren haur eta nerabeei. Arreta horrek babes-, laguntza-, harrera- eta errehabilitazio-neurriak bilduko ditu.

2. Arreta integralak, adingabearen interes gorena bermatze aldera, besteak beste neurri hauek bilduko ditu bereziki:

- a) Biktimei informazioa eta laguntza psikosozial, sozial eta hezigarria ematea.
- b) Salaketen edo erreklamazioen jarraipena egitea.
- c) Biktimari eta, hala badagokio, familia-unitateari arreta terapeutiko sanitario, psikiatriko eta psikologikoa ematea.
- d) Prestakuntzako laguntza ematea, batez ere berdintasunari, elkartasunari eta aniztasunari dagokienez.
- e) Familiei informazioa eta laguntza ematea, eta, beharrezkoa bada eta haren premia objektiboki funtsatuta badago, familia-unitatearen jarraipen psikosozial, sozial eta hezigarria egitea.
- f) Sare eta zerbitzu publikoetarako sarbidea erraztea.
- g) Hezkuntzarako eta laneratzeko babesa ematea.
- h) Esku hartu behar duen prozedura judizialean lagun egitea eta aholkularitza ematea, beharrezkoa izanez gero.
- i) Neurri horiek guztiek ikuspegi inklusibo eta irisgarria izan beharko dute, haur eta nerabe guztiak salbuespenik gabe artatu ahal izateko.

3. Administrazio publikoek tartean diren eragile guztiak koordinatzeko neurriak hartu beharko dituzte, haurren eta nerabeen biktimizazio sekundarioa saihesteko.

4. Administrazio publikoek ahalegina egingo dute indarkeriaren biktima diren adingabeentzako arreta hurrari edo nerabeari egokitutako ingurune atsegin batean emateko.

5. Osasun- eta hezkuntza-administrazioek eta gizarte-zerbitzu eskudunek, legearen estaldura-eremuan, modu unibertsal eta integralean berrmatuko dute arreta goiztiarra, bai eta garapenerako laguntza ere, garapenean alterazioak edo nahasmenduak dauzkaten edo izateko arriskua daukaten haur guztientzat, jaiotzen direnetik 6 urte betetzen dituzten arte.

13. artikulua. *Indarkeria-egoera baten ondorio diren prozedura judizialetan eskubideak eta interesak defendatzeko legitimazioa.*

1. Indarkeriaren biktima diren haurrak eta nerabeak legitimatuta daude indarkeria-egoera baten ondorio diren prozedura judizial guztietan beren eskubideak eta interesak defendatzeko.

Defentsa hori, oro har, beren legezko ordezkarien bidez egingo da, Kode Zibilaren 162. artikuluan xedatutako moduan. Epaitegi edo auzitegiak izendatutako defendatzaile judizialaren bidez ere egin ahal izango da, ofizioz edo Fiskaltzak eskatuta, apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 26.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Babes-erakunde publiko baten zaintzapean edo tutoretzapean dauden haur edo nerabeek erakunde hori edo haren zerbitzura dauden langileak salatzen badituzte beren aurka indarkeria erabili dutelako, haurraren eta beraren tutore edo zaintzailearen artean interes-gatazka dagoela iritziko zaio.

2. Haur edo nerabe baten aurkako indarkeria-egoera baten ondorioz prozedura penal bat hasten denean, Justizia Administrazioaren letraduak Biktimari Laguntzeko Bulego eskudunera bideratuko du haur edo nerabea, beharrezkoa bada delitua astuna izateagatik, biktima kaltebera izateagatik edo biktimak berak hala eskatzeagatik, apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa betez.

14. artikulua. *Doako laguntza juridikorako eskubidea.*

1. Indarkeriaren biktima diren adingabeek abokatuaren eta prokuradorearen doako defentsa eta ordezkaritza izateko eskubidea dute, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean xedatutakoaren arabera.

2. Abokatuen elkargoez, espezializazio-ikastaroak exijitzen dituztenean ofiziozko txandan aritu ahal izateko, haurren eta nerabeen eskubideen arloko prestakuntza espezifikoa ziurtatuko dute, arreta berezia jarriz Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioari eta haren ohar orokorre; edozein kasutan, prestakuntza espezializatua jaso beharko dute haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren arloan.

3. Orobat, abokatuen elkargoez behar diren neurriak hartuko dituzte adingabeen aurkako indarkeriaren ondoriozko prozeduretan ofiziozko letradua urgentziaz izendatzeko, eta berehala bertaratuko dela eta biktimei lagunduko diela ziurtatzeko.

4. Prokuradoreen elkargoez behar diren neurriak hartuko dituzte adingabeen aurkako indarkeriaren ondoriozko prozeduretan prokuradorea urgentziaz izendatzeko, biktimak akusazio partikular moduan pertsonatu nahi duenean.

5. Biktimarentzat izendatutako abokatuaren haren ordezkaritza prozesalerako ere gaituta egongo da legez, prokuradorea izendatzen den arte, baldin eta biktima ez bada akusazio moduan pertsonatu hurrengo apartatuan xedatutakoari jarraikiz. Ordura arte, abokatuak beteko du jakinarazpenetarako eta agiriak helarazteko egoitza zehazteko eginbeharra.

6. Indarkeriaren biktima diren adingabeak prozeduraren edozein unetan pertsonatu daitezke akusazio partikular gisa; hala ere, horrek ez du aukerarik ematen haiek pertsonatu baino lehen gauzatu diren jarduketetara itzultzeko, ez eta haiek errepikatzeke ere, eta ezin du urritu akusatuaren defentsarako eskubidea.



## II. TITULUA

**Indarkeria-egoerak komunikatzeko eginbearra**

15. artikulua. *Herritarrek komunikatzeko duten eginbearra.*

Adingabe baten aurkako indarkeria-egoera baten zantzuak ikusten dituen pertsona orok agintari eskudunari berehala horren berri emateko betebeharra du; eta, egitateak delitu izan badaitezke, Segurtasun Indar eta Kidegoei, Fiskaltzari edo agintari judizialari jakinarazi behar die, alde batera utzi gabe biktimari behar duen berehalako arreta ematea.

16. artikulua. *Komunikatzeko eginbehar kualifikatua.*

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako komunikatzeko eginbearra are irmoago exijitu ahal zaie beren kargua, lanbidea, ofizioa edo jarduera dela-eta haurrei edo nerabeei laguntza, irakaskuntza edo babesa ematea edo haiek zaintzea dagokien pertsoneri, zeregin horiek betetzen ari zirela haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera baten berri izan badute.

Beti ere, zentro edo zerbitzu hauetako langile kualifikatuak sartuko dira kasu horretan: osasun-zentroak, ikastetxeak, kirol- eta aisia-zentroak, haurrak babesteko zentroak, adingabeen erantzukizun penaleko zentroak, asiloa hartzeko zentroak, adingabeak normalean edo aldi baterako bizi diren establezimenduetako laguntza humanitarioko zentroak eta gizarte-zerbitzuak.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen adingabe baten aurkako indarkeria-egoera baten berri badute edo horren zantzuak ikusten badituzte, berehala jakinarazi beharko diete hori eskumena duten gizarte-zerbitzuei.

Gainera, indarkeria horren ondorioz haurraren edo nerabearen osasuna edo segurtasuna arriskuan badago, berehala eman beharko diete horren berri Segurtasun Indar eta Kidegoei edo Fiskaltzari.

3. Lehenengo apartatuan aipatzen diren pertsonen, adingabe baten datu pertsonalak babesteko araudia urratu dela uste duten bakoitzean, berehala jakinarazi beharko diete hori Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.

4. Edozein kasutan, 1. apartatuan aipatzen diren pertsonen berehala behar duen arreta eskaini behar diete biktimari, daukaten informazio guztia emango dute eta al bait gehien lagunduko diete eskumena duten agintariei.

Ondore horietarako, eskumena duten administrazio publikoek mekanismo egokiak ezarriko dituzte indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuen susmoak komunikatzeko.

17. artikulua. *Haurrek eta nerabeek indarkeria-egoerak komunikatzea.*

1. Indarkeriaren biktima diren edo beste adingabe baten aurkako indarkeria-egoeraren baten lekuko diren haurrek eta nerabeek zuzenean edo beren legezko ordezkarien bidez komunikatu ahal izango diete egoera hori gizarte-zerbitzuei, Segurtasun Indar eta Kidegoei, Fiskaltzari edo agintari judizialari eta, hala badagokio, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.

2. Administrazio publikoek komunikazio-mekanismo seguru, konfidentzial, eraginkor, egokitu eta irigarriak ezarriko dituzte haur eta nerabeentzat, haiek ulertzeko moduko hizkeran. Haurrek eta nerabeek berek izendatutako konfiantzazko pertsona batek lagunduta jardun ahal izango dute.

3. Administrazio publikoek komunikabide elektronikoak badaudela bermatuko dute, hala nola haurrei eta nerabeei laguntzeko doako telefono-lineak, eta lagundu egingo dituzte; halaber, gizarte zibilak horien berri duela bermatuko du, pertsona guztien eskura dauden funtsezko tresnak direnez gero haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko eta goiz detektatzeko.

18. artikulua. *Ikastetxeen eta egoitza-establezimenduen informazio-eginbeharrak.*

1. Ikastetxe guztiek, ikasturte bakoitzaren hasieran, indarkeria-egoerak komunikatzeko prozedurei eta arlo horren arduradun diren pertsonen buruzko informazio guztia emango diete haur eta nerabeei; baita adingabeak bizi ohi diren establezimendu guztiek ere, han sartzen diren unean. Zentro edo establezimenduan aplikatzen diren prozedura horiek administrazio publikoek araututakoak izango dira, eta formatu irisgarrietan eskuragarri egongo dira beti. Era berean, hasieratik emango dute komunikabide elektronikoei buruzko informazioa, hala nola haurrei eta nerabeei laguntzeko telefono-lineei buruzkoa.

2. Zentro eta establezimendu horiek etengabe eguneratuta edukiko dute informazio hori, irisgarria eta erraz ikusteko modukoa den leku batean, eta behar diren neurriak hartuko dituzte haurrek eta nerabeek informazio hori askatasunez edozein unetan kontsultatzeko aukera izan dezaten; halaber, onartu eta erraztu egingo dute haurrek eta nerabeek komunikazio-prozedura horietara eta dauden laguntza-ildoetara sarbidea izatea.

19. artikulua. *Interneteko eduki ez-zilegiak komunikatzeko eginbearra.*

1. Pertsona fisiko edo juridiko orok, ikusten badu edozein haur edo neraberengandik aurkako indarkeria diren edukiak daudela Interneten eskuragarri, agintari eskudunari jakinarazi beharko dio hori; eta, egitateak delitu izatea litekeena bada, Segurtasun Indar eta Kidegoei, Fiskaltzari edo agintari judizialari.

2. Eduki horien existentzia salatzen diren kanal irisgarri eta seguruak erabilgarri daudela bermatu beharko dute administrazio publikoek. Kanal horiek nazioarteko sareek homologatutako salaketa-lerro nazionalak kudeatu ahal izango dituzte, betiere Segurtasun Indar eta Kidegoekin lankidetzan arituz.

20. artikulua. *Babesa eta segurtasuna.*

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, mekanismo egokiak ezarriko dituzte haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak agintariei jakinarazi dizkieten pertsonen konfidentzialtasuna, babesa eta segurtasuna bermatzeko.

2. Ikastetxeek eta aisialdi-zentroek, bai eta adingabeak bizi ohi diren establezimenduek ere, behar diren neurri guztiak hartuko dituzte indarkeria-egoera baten berri ematen duten haurren eta nerabeen babesa eta segurtasuna bermatzeko.

3. Agintari judizialak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, lekukoak babesteari dagokionez aplikatzekoa den araudi espezifikoan aurreikusitako babes-neurriak ezarri ahal izango ditu aurreko artikuluetan xedatutakoari jarraikiz salaketa aurkezteak dakarren arriskua kontuan hartuta beharrezkotzat jotzen duenean.

### III. TITULUA

#### Sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzio goiztiarra

##### I. KAPITULUA

#### Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erauzteko estrategia

21. artikulua. *Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erauzteko estrategia.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoekin, Ceuta eta Melilla hiriekin eta toki-erakundeekin lankidetzan arituz, urte anitzeko estrategia nazional bat prestatuko du, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erauzteko helburuarekin, eta eragin berezia izango du familia-, hezkuntza- eta osasun-arloetan, gizarte-zerbitzuetan, teknologia berrietan, kirolean eta aisian, eta Segurtasun Indar eta Kidegoetan. Estrategia hori Gobernuak onetsiko du, Haurren eta Nerabeen Konferentzia Sektorialaren proposamenari jarraikiz, eta memoria ekonomiko bat izango du erantsita, non eskumena

duten zentroek zein aurrekontu-aplikazioen kargura finantzatu beharko den identifikatuko duten.

Estrategia hori Haurren eta Nerabeen Estrategia Nazionalarekin bat etorri prestatuko da, eta hori prestatzeko lanetan Haurren Behatokiak, hirugarren sektoreko erakundeek, gizarte zibilak eta, oso bereziki, haurrek eta nerabeek hartuko dute parte.

Haur-politiketan eskumenak dituen ministerio-sailak sustatu beharko du hori.

Haurrek eta nerabeek Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Estatu Kontseiluaren bidez hartuko dute parte estrategia prestatzeko lanetan.

2. Estrategia sustatu behar duen organoak ebaluazio-txosten bat egingo du urtero, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko estrategia zenbateraino bete den eta eraginkorra zenbateraino den azaltzen duena. Txosten hori Justizia Ministerioarekin, Barne Ministerioarekin, Osasun Ministerioarekin, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioarekin eta Haur-pobreziaren aurka borrokatzeko goi-komisarioarekin lankidetzan arituz egin beharko da, eta Ministroen Kontseiluari igorri beharko zaio.

Urteko ebaluazio-txostenak haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruz eskuragarri dauden datu estatistikoak jasoko ditu. Txosten horren emaitzak argitaratu egingo dira, guztiek izan dezaten horien berri, eta kontuan hartu beharko dira kasuan kasuko politika publikoak egiteko.

## II. KAPITULUA

### Jarduketa-mailak

#### 22. artikulua. *Sentsibilizazioa.*

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, informazio-kanpaina eta -ekintza zehatzak sustatuko dituzte, ebaluagarriak eta ebidentzian oinarrituak, haurrek eta nerabeek tratu ona jasotzeko duten eskubideari buruz gizartea kontzientziatzeko. Kanpaina horiek haurren eta nerabeen aurkako mota guztietako indarkeriari bide ematen dioten jokabide, diskurtso eta egintzen aurkako neurriak jasoko dituzte, indarkeria horretan diskriminazioa, kriminalizazioa eta gorrotoa barnean direla, gizarte-testuinguruan jarrera-aldaketa sustatzeko helburuarekin.

Era berean, administrazio publikoek sentsibilizazio-kanpaina espezifikoak sustatuko dituzte, Internet modu seguru eta arduratsuan erabiltzea sustatzeko. Kanpaina horiek Internetek eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeari eta modu positiboan erabiltzeari begira egongo dira, eta haurren eta nerabeen ikuspegia eta iritziak jasoko dituzte.

2. Kanpaina horiek modu irisgarrian egingo dira, adin-tarteen arabera berezita, bermatuz adingabe guztiek izango dutela kanpaina horietara jotzeko aukera, eta, bereziki, beren desgaitasuna dela-eta babes espezifikoak behar dituztenek.

#### 23. artikulua. *Prebentzioa.*

1. Eskumena duten administrazio publikoek prebentzio-plan eta -programak ezarriko dituzte haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko.

Plan eta programa horiek neurri espezifikoak jasoko dituzte familia-, hezkuntza- eta osasun-eremuetarako, gizarte-zerbitzuetarako, teknologia berrietarako, kirol eta aisiarako eta Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko strategiaren esparruan, eta administrazio publiko eskudunek ezarritako moduan ebaluatu beharko dira.

2. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko prebentzio-plan eta -programek, arrisku-faktoreak aintzat hartuta, kalteberatasun bereziko egoeran dauden haur eta nerabeak identifikatuko dituzte, bai eta arrisku handiko talde espezifikoak ere, kolektibo horientzako neurri eta baliabideei lehentasuna emateko.

3. Edozein kasutan, honako hauek hartuko dira prebentzioaren arloko jarduketatzat:
- a) Haurren eta nerabeen bizitzako eremu guztietan tratu ona sustatzera bideratutakoak, baita gurasotasun positiboan heztera bideratutakoak ere.
  - b) Haurren eta nerabeen ongizatea eta erabateko garapena zailtzen dituzten gizarte-bazterkeria edo egokitzeko ezintasuna eragiten dituzten prozesuak detektatzera, murriztera edo saihestera bideratutakoak.
  - c) Adingabeen familia- eta gizarte-ingurunea hondatzeko bidea ematen duten faktoreak arintzeko edo konpentsatzeko xedea dutenak.
  - d) Haurren eta nerabeen aurkako edozein indarkeria motak eragindako babesgabetasun-egoerak murriztekoak edo ezabatzeakoak.
  - e) Haurrentzako eta nerabeentzako informazioa sustatzen dutenak, haurren eta gazteen parte-hartzea sustatzen dutenak eta sentsibilizazio- eta prebentzio-prozesuetan bertan adingabeen parte-hartzea sustatzen dutenak.
  - f) Familiaren eta lanaren arteko kontziliazioa eta gurasoen erantzukidetasuna sustatzen dituztenak.
  - g) Hala helduek nola adingabeek Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioko printzipio eta xedapenak ezagutzea sustatzekoak.
  - h) Haurrak eta nerabeak desabantaila sozialeko egoeran eta indarkeria jasateko arriskuan jartzen dituzten oztopo guztiez gizarte kontzientziatzeakoak, bai eta oztopo horiek murriztu edo ezabatzeakoak ere.
  - i) Haurren eta nerabeen eremu guztietan segurtasuna sustatzekoak.
  - j) Nesken eta mutilen arteko berdintasun-harremanak sustatzekoak, nesken, emakumezko nerabeen eta emakumeen aurkako indarkeria motak identifikatzen dituztenak.
  - k) Hurrekin eta nerabeekin esku hartu ohi duten profesionalak hurrei eta nerabeei –eta, bereziki, kalteberatasun bereziko egoeran dauden kolektiboek– emandako arretarekin zerikusia duten gaietan etengabe eta modu espezializatuan trebatzeakoak.
  - l) Hurrek eta nerabeek beren adinarekin bat ez datozen lan- eta familia-konpromisoak beren gain hartzeko ikasketak bertan behera ez uztera zuzendutakoak; bereziki, haurren ezkontzari dagozkionak, zeinak, sexua dela eta, neskei eragiten dien.
  - m) Lege honetan araututako jarduketa-eremuei dagokienez jasotzen den beste edozein.
4. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko jarduketek lehentasuna izango dute. Horretarako, Estatuko Aurrekontu Orokorrekin batera, haurren, nerabeen eta familiaren gaineko eraginari buruzko txostenari lotutako agiriak jaso beharko dira; agiri horietan, aurrekontua kudeatzen duten zentroek indibidualizatu egingo dituzte jarduketa horiek gauzatzeko aurrekontu-partidak.

#### 24. artikulua. *Haurren eta nerabeen erradikalizazioa prebenitzea.*

Administrazio publiko eskudunek beharrezkoak diren sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak eta detekzio goiztiarreko neurriak hartuko dituzte adingabeak nagusiki indarkeriazko jokabideen ereduak edo indarkeriara daramaten delitu-jokabideen ereduak ikasten diren prozesuetatik babesteko, prozesu horiek gertatzen diren edozein eremutan; orobat, neurriak hartuko dituzte indarkeria gauzatzen den kasuetan tratamendua eta laguntza emateko. Edozein kasutan, prebentzio-tratamenduak generoaren eta adinaren alderdiak jasoko ditu.

#### 25. artikulua. *Detekzio goiztiarra.*

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, hasierako eta etengabeko prestakuntzako programak landuko dituzte, urtero, beren jardura dela-eta hurrekin eta nerabeekin arruntean harremana izan behar duten profesionalentzat, haurren eta nerabeen aurka erabilitako indarkeria goiz detektatzeko eta indarkeria horren berri 15. eta 16. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz eman ahal izateko.

2. Adingabe baten aurkako indarkeria-egoeraren bat goiz detektatu den kasuetan, egoera hori detektatu duen profesionalak berehala eman behar die egoera horren berri gurasoei edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenei, indarkeria hori haiek gauzatu duten zantzuak daudenean salbu.

3. Eskumena duten administrazio publikoek adingabeak gaitzera sustatuko dute, indarkeria-egoerak detektatzeko tresnak izan ditzaten.

### III. KAPITULUA

#### Familia-eremua

##### 26. artikulua. *Prebentzioa familia-eremuan.*

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, ingurune seguru bat sortzeko laguntza eman behar diete familiei, zeinahi dela ere haien forma, bai eta hurrekin eta nerabeekin bizi ohi diren pertsoneri ere, arrisku-faktoreak lehen haurtzarotik prebenitzeko eta babes-faktoreak indartzeko, eta, halaber, gurasoen edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenen hezkuntza- eta babes-lana lagundu behar dute, beren guraso- edo tutore-rola behar bezala bete ahal izan dezaten.

2. Horretarako, 23. artikuluan aurreikusitako prebentzio-plan eta -programetan gutxienez analisi bat jaso behar dute eskumena duten administrazio publikoek, beren eskumeneko lurraldean familiak duen egoerari buruzkoa, haren premiak identifikatzeko eta helburuak eta aplikatu beharreko neurriak zehazteko.

3. Aurreko apartatuan aipatutako neurriek helburu hauek izan behar dituzte:

a) Tratu ona, erantzukidetasuna eta gurasotasun positiboa sustatzea. Lege honen ondoretarako, gurasotasun positiboa da gurasoen edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenen portaera, haurraren edo nerabearen interes gorenean oinarritua eta adingabea ingurune afektiboan eta indarkeriarik gabe haztera bideratua. Barnean hartzen du haur edo nerabeak bere iritzia adierazteko, eragiten dioten gai guztietan parte hartzeko eta kontuan hartua izateko dituen eskubideak bermatzea, haur edo nerabea eskubide eta betebeharretan hezteko, bere gaitasunak garatzen laguntzea, errekonozimendua eta orientazioa eskaintzea eta maila guztietan erabat garatzeko aukera ematea.

Gurasotasun positiboa sustatzeko jarduketak ez dira inola ere bestelako helburuekin erabili behar gurasoen arteko gatazka-, banantze- edo dibortzio-kasuetan, ezta adostu gabeko zaintza partekatua agintzeko ere. Abal zientifikorik gabeko egoerekin ere ez da lotu behar gurasotasun positiboa, hala nola guraso-alienazioaren sindromearekin.

b) Balio eta gaitasun emozionalak eskuratzeko hezkuntza eta oinarrizko eta funtsezko estrategiak sustatzea, bai gurasoengan edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenengan, bai haurrengan, haien heldutasunaren arabera. Bereziki, honako hauek sustatuko dira: erantzukidetasuna, emakumeen eta nesken aurkako indarkeriarekiko arbuioa, ikuspegi inklusiboa duen hezkuntza, eta gurasoekin edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenekin lotura afektibo sendo, elkarrekiko eta segurua lortzeko moduan hazteko trebetasunak eskuratzeko estrategiak garatzea lehen haurtzaroan.

c) Emakumeei haurdunaldian arreta eskaintzea sustatzea eta haurrak jaio aurreko tratu ona ematea. Arreta hori, batez ere, emakumearen haurdunaldirako eta ongizaterako kaltegarriak izan daitezkeen inguruabarrak identifikatzen jarri behar da, bai eta haurdunaldiko arrisku-egoerak goiz detektatzeko eta horiek prestatzeko eta laguntzeko estrategiak lantzen ere.

d) Amarentzat eta jaioberriarentzat ingurune obstetrikiko eta perinatal seguru bat eskaintzea, eta gaixotasun edo alterazio genetikokoak detektatzeko protokoloak txertatzea, ebidentzia zientifikoa frogatuta daukatenak, jaioberriaren diagnostiko goiztiarra egiteko eta, hala dagokionean, tratamendu eta osasun-arreta goiztiarra emateko.



e) Helduentzako, haurrentzako eta nerabeentzako prestakuntza-programak lantzea familia barruko gatazkak negoziatzeko eta konpontzeko trebetasunen inguruan.

f) Ikaste-modu positiboak sustatzeko programak ezartzea, bai eta familia-eremuan indarkeriazko zigor fisiko edo psikologikoa ezabatzeak ere.

g) Haurrei eta nerabeei informazioa eta laguntza profesionala emateko beharrezkoak diren zerbitzuak sortzea, behar besteko gaitasuna izan dezaten indarkeria mota oro goiz detektatzeko eta baztertzeak. Arreta berezia jarri behar zaie generoagatik eta adinagatik zuzeneko edo zeharkako edozein diskriminazio motaren biktima diren nesken eta emakumezko nerabeen arazoei.

h) Desgaitasuna duten haurren eta nerabeen familiei behar dituzten orientazioa, prestakuntza eta laguntzak ematea, haur eta nerabe horiek familia-ingurunean arreta egokia izateko, eta, aldi berean, haien autonomia eta familian duten parte-hartze aktiboa sustatzeko eta komunitatean gizarteratu daitezen sustatzeko.

i) Heldu, haur eta nerabeentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-programak lantzea, familiaren barruan haur-ekontza ez sustatzeko, ikasketak bertan behera ez uzteko eta adinarekin bat ez datozen lan- eta familia-konpromisoak beren gain ez hartzeko.

#### 27. artikulua. *Familia-eremuko jarduketa espezifikoak.*

1. Administrazio publikoek familia-politikako neurriak bultzatuko dituzte, gurasoengan edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenengan gurasotasun positiboaren alderdi kualitatiboak sendotzeko. Bereziki, pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren zergatiak prebenitzera bideratutakoak, bai eta gizarte-elkarrizketaren esparruan familia eta lana kontziliatzera bideratutakoak ere, ordutegien eta lan-baldintzen bidez behar bezala erantzun ahal izateko hazkuntzatik eratorritako erantzukizunei, eta gizonek eta emakumeek erantzukizun horiek berdintasunez egikaritu ahal izateko.

Neurri horiek indibidualizatu egin beharko dira, familia-unitate bakoitzak dituen laguntza-behar espezifikoaren arabera, eta arreta berezia jarriko zaie desgaitasuna duten edo kalteberatasun bereziko egoeran dauden haur edo nerabeak dituzten familiei. Eta familia-inguruneak ez banantzeko neurriak ere bultzatuko dituzte.

2. Administrazio publikoek guraso- edo tutoretza-erantzukizunak modu positiboan gauzatzeko prestakuntza-materialak prestatuko edo zabalduko dituzte, zentzumenentzat eta kognizioarentzat irisgarriak diren formatuan eta hizkeran. Material horiek haurren eta nerabeen eskubideen eta eginbeharren arloko prestakuntza jasoko dute, eta eduki espezifikoak izango dituzte, bai neskak desberdintasun-mailan jartzen dituzten genero-roleri eta -estereotipoeri aurre egiteari buruzkoak, bai sexu- eta genero-aniztasunari buruzkoak, haur eta nerabeen aurkako jokabide diskriminatzaile eta indarkeriazkoak prebenitzeko neurri gisa.

#### 28. artikulua. *Familia hautsi izanaren egoera.*

Administrazio publikoek, familia hautsitako kasuetan, arreta berezia jarri behar diote haurren eta nerabeen interes gorena babesteari, eta, beren eskumenen esparruan, egoera horretan egonik seme-alaba adingabeak dauzkaten familiei bereziki zuzendutako neurriak hartuko dituzte, gurasoen hausturak seme-alaba haien ongizaterako eta garapen osorako ondorio kaltegarriak izango ez duela bermatzeko.

Besteak beste, neurri hauek hartuko dira:

a) Familiei laguntzeko zerbitzuak, familia-elkarguneak eta haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean arreta eta babes egokia emateko titulartasun publikoko bestelako baliabide edo zerbitzu espezializatuak bultzatzea.

b) Epaitegietako kabinete psikosozialak eta bitartekaritza- eta adiskidetze-zerbitzuak bultzatzea, tartean diren gurasoen eta haur eta nerabeen autonomia erabat errespetatuz.

29. artikulua. *Genero-indarkeria egoera familia-eremuan.*

1. Administrazio publikoek arreta berezia jarri behar diote genero-indarkeriak markatutako familia-inguruneetan bizi diren haurren eta nerabeen interes gorenara babesteari; kasu horiek detektatuko direla eta erantzun espezifikoak emango zaiela bermatu, eta haur eta nerabe horien eskubideak erabat babestuta egongo direla ziurtatu.

2. Administrazio publikoen jarduketak modu integralean gauzatu behar dira, eta hala adingabearen nola amaren errehabilitazioa aurreikusi behar dute, biak baitira genero-indarkeriaren biktimak. Zehazki, behar den laguntza bermatuko da, haurrak eta nerabeak emakumearekin egon daitezzen beren babesari, arreta espezializatuari eta errehabilitazioari begira, hori haien interes gorenaren aurkakoa denean salbu.

Horretarako, gizarte-zerbitzuek eta haurrak eta nerabeak babestekoek honako hauek ziurtatu behar dituzte:

- a) Genero-indarkeriako egoerak detektatzea eta haiei erantzun espezifikoak ematea.
- b) Genero-indarkeriaren biktimak diren adingabeak arreta espezializatuko zerbitzuetara bideratzea eta zerbitzu haiekin koordinatzea.

Osasun-, polizia-, hezkuntza-, justizia- eta berdintasun-arloko erakundeek genero-indarkeriaren arloan dauzkaten protokoloetan ezarritako jarduketak-jarraibideak ere bete behar dira.

#### IV. KAPITULUA

##### Hezkuntza-eremua

30. artikulua. *Printzipioak.*

Hezkuntza-sistemak hezkuntza-komunitateko kide guztien elkarrekiko errespetua izan behar du oinarri, eta hezkuntza irisgarri, berdintasunezko, inklusibo eta kalitatezkoa sustatu behar du. Hezkuntza horrek haurren eta nerabeen erabateko garapena ahalbidetu behar du, eta indarkeriarik gabeko eskola seguru batean parte hartzeko aukera eman behar die, non haien oinarrizko eskubide eta askatasun publiko guztien errespetua, berdintasuna eta sustapena bermatuko diren, gatazkak komunikatzeko, negoziatzeko eta konpontzeko metodo baketsuak erabiliz.

Haurrek eta nerabeek, hezkuntza-etapa guztietan, eta zentroaren titulartasuna edozein dela ere, honako hauek bilduko dituen hezkuntza jasoko dute transbertsalki: haien parte-hartzea; gainerakoekiko, haien duintasunarekiko eta eskubideekiko errespetua, batez ere desgaitasun-egoeratik edo neurogarapenaren nahasmenduren batengatik kalteberatasun berezia duten adingabeen kasuan; genero-berdintasuna; familia-aniztasuna; bizimodu osasungarriak aukeratzeko trebetasunak eskuratzea, elikadura- eta nutrizio-hezkuntza barne; eta hezkuntza afektibo sexuala, haien heldutasun-mailara eta, hala badagokio, desgaitasunera egokitua, indarkeria eta diskriminazio mota oro prebenitzera eta saihestera bideratua, horiek errekonozitzen eta horien aurrean erreakzionatzen laguntzeko.

31. artikulua. *Hezkuntza-antolaketa.*

1. Ikastetxe guztiek bizikidetza-plan bat egingo dute, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 124. artikuluari jarraikiz. Plan horretako jardueren artean, hau egongo da: ikastetxeko langileek, ikasleek eta hezkuntza-komunitateak tratatu ona sustatzeko eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea, sentsibilizatzea eta hezteak.

2. Plan horretan, orobat, tutore-lanak egiten dituzten irakasleen, irakasle taldeen eta ikasleen artean adostutako jokabide-kodeak jasoko dira, eskola-jazarpeneko egoeretan edo ikastetxeko bizikidetzan eragina duen beste edozein egoeratan jarraitu beharrekoak,

kontuan hartu gabe egoera horiek ikastetxean bertan gertatzen diren edota informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez gertatzen diren edo jarraitzen duten.

Irakasleen Klaustroak eta Eskola Kontseiluak eskumena dute adingabeek edozein indarkeria motaren aurrean dituzten eskubideen aitortza eta babesa sustatzeko hezkuntza-neurriak hartu eta horien jarraipena egiteko zereginak bultzatzeko.

3. Hezkuntza-administrazioek kapitulu honetako printzipioak betetzen eta aplikatzen direla zainduko dute. Era berean, beharrezkoak diren jarraibide eta neurriak ezarriko dituzte zentroak ingurune seguruak izan daitezen, eta gainbegiratuko dute zentro guztiek, beren titulartasuna edozein dela ere, indarkeria-kasuetan nahitaez jarduteko protokoloak aplikatzen dituztela.

#### 32. artikulua. *Ikastetxeetako kontratazioa gainbegiratzea.*

Hezkuntza-administrazioek eta ikastetxe guztietako zuzendari eta titularrek segurtasuna gainbegiratuko dute langileak kontratatzean, eta derrigorrezko ziurtagiriak ekartzen dituztela kontrolatuko dute, hala nola V. tituluko II. kapituluan jasotakoak, honako hauei dagokienez: irakasleak, langile laguntzaileak, zerbitzu-kontratudunak eta ikastetxean ordaina jasota edo jaso gabe lan egin ohi duten edo lagundu ohi duten beste profesional batzuk.

#### 33. artikulua. *Eskubideen, segurtasunaren eta erantzukizun digitalaren arloko prestakuntza.*

Administrazio publikoek bermatuko dute ikasleak erabat txertatzen direla gizarte digitalean, eta baliabide digitalak modu seguruan erabiltzen ikasten dutela, giza duintasuna, konstituzio-balioak, oinarritzko eskubideak eta, bereziki, norberaren eta familiaren intimitatea errespetatuz, eta datu pertsonalak babestuz, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 83. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Zehazki, administrazio publikoek Interneten erabilera egokia sustatuko dute prestakuntza-etapa guztietan.

#### 34. artikulua. *Jarduketa-protokoloak.*

1. Hezkuntza-administrazioek jarduketa-protokoloak arautuko dituzte, honako hauen aurka egiteko: abusua eta tratu txarrak, eskola-jazarpena, ziberjazarpena, sexu-jazarpena, genero-indarkeria, etxeko indarkeria, suizidioa eta autolesioa, bai eta lege honen aplikazio-eremuan jasotako beste edozein indarkeria-adierazpen ere. Protokolo horiek idazteko lanetan, hurrek eta nerabeek, beste administrazio publiko batzuek eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, goiz detektatzeko, babesteko eta erreparatzeko lanetan diharduten sektoreetako erakunde eta profesionalek parte hartuko dute.

Protokolo horiek ikastetxe guztietan aplikatu beharko dira, edozein dela ere haien titulartasuna, eta aldian-aldian ebaluatu egin beharko dira, eraginkorrek diren baloratzeko. Ikastetxeetako irakasleek edo hezitzaileek, ikasleen gurasoek edo hezkuntza-komunitateko edozein kidek indarkeria-zantzuak detektatzean jarri beharko dira abian, edota hurrek edo nerabeek egintzak komunikatze soilarekin.

2. Protokoloek, beste alderdi batzuen artean, landu beharreko jarduketak, komunikazio-sistemak eta jarduketa bakoitzaren ardura duten profesionalen koordinazioa zehaztuko dituzte. Koordinazio hori osasun-arloarekin, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin eta arlo judizialarekin ere ezarri beharko da.

Era berean, jarduketa espezifikoak jaso beharko dituzte jazarpenaren arrazoiak hauekiko bat denean: desgaitasuna, neurogarapeneko arazo larriak, osasun mentaleko arazoak, adina, aurreiritzi arrazistak edo jatorria, sexu-orientazioa, edo genero-identitatea edo -adierazpena. Protokolo horiek, bestalde, jarduketa espezifikoak jaso beharko dituzte jazarpena teknologia berrien edo gailu mugikorren bidez egiten den kasuetarako,

adingabeen intimitateari, ospeari edo datu pertsonalen babeserako eskubideari kalte egin zaionean.

3. Ikastetxeetako zuzendarien edo titularren ardura da hezkuntza-komunitateak dauden jarduketa-protokoloen berri izatea eta protokolo horietan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko lanaren eta jarraipenaren berri izatea.

4. Landutako protokoloei zabalpena emango zaie eta esku hartzen duten profesionalak prestakuntza espezializatua jasoko dute, era horretako egoerak detektatzeko prestakuntza egokia izan dezaten.

35. artikulua. *Ongizate- eta babes-koordinatzailea.*

1. Adingabeak ikasketak egiten ari diren ikastetxe guztiek, haien titulartasuna edozein dela ere, ikasleen ongizate- eta babes-koordinatzaile bat izan beharko dute. Koordinatzaile horrek zentroko zuzendaritza edo titulartasuna duen pertsonaren gainbegiradapean jardungo du.

2. Eskumena duten hezkuntza-administrazioek zehaztuko dituzte ongizate- eta babes-koordinatzailearen betekizun eta funtzioak. Funtzio horiek ikastetxean lehendik dauden langileek edota langile berriek bete behar dituzten ere zehaztuko dute.

Ongizate- eta babes-koordinatzaileak funtzio hauek izango ditu, gutxienez:

a) Haurren eta nerabeen inguruko prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta babesari buruzko prestakuntza-planak sustatzea, bai ikastetxeetan lan egiten duten langileentzat, bai ikasleentzat. Tutore-lanetan diharduten ikastetxeko langileentzako prestakuntza-planei emango zaie lehentasuna, baita indarkeria-egoerak detektatzeko eta horien aurrean erantzuteko trebetasunak eskuratzeko xedez ikasleei zuzendutako ere.

Era berean, ikasleen Gurasoen Elkarteekin koordinatuta, gurasoen eta tutoretza-, zaintza- edo harrera-funtzioak betetzen dituztenen artean sustatu beharko du prestakuntza hori.

b) Eskumena duten gizarte-zerbitzuek esku hartu behar duten kasuak koordinatzea, hezkuntza-administrazioek onetsitako protokoloekin bat etorriz, eta, beharrezkoa dela iritziz gero, kasuan kasuko agintariei informazioa ematea, legez aurreikusitako kasuetan komunikatzeko eginbeharra baztertu gabe.

c) Ikasleen, ikastetxeko langileen eta, oro har, hezkuntza-komunitatearen aurrean erreferente nagusi gisa identifikatzea, ikastetxean bertan edo ikastetxearen inguruan ustez gertatutako indarkeria-kasuekin zerikusia duten komunikazioetarako.

d) Haurrentzat eta nerabeentzat albait ongizaterik handiena ziurtatzeko neurriak sustatzea, baita haiekiko tratu onaren kultura ere.

e) Ikastetxeko langileak eta ikasleak gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo alternatiboak erabiltzera bultzatzea.

f) Udalerrian edo autonomia-erkidegoan edozein indarkeria mota prebenitzeko eta detektatzeko dauden protokoloak ikastetxeko langileei ezagutaraztea.

g) Desgaitasuna edo kalteberatasun edo dibertsitate bereziko beste edozein inguruabar duten ikasleenganako errespetua sustatzea.

h) 31. artikuluan aipatzen den bizikidetzaplana ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatzea.

i) Adingabeen segurtasunerako arriskua dakarten egoeretan, ikastetxeak Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei berehala horien berri ematera bultzatzea.

j) Adingabeen datu pertsonalak era ez-zilegian tratatzea ekar dezaketen egoeretan, ikastetxeak Datuak Babesteko Agentziei berehala horien berri ematera bultzatzea.

k) Ikastetxean elikadura osasungarri eta elikagarria izan dadin sustatzea, haurrei eta nerabeei —bereziki, kalteberenei— dieta orekatua izatea ahalbidetuko diena.

3. Ongizate- eta babes-koordinatzaileak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa errespetatuz jardungo du kasu orotan.

## V. KAPITULUA

**Goi Mailako Hezkuntza**

36. artikulua. *Goi Mailako Hezkuntza haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazten parte hartzea.*

1. Goi Mailako Hezkuntzako ikastetxeek eremu akademiko guztietan sustatuko dituzte, oro har, haurren eta nerabeen eskubideen inguruko prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza, eta, bereziki, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren ingurukoak.

2. Zehazki, osasun-arloko, gizarte-arloko, hezkuntza-arloko, kazetaritzako eta informazio-zientzietako eta zuzenbideko lanbideetako goi-mailako prestakuntza-zikloek, graduok, graduondokoez eta espezializazio-programek, bai eta adingabeekin arruntean harremana izatea eskatzen duten lanbideetan jarduteko bestelako titulazioetako ere, beren ikasketa-planetan haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuak prebenitzeko, goiz detektatzeko eta horietan esku hartzeko eduki espezifikoak sartzeari sustatuko dute, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

37. artikulua. *Unibertsitateen Kontseiluak haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokan jardutea.*

Unibertsitateen Kontseiluaren urteko jarduera eta argitalpenen artean, oro har haurren eta nerabeen eskubideak eta bereziki haien aurkako indarkeria esparru akademikoan aztertzea eta ikertzea sustatuko da; batez ere, adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten lanbideak betetzera bideratutako ikasketetan.

## VI. KAPITULUA

**Osasun-eremua**

38. artikulua. *Osasun-eremuko jarduketak.*

1. Osasun-administrazioek, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluan, haurrei eta nerabeei tratua emateko jarduketak sustatu eta bultzatuko dituzte, bai eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeria eta arrisku-faktoreak prebenitzeko eta goiz detektatzeko jarduketak ere, 39.2 artikuluan aurreikusitako osasun-jarduketarako protokolo erkidearen esparruan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, osasun-administrazio eskudunek beren eskumenen esparrurako jarduketa-protokolo espezifikoak lantzea sustatuko dute, tratua bultzatzen, arrisku-faktoreak identifikatzen eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzen eta goiz detektatzen lagun dezaten; halaber, biktimei behar bezala laguntzeko eta haiek errekuaratzeko hartu beharreko neurriak ere jasoko dituzte. Indarkeriaren biktimak desgaitasuna, neurogarapeneko arazo larriak, osasun mentaleko arazoak edo kalteberatasun bereziko beste edozein egoera duenean, protokolo horiek kontuan hartu beharko dituzte gauzatu beharreko jarduketan berezitasunak. Era berean, tartean dauden eragile guztien arteko koordinazioa sustatuko da.

3. Osasun-administrazio eskudunek erraztasunak emango dizkiete haurrei eta nerabeei informazioa eskuratzeko eta tratamendu- nahiz errekuarazio-zerbitzuetara jotzeko, eta arreta unibertsal eta irisgarria emango zaiela bermatuko lege honetan aipatzen diren babesgabetasun-, arrisku- eta indarkeria-egoeretan dauden guztiei. Bereziki, osasun mental integral erreparatzaileerako arta emango zaiola bermatuko da, adinari egokituta.



39. artikulua. *Haurren eta Nerabeen Aurkako Indarkeriari buruzko Batzordea.*

1. Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioaren eta Kalitatearen maitzaren 28ko 16/2003 Legearen 74. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak Haurren eta Nerabeen Aurkako Indarkeriari buruzko Batzorde bat sortzea erabakiko du lege hau indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen. Batzorde horretan, Lege Medikuntzako eta Auzitegi Zientzietako Institutuetako adituak izango dira, Justizia Ministerioak izendatutakoak, bai eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren biktimen prebentzioan, balorazioan eta tratamenduan parte hartzen duten osasun-lanbideetako adituak ere.

2. Haurren eta Nerabeen Aurkako Indarkeriari buruzko Batzordeak lagundu eta bideratu egingo du legean jasota dauden eta osasun-eragina duten neurrien plangintza, eta eratzen denetik sei hilabete igaro baino lehen osasun-jarduketarako protokolo erkide bat egingo du. Protokolo horrek legea zuzen aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak ebaluatuko eta proposatuko ditu, bai eta osasun-sektoreak haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazten laguntzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein neurri ere. Protokolo horrek prozedurak ezarriko ditu haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuen susmoak edo ebidentziak dagozkien gizarte-zerbitzuei komunikatzeko, bai eta guardiako epaitegiarekin, Segurtasun Indar eta Kidegoekin, haurrak babesteko erakunde publikoarekin eta Fiskaltzarekin lankidetzan jarduteko modua ere. Protokolo hori idazteko, ahalegina egingo da haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, goiz detektatzeko, babesteko eta erreparatzeko egitekoan diharduten beste administrazio publiko, erakunde eta sektoreetako profesionalak parte hartzeko.

3. Batzorde horrek, bestalde, urteko txosten bat egingo du; bertan, indarkeriaren biktima diren adingabeei emandako osasun-arretari buruz eskuragarri dauden datuak bilduko ditu, sexuaren eta adinaren arabera banakatuta, eta legean jasota dauden eta osasun-eragina duten neurriak ezartzei buruzko informazioa ere bilduko du. Txosten hori Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluari eta Haurren Estatuko Behatokiari igorriko zaie, eta bertako emaitzak haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko estrategiaren urteko ebaluazio-txostenean jasoko dira, zeina 21.2 artikuluan dagoen aurreikusita.

40. artikulua. *Osasun-zentro eta -zerbitzuek ustezko indarkeria-egoeretan egin beharreko jarduketak.*

1. Edozein motatako indarkeria dela-eta adingabeei osasun-laguntza ematen dieten osasun-zentro eta -zerbitzu guztiek 39.2 artikuluan aurreikusten den osasun-jarduketaren protokolo erkidea aplikatu behar dute, ospitaleko alta barne.

2. Indarkeriaren biktima diren adingabeei emandako arretari buruzko erregistroak haien historia klinikoan jasoko dira, eta haien babesa lege honen 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

## VII. KAPITULUA

### Gizarte-zerbitzuen eremua

41. artikulua. *Gizarte-zerbitzuen jarduketak.*

1. Gizarte-zerbitzuetan haurrak eta nerabeak babestearekin lotutako eginkizunak betez lanean aritzen diren funtzionarioek agintaritzaren agente izaera izango dute, eta dagokien eremu geografikoan lankidetzat eskatu ahal izango diete Segurtasun Indar eta Kidegoei, osasun-zerbitzuei eta esku hartzeko behar den edozein zerbitzu publikori.

2. Gerta daitezkeen urgentzia-egoerei modu egokian erantzuteko, eta kasua haurrak babesteko erakunde publikora bideratu ezin den bitartean, autonomia-erkidego bakoitzak zehaztuko du prozedura, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuetan lanean aritzen diren

funtzionarioek koordinazio-neurri egokiak hartu ahal izan ditzaten indarkeriaren biktima diren adingabeei albait babesik onena bermatzeko.

Aurrekoa eta 16. artikuluan aurreikusitako komunikazio kualifikatuaren eginbeharra alde batera utzi gabe, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek, adingabea gainera babesgabezia-egoeran dagoen indarkeria-kasu baten berri dutenean, berehala jakinaraziko diote haurrak babesteko erakunde publikoari.

3. Larritasunaren arabera, gizarte-zerbitzuetako edo Segurtasun Indar eta Kidegoetako profesionalek osasun-zentro batera lagun egin ahal izango diote adingabeari, han behar duen arreta jaso dezan, eta horren berri emango diete haren gurasoei edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenei, indarkeria hori haiek erabili dutela susmatzen denean salbu; kasu horretan, Fiskaltzari jakinaraziko zaio.

42. artikulua. *Esku hartzeko lantaldeak.*

1. Administrazio publiko eskudunek familiaren eremuan eta haur eta nerabeekin esku hartzeko profesional ez diren lantalde hornituko dituzte lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko gizarte-zerbitzuak. Profesional eta lantalde horiek bereziki entrenatuta egongo dira adingabeen aurkako indarkeria goiz detektatzeko, baloratzeko eta esku hartzeko.

2. Adingabeen aurkako indarkeriaren eremuan lan egiten duten gizarte-zerbitzuetako esku-hartze lantaldeak, ahal dela, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuetan espezializatuta dauden gizarte-hezkuntzako, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalek osatu beharko dituzte, eta, beharrezkoa denean, baita abokatuek ere.

43. artikulua. *Esku hartzeko plana.*

1. Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-arriskua edo -susmoa dagoen kasu guztietan, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek, haurrak babesteko erakunde publikoarekin koordinatuta, bideak ezarriko dituzte familiari babeseko guraso-eginkizunak modu positiboan betetzen laguntzeko. Beharrezkoa izanez gero, familian esku hartzeko plan indibidualizatu bat diseinatuko eta ezarriko dute gizarte-zerbitzuek, tartean dauden gainerako arloekin koordinatuta eta haien parte-hartzearekin.

2. Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek, ahal den guztietan, diziplinen artean egin behar dute haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuen gaineko balorazioa, haurrak babesteko erakunde publikoarekin eta lurraldean dauden osasun-, hezkuntza-, epailletza- edo segurtasun-eremuetako lantalde eta profesionalekin koordinatuta, baldin eta adingabearen egoerari eta haren ingurune familiar eta sozialari buruzko informazioa eman badezakete.

Indarkeriazko egintzaren tipologiagatik larritasun berezia duten egoeretan, bereziki sexu-izaerako delituen kasuan, profesional espezializatu batek esku hartu beharko du, kasua komunikatzen edo detektatzen denetik.

3. Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen egitekoa izango da ustezko indarkeria-kasuei buruzko informazioa biltzea eta, dagokien profesionalen parte-hartzearekin, kasuaren diziplinarteko analisia zehaztea, beharrezkoa den guztietan haurrak babesteko erakunde publikoaren laguntza edo esku-hartzea jasoz, bai eta, hala dagokionean, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko dagokion autonomia-erkidegoko zerbitzuena ere. Haurren aurkako tratatu txarren arrisku-kasuetan edo ustezko kasuetan esku hartzeko planaren esparruan lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek egindako jarduketak adingabeak babesteko gizarte-zerbitzu espezializatuei jakinaraziko zaizkie.

4. Botere publikoek, zerbitzu espezializatuen bidez, errekuaratzeko arreta integrala jasotzea bermatuko diete indarkeriazko delituen biktima diren haur eta nerabeei eta, betiere, sexu-izaerako delituen, salerosketa-delituen edo genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei.

44. artikulua. *Adingabeen aurkako indarkeria-kasuen jarraipena eta erregistroa.*

1. Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuen jarraipen- eta erregistro-sistema bat ezarri beharko dute, autonomia-erkidego bakoitzean arautzen den prozeduraren arabera. Sistema horretan, jasotako jakinarazpen eta komunikazioak, berretsitako kasuak eta gizarte-zerbitzu horien esku-hartzea dela-eta abian jarritako neurriak jasoko dira.

2. Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuei buruz emaniko informazio estatistikoa, haurrak babesteko erakunde publikoak emanikoarekin batera, Haurren Aurkako Tratu Txarren Erregistro Bateratuan sartuko da, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 22 ter artikuluan aipatzen den horretan, erabaki den bezala bereizita. Erregistro hori Haurren Aurkako Indarkeriari buruzko Gizarte Zerbitzuen Erregistro Bateratua deituko da hemendik aurrera.

## VIII. KAPITULUA

### Teknologia berriak

45. artikulua. *Internet modu seguru eta arduratsuan erabiltzea.*

1. Administrazio publikoek hezkuntza-, sentsibilizazio- eta hedapen-kanpainak egingo dituzte haur eta nerabeentzat, familientzat, hezitzaileentzat eta adingabeekin lan egin ohi duten beste profesional batzuentzat, Internet eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu seguru eta arduratsuan erabiltzeari buruz, bai eta horiek modu desegokian erabiltzeak sor ditzakeen arrisku hauei buruz ere: haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriako fenomenoak izatea (hala nola ziberjazarpena, *groominga*, genero-ziberindarkeria eta *sextinga*) eta adingabeek pornografia eskuratzea eta kontsumitzea.

Era berean, familiei laguntzeko neurriak sustatuko dituzte, gurasoen rola indartzen eta babesten dutenak beren legezko betebeharrak —bereziki, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 84.1 artikuluan ezarritakoak— betetzea errazten duten gaitasunak eta trebetasunak garatuz.

2. Administrazio publikoek Internet modu seguru eta arduratsuan erabiltzeari buruzko laguntza-lerroko zerbitzu espezifikoko bat jarriko dute haur eta nerabeen, familien, hezitzaileen eta adingabeekin lan egin ohi duten beste profesional batzuen eskura. Zerbitzu horrek laguntza eta aholkularitza eskainiko die erabiltzaileei, adingabeentzat Interneten arrisku- eta larrialdi-egoerak izan daitezkeen horietarako.

3. Administrazio publikoek neurriak hartu beharko dituzte hurrek eta nerabeek Internet modu seguru eta arduratsuan erabiltzeari dagokionez enpresek duten gizarte-erantzukizuna sustatzeko.

Era berean, sektore pribatuarekin lankidetzan arituz, aplikazio eta zerbitzu digitalen hasierak eta garapenak haurren eta nerabeen babesa kontuan hartzea sustatuko dute.

4. Prebentziorako eta informaziorako kanpaina instituzionalen helburuetako bat hau izango da: haurrengan eta nerabeengan eragina izan dezaketen eta haientzat kaltegarriak izan daitezkeen sexu- edo indarkeria-eduki digitalak prebenitzea.

46. artikulua. *Diagnostikoa eta edukiak kontrolatzea.*

1. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, hurrek eta nerabeek Internet modu seguruan erabiltzeari buruzko diagnostikoak egin beharko dituzte aldian-aldian, bai eta lotutako arrisku-problematikei eta joera berriei buruz ere, adin- eta genero-irizpideak kontuan hartuta.

2. Administrazio publikoek sektore pribatuarekiko lankidetzaren sustatuko dute, ingurune digital seguruak sortzeko, adinaren arabera saikapenaren erabileran estandarizazio handiagoa lortzeko eta eduki digitalak era burutsuan etiketatzeko; zehazki, hurrek eta

nerabeek horren berri izateko eta gurasoei edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenei eduki, zerbitzu eta gailu motak ebaluatu eta hautatzean laguntzeko.

Administrazio publikoek, gainera, guraso-kontrolerako mekanismoak ezartzea eta erabiltzea sustatuko dute, adingabeak eduki eta kontaktu kaltegarrien eraginpean egoteko arriskutik babesten laguntzeko; horrez gain, salaketa- eta blokeo-mekanismoak ezartzea eta erabiltzea ere sustatuko dute.

3. Administrazio publikoek, sektore pribatuarekin eta hirugarren sektorearekin lankidetzan arituz, online eduki positiboak sustatuko ditu, eta adin-talde bakoitzaren beharretara egokitutako edukiak garatzea, haurrentzako eta nerabeentzako produktuak eta zerbitzuak modu seguru eta arduratsuan erabiltzeko autoerregulazio- eta koerregulazio-kodeak bultzatuz industrian produktu eta zerbitzu horiek garatzean; orobat, industriak eskaintzen diren edukietan guraso-kontrolerako mekanismoak txertatzea sustatuko eta indartuko dute, edo Interneten eskuragarri dauden aplikazio eta zerbitzuetan adina egiaztatuko protokoloak abian jartzea, helduentzat gordeta daudenetan sartzen ez uzteko.

4. Teknologia berrien tresnen ontzietan ohar bat jasotzea derrigorrezkoa izateko ahalegina egingo dute administrazio publikoek. Ohar horrek adieraziko luke modu arduratsuan erabili behar direla teknologia horiek, mendekotasun-jokabide espezifikoak prebenitzeko. Era berean, teknologia horiek behar bezala erabiltzen direla begiratzeko eta zaintzeko gomendatuko litzaieke haurren eta nerabeen hezkuntzaren gaineko ardura duten helduei.

## IX. KAPITULUA

### Kirolaren eta aisiaren eremua

47. artikulua. *Kirolaren eta aisiaren eremuko indarkeriari aurre egiteko jarduketa-protokoloak.*

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, kirolaren eta aisiaren eremuan ingurune seguru bat eratzeko jarduketak jasoko dituzten jarduketa-protokoloak arautuko dituzte, kirolaren eta aisiaren eremuan haurren eta nerabeen aurka izan daitezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta esku hartzeko jarraitu beharko direnak.

Protokolo horiek kirol- eta aisia-jarduerak egiten dituzten zentro guztietan aplikatu beharko dira, edozein dela ere haien titulartasuna, eta, betiere, kirol-errendimendu eta -teknifikazio handiko zentroyen sarean, kirol-federazioetan eta udal-eskoletan.

48. artikulua. *Adingabeekin kirol- edo aisia-jarduerak egin ohi dituzten entitateak.*

1. Adingabeekin kirol- edo aisia-jarduerak egin ohi dituzten entitateek betebeharrak hauek dituzte:

a) Administrazio publikoek kirolaren eta aisiaren eremuan ezarritako jarduketa-protokoloak aplikatzea, aurreko artikuluan aipatutakoak.

b) Monitorizazio-sistema bat ezartzea, adingabeak babesteari dagokionez protokolo horiek betetzen direla ziurtatzeko.

c) Babes-ordezkararen figura izendatzea, adingabeek harengana jo ahal izan dezaten beren kezkak adierazteko. Ezarritako protokoloak zabaltzeaz eta betetzeaz arduratuko da ordezkarari hori, bai eta behar diren komunikazioak hasteaz ere haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatu den kasuetan.

d) Behar diren neurriak hartzea kirolean, jarduera fisikoan, kulturen eta aisian ez dadin diskriminaziorik gerta adina, arraza, desgaitasuna, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-adierazpena edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela eta; orobat, haurrekin eta nerabeekin nahiz haien familiarekin eta profesionalekin lan egingo dute irainak eta adierazpen apalesgarri eta diskriminatzaileak erabiltzea errefusatzeko.

e) Haurren eta nerabeen parte-hartze aktiboa sustatzea haien prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.

f) Kirol-antolakundeen eta gurasoen edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenen arteko harremanak eta komunikazioa sustatu eta indartzea.

2. Orobat, aipatutako entitateetan lan egiten duten pertsonek, 5. artikuluan aipatutako prestakuntzaz gain, prestakuntza espezifikoa jaso beharko dute desgaitasuna duten haur eta nerabeen gaitasunei eta ahalmenei behar bezala erantzuteko, haien kirol inklusiboa sustatu eta garatzeari begira.

## X. KAPITULUA

### Segurtasun Indar eta Kidegoak

49. artikulua. *Unitate espezializatuak.*

1. Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako Segurtasun Indar eta Kidegoek haur eta nerabeentzako ingurune seguru gisa jardungo dute. Helburu hori betetzeko, unitate espezializatuak izango dituzte haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak ikertu, prebenitu, detektatu eta horien aurrean jarduteko, eta prestatuta egongo dira horrelako kasuetan behar bezala jarduteko.

Administrazio eskudunek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte bermatzeko Segurtasun Indar eta Kidegoetako langileek haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoeren tratamenduari buruzko eduki espezifikoak jasotzen dituztela han sartzeko, prestatzeko eta eguneratzeko prozesuetan, poliziaren ikuspegitik.

2. Lurralde berean jarduten duten Segurtasun Indar eta Kidegoek lankidetzan jardungo dute, beren eskumenen esparruan, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren arloan eraginkortasunez bete ditzaten beren eginkizunak, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoan aurreikusitako moduan.

3. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, sustatu egingo dute Segurtasun Indar eta Kidegoen lana, delituen ikerketa errazteko tresna teknologiko elkarreragileak garatuz.

50. artikulua. *Jarduketa-irizpideak.*

1. Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuetan, haurren eta nerabeen eskubideak errespetatuz eta haien interes gorenara aintzat hartuz jardungo dute.

2. Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek poliziaren jarduketa-protokoloen arabera jardungo dute adingabeekin, bai eta aplika daitekeen beste edozein protokoloen arabera ere. Ildo horretatik, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko Segurtasun Indar eta Kidegoek beharrezkoak diren protokoloak izango dituzte haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko, sensibilizatzeko, goiz detektatzeko, ikertzeko eta esku hartzeko, kasu horietan behar bezala esku hartzeko.

Betiere, irizpide hauen arabera jardungo dute:

a) Adingabearen egoerarako egokiak diren behin-behineko babes-neurri guztiak berehala hartuko dira.

b) Ezinbestekoak diren eginbideak baino ez dira egingo adingabearen esku-hartzearekin. Arau orokor gisa, adingabeak behin bakarrik egingo du deklarazioa, eta, betiere, espezifikoki prestatutako profesionalen bitartez.

c) Adingabeak esku hartzea eskatzen duten ezinbesteko eginbide guztiak luzamenik gabe egingo dira, adingabea esku-hartze horiek egiteko prest dagoela egiaztatu ondoren.

d) Polizia-bulegoetan saihestu egingo da ikertuak eta haur edo nerabeak zuzeneko edo zeharkako inolako kontakturik izatea.

e) Hala eskatzen duten adingabeei aukera emango zaie salaketa beren kabuz aurkezteko, heldu batekin egon beharrik gabe.

f) Haurrari edo nerabeari lehenbailehen komunikatuko zaio doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea duela, eta, hala nahi badu, ofiziozko txanda espezifikoko abokatua berehala izendatzeko eskatuko zaio eskumena duen abokatuen elkargoari, delako abokatua polizia-bulegoetan azaldu dadin.

g) Haurrari edo nerabeari tratu ona emango zaio, eta hizkera eta formak haren adinera, heldutasun-mailara eta gainerako inguruabar pertsonaletara egokituko dira.

h) Ahalegina egingo da haurra edo nerabea bere konfiantzazko pertsona batekin egon dadin une oro —berak izendatu beharko luke, askatasunez, ingurune seguru batean—, salbu eta ikusten bada pertsona horrek haur edo nerabearen interes gorenaren aurka jarduteko arriskua dagoela; kasu horretan, deklarazio ofizial batean jaso beharko da hori.

## XI. KAPITULUA

### Estatuko Administrazio Orokorra atzerrian

51. artikulua. *Enbaxadak eta kontsulatuak.*

1. Espainiak atzerrian dituen enbaxada eta kontsulatu-bulegoei dagokie, Vienako Kontsul Harremani buruzko Hitzarmenaren 5 h) artikuluan eta arlo horretako gainerako nazioarteko araudian ezarritakoaren arabera, atzerrian dauden espainiar nazionalitateko adingabeen interesak babestea. Horko printzipio orokorre jarraitu behar zaie babes hori emateko orduan.

2. Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak, Kontsul Gaietarako eta Atzerrian dauden Espainiarren Gaietarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioko Haurren eta Nerabeen Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin edo zehazten den unitatearekin koordinatuko ditu adingabe espainiarrek atzerrian egiten dituzten jarduketak; bereziki, adingabe horiek Espainiara itzultzea aurreikusten den kasuetan.

## XII. KAPITULUA

### Datuak Babesteko Espainiako Agentzia

52. artikulua. *Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.*

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 47. artikuluan aurreikusten denaren arabera beteko ditu dagozkion eginkizunak eta baliatuko ditu dagozkion ahalak, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuetan adingabeen datu pertsonalak modu espezifikoko batean babesten direla bermatzeko; bereziki, indarkeria hori informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez gauzatzen denean.

2. Agentziak bermatuko du kanal irisgarri eta seguru bat erabilgarri dagoela Interneten datu pertsonalak babesteko eskubideari kalte larria egiten dioten eduki ez-zilegiak daudela salatzen.

3. Hala eskatzen duten adingabeei aukera emango zaie salaketa beren kabuz aurkezteko, heldu batekin egon beharrik gabe; betiere ardura duen funtzionario publikoaren iritzian heldutasun nahikoa badute.

4. Hamalau urtetik gorako pertsonari zehapena ezarri ahal izango zaie datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera arau-hauste administratibo diren egitateengatik.

5. Egitateen egilea 18 urtetik beherakoa denean, berarekin batera solidarioki erantzungo diote ezarritako isunari haren gurasoek, tutoreek, harreragileek eta legezko edo izatezko zaintzaileek, hurrenkera horretan, adingabeei egozten zaien arau-hauste administratiboa prebenitzeko zaintza- eta jagoletza-eginbearra ez betetzeagatik.



## IV. TITULUA

**Babes-zentroetako jarduketak**

53. artikulua. *Adingabeak babesteko zentroetako jarduketa-protokoloak.*

1. Adingabeak babesteko zentro guztiak ingurune seguruak izango dira, eta, haien titulartasuna edozein dela ere, haurrak babesteko erakunde publikoak ezarritako jarduketa-protokoloak aplikatu beharko dituzte. Protokolo horiek esango dute zer egin behar den lege honen aplikazio-eremuan biltzen diren eta gerta daitezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, goiz detektatzeko eta horietan esku hartzeko. Administrazio horiek estandarrak eta adierazleak onetsi beharko dituzte, protokolo horiek beren aplikazio-eremuan duten eraginkortasuna ebaluatzeko.

Protokoloek, besteak beste:

a) Prozedura abiarazteko modua, komunikazio-sistemak eta jarduketa bakoitzaren arduradun diren profesionalen koordinazioa zehaztuko dituzte.

b) Kexak eta salaketak aurkezteko mekanismo erraz, eskuragarri, seguru eta konfidentzialak ezarriko dituzte informazioa emateko, haurrak eta nerabeak errepresaliak jasateko arriskurik gabe tratatuak izan daitezzen. Kexei emandako erantzunen aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da. Edozein kasutan, adingabeek eskubidea izango dute kexak Fiskaltzari, agintari judizial eskudunari eta Herriaren Defendatzaileari edo erakunde autonomiko homologoei konfidentzialki helarazteko.

c) Bermatuko dute babes-zentroak bertako bizikidetzara-arauek eta diziplina-araubidea idatziz emango dizkiola adingabeari bertan sartzen den unean, eta kexa- eta komunikazio-mekanismoei buruzko informazioa ere emango dizkiola; hori guztia, adingabearentzat ulergarria den hizkuntzan eta eskuragarria den formatuan.

d) Jarduketa espezifikokoak jaso beharko dituzte jazarpenaren zergatia desgaitasuna, arrazakeria, jatorria, sexu-orientazioa, identitatea edo genero-adierazpena denerako. Orobat, protokolo horiek jarduketa espezifikokoak jaso beharko dituzte jazarpena adingabeen teknologia berrien edo gailu mugikorren bidez egiten denerako eta intimitatea eta ospea kaltetu direnerako.

e) Kontuan izan beharko dute zer egoeratan komeni den adingabea beste zentro batera lekualdatzea, haren interes gorena eta ongizatea bermatzeko.

2. artikulua honetan aurreikusitakoak ez dio kalterik egingo urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren II. tituluko IV. kapituluan jasotakoari, ez eta Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 778 bis artikuluan adierazitakoari ere, jokabide-arazoak dituzten adingabeak babesteko zentro espezifikoei dagokienez.

54. artikulua. *Babes-neurrien mende dauden adingabeen sexu-esplotazioko kasuetan eta salerosketa-kasuetan esku hartzea.*

Aurreko artikuluan adierazitako protokoloek prebentziorako, detekzio goiztiarrerako eta esku hartzeko jarduketa espezifikokoak jaso beharko dituzte izan daitezkeen abusu-kasuetako, sexu-esplotazioko kasuetako eta gizakien salerosketako kasuetako biktimak babes-neurrien pean dauden eta egoitza-zentroetan haien erantzukizunpean bizi diren adingabeak direnerako. Jarduketa horiek prestatzeko, oso bereziki hartuko dira kontuan hala genero-ikuspegia nola Fiskaltzarekin, Segurtasun Indar eta Kidegoekin eta tartean dauden gainerako gizarte-eragileekin koordinatzeko behar diren neurriak.

55. artikulua. *Fiskaltzak gainbegiratzea.*

1. Fiskaltzak aldiro-aldiro bisitatuko ditu adingabeak babesteko zentroak, horien barne-araudian aurreikusitakoaren arabera, jarduketa-protokoloak betetzen direla gainbegiratzeko, indarkeria-egoerak komunikatzeko mekanismoen jarraipena egiteko, eta hala eskatzen duten haur eta nerabeei entzuteko.

2. Haurrak babesteko erakunde publikoek etengabeko komunikazioa izango dute Fiskaltzarekin eta, hala badagokio, adingabea barneratzea erabaki zuen agintari judizialarekin, adingabea zentro batean dagoen bitartean gertatzen diren eta eragiten dioten inguruabar garrantzitsuei eta barneratzea mantentzeko premiari buruz.

## V. TITULUA

### Administrazio-antolamendua

#### I. KAPITULUA

##### Informazioaren Erregistro Zentrala

56. artikulua. *Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko informazioaren Erregistro Zentrala.*

1. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren egoera modu uniformearen ezaugarria ezagutzeko ahalbidetuko duen informazioa partekatuzko helburuarekin, Gobernuak, errege-dekretu bidez, Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko informazioaren Erregistro Zentrala sortzea erabakiko du. Halaber, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Segurtasun Indar eta Kidegoek, Haurren Aurkako Indarkeriari buruzko Gizarte Zerbitzuen Erregistro Bateratuak eta administrazio publikoek erregistroari eman beharreko informazio zehatza eta eskatzen zaizkien datuak emateko prozedura ere zehaztuko ditu.

Errege-dekretuan zehaztuko da zer informazio jakinarazi behar zaion Erregistroari modu anonimoan. Informazio horrek alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a) Biktimei dagokienez: adina, sexua, indarkeria mota, larritasuna, nazionalitatea eta, hala badagokio, desgaitasuna.
- b) Erasotzaileei dagokienez: adina, sexua eta biktimarekiko harremana.
- c) Informazio poliziala (salaketak, biktimizazioak, eta abar) eta judiziala.
- d) Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko abian jarritako neurriak.

2. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko informazioaren Erregistro Zentrala haur-politiken arloko eskumenak dituen ministerio-sailari atxikita egongo da organikoki.

3. Erregistroak jasotako datuekin, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren egoerari buruzko txosten bat argitaratuko da urtero, eta al bait publizitate handiena emango zaio.

#### II. KAPITULUA

##### Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa

57. artikulua. *Adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten lanbide, ofizio eta jardueretan aritzeko betekizuna.*

1. Nahitaezkoa izango da, adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten edozein lanbide, ofizio eta jardueratan hasteko eta horietan aritzeko, epai irmo bidez kondenatua ez izatea Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako edozein delitugatik, ezta Zigor Kodearen VII bis tituluan tipifikatuta dagoen gizakien salerosketako edozein delitugatik ere. Horrenbestez, lanbide, ofizio edo jarduera horietan aritu nahi duen orok Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuz egiaztatu beharko du inguruabar hori.

2. Lege honen ondoretarako, hauek dira adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten lanbide, ofizio eta jarduerak: beren izaeragatik eta esentziagatik haur eta

nerabeekin tratu errepikatu, zuzen eta erregularra dakarten guztiak, ordainduak izan edo ez, eta noizbehinkakoak ez direnak; baita, edozein kasutan, hartzaile nagusitzat adingabeak dituzten guztiak ere.

3. Debekatuta dago enpresek eta entitateek Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean aurrekariak dituztenei lana ematea adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten edozein lanbide, ofizio eta jardueratan.

58. artikulua. *Langileek edo Gizarte Segurantzaren alta ematea dakarren praktika ez-laborala egiten duten pertsonen aurrekariak izatearen ondorioak.*

1. Adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten lan edo jardueretan hasteko unean Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean aurrekariak dauzkatenak legez ezin izango dira kontratatu.

2. Gerora Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean aurrekaririk sortuz gero, berehala eten beharko dira besteren konturako lan-harremana edo praktika ez-laboralak. Nolanahi ere, ahal den guztietan, lantokiko inguruabarrak eta bertan egindako jarduera kontuan hartuta, enpresak lanpostuz aldatu ahal izango du langilea, baldin eta okupazio berriak adingabeekin arruntean harremana izatea eragozten badu.

Aurrekoarekin bat etorritz, aipatutako erregistroan aurrekariari dagokienez izandako edozein aldaketa komunikatu beharko dio besteren konturako langileak bere enplegatzaileari, nahiz eta aurrekari horiek lan-harremana hasi aurreko gertaerak eragindakoak izan. Komunikazio hori ez egitea ez-betetze astun eta erruduntzat joko da Langileen Estatutuaren 54.2.d) artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Komunikatzeko betebeharrak, bai eta betebeharrak ez betetzearen ondorioak ere, abenduaren 31ko 1543/2011 Errege Dekretuaren babesean formalizatzen diren lanekoak ez diren praktiken onuradunen eta enpresen artean izenpetzen diren akordioetan ere sartu beharko dira (1543/2011 Errege Dekretua, abenduaren 31koa, Enpresetan egiten diren eta lan arlokoak ez diren praktikak arautzen dituen).

59. artikulua. *Jarduerak boluntariora-araubidean egiten dituzten pertsonen betekizuna ez betetzearen ondorioak.*

1. Adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten boluntariora-jardueretan hastean boluntarioak aurrekariak baditu Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean, boluntariora-entitateak alde batera utzi behar du boluntario hori berehala. Hala, jarduera horietan aritu nahi duenak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuz egiaztatu beharko du inguruabar hori.

2. Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean aurrekariak egonez gero, berehala amaituko da boluntarioak adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten jardueretan duen parte hartzea. Hala ere, ahal den guztietan, entitatearen inguruabarrak eta jarduera kontuan hartuta, entitateak aldatu egin ahal izango du boluntariora-jarduera, baldin eta adingabeekin arruntean harremana izatea ez badakar jarduera horrek.

3. Autonomia-erkidagoek lege-mailako arau baten bidez ezarriko dute 57.1 artikuluan xedatutako betebeharrak ez betetzeari dagokion zehapen-araubidea.

60. artikulua. *Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean aurrekariak ezereztea.*

1. Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean ezerezte agertzen diren aurrekariak ez dira kontuan hartuko adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten lanbide, ofizio eta jardueretan hasia eta jardutea mugatzeari dagokionez.

2. Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean aurrekariak ezerezteko eskaera egiten badu interesdunak, eta hiru hilabeteko gehieneko

epean Administrazioak ebazpenik ematen ez badu, eskaera ezetsizat joko da administrazio-isiltasunez, eta kasu horietan ez da aplikatzekoa izango Justizia- eta barne-arloko prozedura-arau jakin batzuk onesten dituen irailaren 16ko 1879/1994 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoa.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Aurrekontu-zuzkidura.*

Estatuak eta autonomia-erkidegoek, beren eskumenen esparruan, legezko betebeharrak behar bezala betetzeko behar dituzten giza baliabideez eta baliabide materialez hornitu beharko dituzte epaitegi eta auzitegiak. Era berean, lege honetan aurreikusitako helburuak eta betebeharrak behar bezala betetzeko behar diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornitu beharko dira lege-medikuntzako institutuak, biktimei laguntzeko bulegoak, peritu- edo laguntza-aholkularitza ematen duten organo teknikoak eta gizarte-zerbitzuak.

Bigarren xedapen gehigarria. *Bizitokirako eta laguntza psikosozialerako irtenbideak.*

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bizitoki-irtenbideei emango diete lehentasuna beren kideetako bat adingabea duten familiak etxegabetzean, eta laguntza psikosozialeko neurriak sustatuko dituzte izan daitekeen eragin emozionala murrizteko. Horrek ez du kentzen beste kalteberatasun-egoera larri batzuk ere kontuan hartzea.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Iritzi publikoko datuak hobetzea.*

Ikerketa Soziologikoen Zentroak inkesta bat egingo du, urtero, haurren eta nerabeen aurka erabilitako indarkeriari buruz eta legean ezarritako neurrien erabilgarritasunari buruz herritar helduek, haurrek eta nerabeek dituzten iritzien inguruan, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari dagokionez gizartearen izandako aldaketa garrantzitsuenak baloratzeko aldi baterako serieak ezarri ahal izateko.

Inkestak desgaitasun- eta genero-ikuspegia izango du, eta bermatuko du desgaitasuna duten haur eta nerabeak ordezkaturik daudela inkestatuen artean.

Analisi horren emaitzak 21.2 artikuluan aurreikusitako txostenean sartu beharko dira, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria erazteko estrategiari buruzko urteko ebaluazio-txostenean.

Laugarren xedapen gehigarria. *Langile-gastuak.*

Lege hau aplikatzearen eta garatzearen ondorio diren jarduketek, administrazio publikoetako langileengan eragina dutenean, aplikatzeak diren langile-gastuei buruzko oinarriko arauak bete beharko dituzte.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Arau-aipamenak.*

Ordenamendu juridikoan Sexu Delitugileen Erregistro Zentralari egindako aipamenak Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralari egiten zaizkiola ulertu behar da.

Era berean, ordenamendu juridikoan Haurren Aurkako Tratu Txarren Erregistro Bateratuari egiten zaizkion aipamenak Haurren Aurkako Indarkeriari buruzko Gizarte Zerbitzuen Erregistro Bateratuari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

Seigarren xedapen gehigarria. *57. artikulutik 60.era araututako aurrekariak modu automatizatuan egiaztatze prozedura.*

1. Gobernuak, urtebeteko epean, aurrekaririk ez dagoela automatikoki egiaztatze beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko ditu, jarduerak berekin Gizarte Segurantzian edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetan alta ematea dakarreneako. Horretarako,

gurutzatu egingo da besteren konturako langileen, norberaren konturako langileen eta lanekoak ez diren praktikak egiten dituztenen datu-baseetan dagoen informazioa eta Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean jasota dagoena.

2. Era berean, boluntariotza-jarduerak egiten dituzten pertsonen dagokienez aurrekaririk ez dagoela egiaztatzeke beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko ditu Gobernuak; horretarako, gurutzatu egingo da borondatezko jarduera gauzatzen duten elkarteek bildutako informazioa eta Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean jasotakoa.

3. Ildo beretik, Gobernuak beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko ditu Gizarte Segurantzaren alta eman beharrik ez dakarten laneko praktikak egiten dituzten pertsonen Sexu Delitugileen eta Giza Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean aurrekaririk ez dutela automatikoki egiaztatzeke.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Jarraipen Batzordea.*

1. Justiziako, Barne-arazoetako eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako ministroen aginduz, eta Haurren eta Nerabeen Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren proposamenari jarraikiz, jarraipen-batzorde bat sortuko da, lege hau onesten denetik urtebete igaro baino lehen. Batzordearen xedea legearen abiatzea, haren ondorio juridiko eta ekonomikoak eta inpaktuaren ebaluazioa aztertzea izango da.

Jarraipen Batzordeak ministerio-departamentu guztiei eskatu ahal izango die lankidetzara, eta, bereziki, Osasun, Kontsumo, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa eta Berdintasun ministerioei, haien eskumenekotzat jotzen dituen gaitan parte har dezaten.

2. Lege hau indarrean jartzen denetik bi urte igaro baino lehen, txosten arrazoitu bat egin beharko du batzordeak. Txosten horretan, aurreko apartatuan aipatutako azterketa jasoko du, bai eta sistema hobetzeko iradokizunak ere.

3. Txosten hori kontuan hartuta, Justiziako, Barne-arazoetako eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako ministroek egokitzen jotzen dituzten aldaketak sustatuko dituzte, hala badagokio.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Asiloa eskatzen duten haurrak lurraldean sartzea.*

Agintari eskudunek lurraldean sartzea eta asilo-prozedura izatea bermatuko diete nazioarteko babesa behar duten haurrei, edozein direla ere haien nazionalitatea eta Espainian sartzeko modua, Asilo Eskubidea eta Babes Subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legean ezarritako baldintzetan.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Arduraldi eskusiboko harreragile espezializatuen Gizarte Segurantza.*

Gobernuak erregelamenduz zehaztuko ditu, lege organiko hau indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen, arduraldi eskusiboko harreragile espezializatu izendatzen diren pertsonak (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak —Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituenak— 20.1 artikuluan aurreikusitakoak) Gizarte Segurantzaren dagokien araubidean sartzeko irismena eta baldintzak, bai eta afiliazio-, alta- eta kotizazio-betekizunak eta -prozedura ere.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabetuta geratzen dira lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

Azken xedapenetako lehena. *Prozedura Kriminalaren Legea aldatzea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onetsia.*

Aldatu egiten da Prozedura Kriminalaren Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onetsia; honela:

Bat. Aldatu egiten da 109 bis artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«109 bis artikulua.

1. Delituaren biktimek, beren eskubideari uko egin ez badiote, delitua kalifikatzeko izapidea baino lehenagoko edozein unetan egikaritu ahal izango dute akzio penala; horregatik, hala ere, ez dira atzera eramango edo errepikatuko haiek pertsonatu baino lehen jada egindako jarduketak. Akusazio-idazkia egiteko epemuga igaro ondoren pertsonatzen badira, ahozko judizioa hasi arte egikaritu ahal izango dute akzio penala, Fiskaltzak edo pertsonatutako gainerako akusazioek egindako akusazio-idazkiari atxikiz».

Bi. Aldatu egiten da 110. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«110. artikulua.

Delitu baten kaltetunek, beren eskubideari uko egin ez badiote, aukera izango dute auzian alderdi gisa agertzeko, betiere delitua kalifikatzeko izapidea baino lehen, eta behar diren akzio zibilak egikaritzeko, komeni zaienaren arabera. Horrek ez ditu atzeratuko jarduketak. Akusazio-idazkia egiteko epemuga igaro ondoren pertsonatzen badira, ahozko judizioa hasi arte egikaritu ahal izango dute akzio penala, Fiskaltzak edo pertsonatutako gainerako akusazioek egindako akusazio-idazkiari atxikiz.

Kaltetunak auzira alderdi gisa agertzen ez badira ere, horrek ez du esan nahi uko egiten diotenik epai irmoan euren mesederako erabakitzen den itzulketa, erreparazio edo kalte-ordaina jasotzeko eskubideari. Eskubide horri uko egitekotan, modu argi eta erabatekoan egin beharko zaio uko».

Hiru. Aldatu egiten da 261. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«261. artikulua.

Era berean, ez dute salaketa egiteko betebeharririk izango:

1.a Delitugilearen ezkontideak, legez edo egitez bananduta ez badago, edo ezkontzaren antzeko harreman afektiboa tarteko berarekin bizi den pertsonak.

2.a Delitugilearen aurreko eta ondorengo ahaideek, eta bigarren gradurainoko albokoek, gradu hori barnean hartuta.

Xedapen hau ez da aplikatuko delitu hauen kasuan: bizitzaren aurkako delitua, giza hilketaren delitua, Zigor Kodearen 149. eta 150. artikuluetako lesio-delitua, Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aurreikusitako ohiko tratatu txarren delitua, askatasunaren aurkako delitua, sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delitua, eta gizakien salerosketaren delitua. Era berean, ez da aplikatuko delituaren biktima adingabea edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona denean».



Lau. Aldatu egiten da 416. artikulua lehenengo apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Deklaratzeko betebeharririk libre daude:

1. Auzipetuari dagokionez, aurrekoenganako eta ondorengoenganako zuzeneko lerroan dauden ahaideak, haren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko izateko harremanaren bidez lotutako pertsona, odol bidezko nahiz sabeleko anai-arrebak eta bigarren gradu zibilerainoko albokoak. Instrukzio-epaileak aurreko paragrafoan sartzen den lekukoari ohartaraziko dio auzipetuaren aurka deklaratzeko betebeharririk ez duela; hala ere, lekukoak egokitzen dauzkan adierazpenak egin ditzake, eta Justizia Administrazioaren letraduak ohartarazpenari ematen zaion erantzuna jasoko du.

Aurreko apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

1.a Lekukoak biktima adingabearen edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsonaren legezko ordezkaria edo egiteko zaintza esleituta daukanean.

2.a Delitu astuna denean, lekukoa adin nagusikoa denean eta biktima adingabea edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona denean.

3.a Lekukoak, bere adinagatik edo desgaitasunagatik, lekupenaren zentzua ulertzerik ez duenean. Ondore horretarako, epaileak aurretiaz entzungo du ukitutako pertsona, eta perituen laguntza eskatu ahal izango du ebazpena emateko.

4.a Lekukoa prozeduran akusazio partikular gisa pertsonatuta dagoenean edo egon denean.

5.a Lekukoak prozeduran deklaratzeari baiezkotzea eman dionean, behar bezala jakinarazi bazaio ere eskubidea duela ez deklaratzeko».

Bost. Kendu egiten da 433. artikulua leugarren paragrafoa.

Sei. Kendu egiten da 448. artikulua hirugarren paragrafoa.

Zazpi. 449 bis artikulua erantsen da; honela dio:

«449 bis artikulua.

Agintari judizialak, legez aurreikusitako kasuetan, lekukoaren deklarazioa aurrez eraturako frogaren gisa egitea erabakitzen duenean, artikulua honetan ezarritako betekizunen arabera egin beharko da deklarazio hori.

Deklarazioa egitean kontraesan-printzipioa betetzen dela bermatuko du agintari judizialak. Behar bezala zitu den pertsona ikertua ez egotea ez da eragozpen izango aurrez eraturako frogaren egiteko; nolahi ere, haren letradu-defentsak bertan egon beharko du betiere. Ikertutako pertsonaren defendatzailea agertzen ez bada, justifikaziorik gabe, edota berehala jarduteko urgentzia-arrazoiak badaude, horretarako berriaz izendatutako ofiziotako abokatuarekin bideratuko da egintza.

Deklarazioa soinu eta irudia grabatzeko euskarri egoki batean dokumentatzen dela ziurtatuko du agintari judizialak, eta Justizia Administrazioaren letraduak berehala egiaztatu beharko du ikus-entzunezko grabazioaren kalitatea. Justizia Administrazioaren letraduak baimendutako akta labur bat erantsiko zaio ikus-entzunezkoari, eta aurrez eraturako frogaren parte hartu duten pertsona guztien identifikazioa eta sinadura jasoko dira bertan.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren arabera lortutako aurrez eraturako frogaren baloratzeko, 730.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio».

Zortzi. 449 ter artikulua erantsen da; honela dio:

«449 ter artikulua.

Hamalau urtetik beherako pertsonaren batek —edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsonaren batek— prozedura judizial batean lekuko gisa parte

hartu behar duenean, eta prozedura horren xedea delitu bat instruitzea denean (giza hilketa, lesioak, askatasunaren aurkako delitua, osotasun moralaren aurkakoa, gizakien salerosketa, sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delitua, intimitatearen aurkakoa, familia-harremanen aurkakoa, oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen egikaritzari buruzkoak, antolakunde eta talde kriminal eta terroristenak eta terrorismoa), agintari judizialak, kasu orotan, aurrez eraturako froga gisa ahozko judizioan adingabea entzutea erabakiko du, froga gauzatzeko berme guztiakin eta aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Prozesu hori irisgarritasun-berme guztiakin eta beharrezkoak diren laguntza guztiakin egingo da.

Agintari judizialak erabaki dezake 14 urtetik beherakoaren entzunaldia lantalde psikosozialen bidez egitea. Lantalde horiek diziplinar-teko eta erakunde-arteko laguntza emango diote auzitegiari, aurrez esku hartu duten profesionalen lana jasoz eta adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren inguruabar pertsonal, familiar eta sozialak aztertuz, haien tratamendua eta frogaren errendimendua hobetzeko. Kasu horretan, alderdiek egokitzat jotzen dituzten galderak igorriko dizkiote agintari judizialari, eta agintari judizialak, galderak egokiak eta erabilgarriak direla egiaztatu ostean, adituei helaraziko dizkie. Adingabearen entzunaldia egin ondoren, alderdiek argibideak eskatu ahal izango dizkiote lekukoari, baldintza berberetan. Deklarazioa grabatu egingo da beti, eta epaileak, alderdiei entzun ondoren, adingabeari egindako entzunaldiaren garapenari eta emaitzari buruzko txosten bat eskatu ahal izango dio perituari.

Ikertutako pertsona adingabearen entzunaldian presente egonez gero, saihestu egingo da lekukoarekin aurrez aurre egotea, eta, behar izanez gero, edozein bitarteko tekniko erabiliko da horretarako.

Artikulu honetan aurreikusitako neurriak aplikagarriak izaten ahalko dira delitua arina denean».

Bederatzi. Aldatu egiten dira 544 ter artikulua 6. eta 7. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«6. Kautela-neurri penalak legeria prozesal kriminalean aurreikusitakoetako edozein izaten ahalko dira. Neurri horien betekizunak, edukia eta indarraldia lege honetan oro har ezarritakoak izango dira. Instrukzio-epaileak ezarriko ditu neurri horiek, aintzat hartuz biktimak eta, hala dagokionean, haren guraso-ahalaren, tutoretzaren, kuradoretzaren, zaintzaren edo harreraren pean dauden pertsonak berehalako babes integrala jasotzeko duten premia.

7. Seme edo alaba adingabeak edo gaitasuna judizialki aldatuta daukaten pertsonak daudenean, biktimak edo haren legezko ordezkariak edo Fiskaltzak eskatu beharko ditu izaera zibileko neurriak; gainera, horiek betetzeko araubidea eta, hala badagokio, behar diren neurri osagarriak ere zehaztu beharko ditu, baldin eta jurisdikzio-ordena zibileko organoren batek aurretiaz horiek erabaki ez baditu, Kode Zibilaren 158. artikuluan aurreikusitako neurriak alde batera utzi gabe. Adingabeak edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonak daudenean, eta horiek biktimarekin bizi badira eta haren mendekoak badira, epaileak ebatzi beharko du betiere, baita ofizioz ere, aipatutako neurriak hartzea bidezkoa den.

Neurriok honako hauek izaten ahalko dira: guraso-ahala, harrera, tutoretza, kuradoretza edo izatezko zaintza egikaritzeko moduari buruzkoak; familia-etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleitzeari buruzkoak; adingabeekiko edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonetikiko zaintza- eta jagoletza-araubidea zehazteari buruzkoak; haiek bisitatzeko, haiekin komunikatzeko eta haiekin egoteko araubidea eteteari edo mantentzeari buruzkoak; mantenua emateko araubidea ezartzeari buruzkoak, eta haiek arriskuetatik aldentzeko edo kalterik ez izateko egokitzat jotzen den beste edozein xedapen.

Eduki penaleko neurriak dituen babes-agindu bat ematen denean, eta seme-alaba adingabeek artikulu honen 1. apartatuan aipatutako indarkeria ikusi, pairatu

edo bizi izan dutela adierazten duten zantzu oinarriak daudenean, agintari judizialak, ofizios edo alderdiren batek hala eskatuta, eten egingo du erruzatuaren bisita-, egonaldi-, harreman- edo komunikazio-araubidea, haren mendeko adingabeei dagokienez. Nolanahi ere, alderdiak hala eskatuta, araubide hori ez etetea erabaki ahal izango du agintari judizialak, betiere adingabearen interes gorenean oinarritutako ebazpen arrazoitua emanez, eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen egoera ebaluatu ondoren.

Babes-aginduan jasotako izaera zibileko neurriek hogeita hamar eguneko indarraldia izango dute. Epe horren barruan familia-prozesu bat hasten bada jurisdikzio zibilean biktimak edo haren legezko ordezkariak eskatuta, hartutako neurriak demanda aurkeztu eta hurrengo hogeita hamar egunetan egongo dira indarrean. Epe horretan, lehen auzialdiko epaile eskudunak berretsi, aldatu edo ondorerik gabe utzi beharko ditu neurri horiek».

Hamar. 703 bis artikulua eranstean da; honela dio:

«703 bis artikulua.

Baldin eta, 449 bis artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez, instrukzio-fasean lekuko baten deklarazioa egin bada aurrez eraturako frogak gisa, ikustaldian ikus-entzunezko grabazioa erreproduzitu da, alderdi interesdunak hala eskatuta, 730.2 artikuluan arabera, eta ez da beharrezkoa izango lekukoa ikustaldian presente egotea.

449 ter artikuluan aurreikusitako kasuetan, agintari judizialak, salbuespen gisa, lekukoak judizio-ekitaldian esku hartzea erabaki ahal izango du soil-soilik alderdietako batek eskatzen duenean eta ebazpen arrazoituaren bidez beharrezkotzat jotzen duenean, eta ikus-entzunezko grabazioak irisgarritasun-laguntzak dituela ziurtatu beharko du lekukoa desgaitasuna duen pertsona bat denean.

Edozein kasutan, epaiketaz arduratzen ari den agintari judizialak, alderdiren batek hala eskatuta, erabaki dezake lekukoak ikustaldian esku hartzea, aurrez eraturako frogak ez dituenetan betetzen 449 bis artikuluan aurreikusitako betekizun guztiak betetzen ez dituenetan eta alderdietako bati defentsa-gabezia eragiten dionean».

Hamaika. Aldatu egiten da 707. artikuluan bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«703 bis artikuluan aurreikusitako kasuetatik kanpo, judizio-ekitaldian 18 urtetik beherako pertsona batek edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona batek esku hartu behar duenean, erruzatuarekin aurrez aurre egotea saihestuz egingo da haren deklarazioa, prozesuaren garapenak edo eginbidea gauzatzeko eragin diezazkiokeen kalteak saihesteko edo murrizteko beharrezkoa denean. Horretarako, proba hori egitea ahalbidetzen duen edozein baliabide tekniko erabil daiteke, eta aukeretakoa bat da lekukoak aretoan egon gabe haiei entzun ahal izatea komunikazioaren teknologia irisgarriak erabiliz».

Hamabi. Aldatu egiten da 730. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«730. artikulua.

1. Alderdietako edozeinek eskatuta, sumarioan gauzaturako eginbideak ere irakurri edo erreproduzitu ahal izango dira, baldin eta, alderdien borondatearekin zerikusirik ez duten zergatiak direla eta, ezin badira ahozko judizioan erreproduzitu.

2. Alderdietako edozeinek eskatuta, biktimaren edo lekukoaren deklarazioaren ikus-entzunezko grabazioa erreproduzitu ahal izango da, instrukzio-fasean 449 bis artikuluan xedatutakoaren arabera aurrez eraturako frogak gisa eginikoa».

Hamahiru. 777. artikuluari 3. apartatua eransten zaio; honela dio:

«3. Hamalau urtetik beherako pertsona batek edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona batek lekuko gisa parte hartu behar duenean, 449 ter artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, eta agintari judizialak aurrez eraturako frogara egin beharko du, baldin eta prozeduraren xedea artikulua horretan zerrendatutako delituetako baten instrukzioa bada.

Ikus-entzunezko grabazioa epaian frogara gisa baloratzeari begira, interesa duen alderdiak ahozko judizioan eskatu beharko du grabazio hori erreproduzitzeko, 730.2 artikuluan ezarritako moduan».

Hamalau. 788. artikuluari 2. apartatua eransten zaio, eta 2tik 6ra bitarteko apartatuak berriro zenbakitzen dira eta 3tik 7ra bitartekoak izango dira aurrerantz; honela dio:

«2. Lekukoak judizio-ekitaldian ez esku hartzeari dagokionez 703 bis artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, aurrez eraturako frogara 449 bis artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera egin denean».

Azken xedapenetako bigarrena. *Kode Zibila aldatzea, 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onetsia.*

Bat. Aldatu egiten da 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kode Zibilaren 92. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«92. artikulua.

1. Banantzeak, deuseztasunak eta dibortzioak ez dituzte askatzen gurasoak seme-alabei begira dituzten betebeharratik.

2. Epailera, seme-alaba adingabeen jagoletzari, zaintzari eta hezkuntzari buruz edozein neurri hartu behar duenean, arduratuko da seme-alabok esateko dutena entzunarazteko daukaten eskubidea betetzen dela, eta ebazpena emango du, adingabearen interes gorenean oinarrituta, gaiaren inguruan.

3. Epaiaren bidez, guraso-ahala kentzea erabakiko da, prozesuan horretarako arrazoiak azaldu denean.

4. Guraso-ahala oso-osorik nahiz partzialki gurasoetako batek izatea erabaki dezakete gurasoek hitzarmen arauemailean, edo epaileak berak hala erabaki dezake, seme-alaben onerako.

5. Seme-alaben gaineko zaintza eta jagoletza elkarrekin egikaritzea erabakiko da gurasoek hitzarmen arauemailearen proposamenean hori eskatzen dutenean, edo prozeduran zehar bi-biok horretan ados jartzen direnean.

6. Edozein kasutan, zaintza- eta jagoletza-araubidea erabaki baino lehen, epaileak txostena eskatu beharko dio Fiskaltzari, eta entzun egin behar die behar besteko zentzutasuna duten adingabeei, haiei entzutea beharrezkotzat jotzen bada ofizioz, edota fiskalak, alderdiek, lantalde judizial teknikoko kideek edo adingabeak berak eskatuz gero; orobat, baloratu beharko ditu alderdien alegazioak, egindako frogara, bai eta gurasoek euren artean eta seme-alabekin duten harremana ere, horiek guztiak zaintza-araubidearekin bat datozen zehazteko.

7. Baterako zaintzarako aukerarik ez da izango, gurasoetatik edozeinen aurka prozesu penal bat hasita baldin badago guraso horrek beste ezkontidearen edo biokin bizi diren seme-alaben bizitzari, osotasun fisikoari, askatasunari, osotasun moralari edo sexu-askatasun nahiz -ukigabetasunari erasotzeagatik. Ezta epaileak etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren zantzu oinarritunak nabaritzen dituztenean ere alderdien alegazioak eta egindako frogak ikusita.

8. Salbuespenez, nahiz eta artikulua honen bosgarren apartatuko kasuak gertatu ez, epaileak erabaki dezake, alderdietatik batek hala eskatuta, eta Fiskaltzak aldeko txostena eginda, gurasoek zaintza eta jagoletza elkarrekin egikaritzea,

argudiatuz horrela bakarrik babesten dela modu egokian adingabearen interes goren.

9. Epaileak, aurreko apartatuek aipatzen dituzten erabakietatik edozein hartu aurretik, guraso-ahala egikaritzeko modua eta adingabeen jagoletza-araubidea adingabeen interes goren ziurtatzeko egokiak diren jakiteko, irizpena eskatu ahal izango die kualifikazio egokia duten espezialistei, ofizioz edo alderdiak, fiskalak, Lantalde Tekniko Judizialak edota adingabeak berak eskatuta.

10. Epaileak, zaintza- eta jagoletza-araubideari eta egonaldi-, harreman- eta komunikazio-araubideari buruzko erabaki funtsatua hartzean, beharrezkoak, bidezkoak eta egokiak diren kautela-neurriak hartuko ditu ezarritako araubideak eraginkortasunez bete daitezen, eta ahaleginak egingo ditu anai-arrebak ez banantzeko».

Bi. Aldatu egiten da 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kode Zibilaren 154. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«154. artikulua.

Emantzipatu gabe dauden seme-alabak gurasoen guraso-ahalaren pean daude. Guraso-ahala, gurasoen erantzukizuna den aldetik, seme-alaben onerako baliatuko da beti, haien nortasunarekin bat etorri eta haien eskubideak eta osotasun fisikoa eta mentala errespetatuz.

Zeregin horrek eginbehar eta ahalmen hauek biltzen ditu:

1.a Seme-alabak zaintzea, haiekin egotea, haiek elikatzea, hezte eta prestakuntza integrala ematea.

2.a Seme-alabak ordezkatzeta eta haien ondasunak administratzea.

3.a Adingabearen ohiko bizilekua erabakitzea. Bizileku hori bi gurasoen adostasunarekin bakarrik aldatu ahal izango da, edo, halakorik ezean, epailearen baimenarekin.

Seme-alabek behar besteko heldutasuna badute, haiengan eragina duten erabakiak hartu aurretik entzun egin beharko zaie beti, izan auzibideko prozeduran, izan elkarrekin adostean. Nolanahi ere, bermatu egingo da behar bezala entzungo zaiela, haien irizgarria eta ulergarria den moduan, eta haien adina, heldutasuna eta inguruabarrak kontuan hartuta; beharrezkoa bada, espezialisten laguntza eskatuko da.

Gurasoek, beren zeregina betetzean, agintaritzaren laguntza jaso ahal izango dute».

Hiru. Aldatu egiten da 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kode Zibilaren 158. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«158. artikulua.

Epaileak, ofizioz edo semeak nahiz alabak berak, edozein ahaidek edo Fiskaltzak hala eskaturik, hartuko ditu:

1.a Komeni diren neurriak, semeari edo alabari mantenua emango zaiola ziurtatzeko eta haren etorkizuneko premiak betetzeko gurasoek eginbehar hori betetzen ez dutenean.

2.a Xedapen aproposak, zaintza-ahalaren titularra aldatzen denean seme-alabei nahasmendu kaltegarririk ez eragiteko.

3.a Gurasoetatik edozeinek edo hirugarren pertsonak adingabea berekin ez eramateko beharrezkoak diren neurriak, eta, bereziki, hauek:

a) Adingabea lurralde nazionaletik atera dadin debekatzea, epaileak aurretiaz horretarako baimena ematen duenean salbu.

b) Adingabeari pasaporte eman dakion debekatzea, edo, jada eman bazaio, hori kentzea.

c) Adingabearen egoitza lekualdatu ahal izateko, aurretiaz epailearen baimena behar izatea.

4.a Gurasoei, tutoreei, beste senitartekoei edo hirugarren pertsoneri adingabearengana hurbiltzea eta haren egoitzara edo ikastetxera eta sarri egoten den beste leku batzuetara hurbiltzea debekatzeko neurria, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

5.a Adingabearekiko komunikazioa debekatzeko neurria, gurasoei, tutoreei, beste senitartekoei edo hirugarren pertsoneri adingabearekin harreman idatzia, ahozkoa edo bisuala edozein komunikabideren edo baliabide informatikoren edo telematikoren bidez ezartzea debekatuko duena proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

6.a Guraso-ahalaren egikaritzea edo zaintza eta jagoletzaren egikaritzea kautelaz eteteko ebazpena, ebazpen judizialean edo judizialki onetsitako hitzarmenean ezarritako bisita- eta komunikazio-araubidea kautelaz eteteko eta, oro har, egokitzen dituen gainerako xedapenak, adingabea bere familia-ingurune edo hirugarrenen arriskuetatik babesteko eta kalteak saihesteko.

Adingabea desanparo-egoeran egotea litekeena izanez gero, epaitegiak neurrien berri emango dio erakunde publikoari. Neurri horiek guztiak edozein prozesu judizial edo penaletan hartu ahal izango dira, edota borondatezko jurisdikzioko espediente batean; bertan, agintari judizialak adingabearen entzunaldia bermatu beharko du, eta auzitegiak kanpoko pertsonen laguntza jaso ahal izango du, eskubide hori berez baliatu ahal izango dela bermatzeko».

Lau. Aldatu egiten da 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kode Zibilaren 172. artikulua 5. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«5. Erakunde publikoak eten egingo du desanparo-egoera deklaratu duten adingabeen gainean duen tutoretza, baldin eta egiaztatzen badu, txosten egokien bidez, tutoretzaz arduratzea eragin zuten zergatiak desagertu egin direla, 276. eta 277.1 artikuluetan aurreikusitako kasuetako batengatik, eta inguruabar hauetako bat modu sinesgarrian egiaztatzen duenean:

a) Adingabea, bere borondatez, beste herrialde batera lekualdatu dela.

b) Adingabea beste autonomia-erkidego bateko lurraldean dagoela. Kasu horretan, lekualdatu egingo da babes-espediente, eta bertako erakunde publikoak ebazpena emango du desanparo-egoeraren deklarazioaren gainean, eta bere gain hartuko du tutoretza edo dagokion babes-neurria, edota, adingabearen egoera kontuan hartuta, erabakiko du jada ez dagoela babes-neurriak hartu beharrik.

c) Hamabi hilabete igaro direla adingabeak babes-zentroa bere borondatez utzi zuenetik eta ez dagoela jakiterik non dagoen.

Behin-behineko zaintza tutoretza eteteko kausa berengatik etengo da».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorra aldatzea.*

Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorri hirurogeita sei bis artikulua eransten zaio; honela dio:

«Hirurogeita sei bis artikulua.

1. Espetxe-administrazioak programa espezifikoak prestatuko ditu haurren eta nerabeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten delituengatik kondenatu diren barneratuentzat, horiengan haurren eta nerabeen eskubideekiko errespetuzko jarrera garatzeko, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.



2. Tratamendu-batzarrek, gradu-bilakaeretan, baimenak ematean eta baldintzapeko askatasuna ematean, baloratuko dute aurreko apartatuan aipatutako barneratuek programa espezifikoko horiek betetzen dituzten eta eurentzat baliagarriak diren».

Azken xedapenetako laugarrena. *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa; honela geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da 307. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Hautaketa-ikastaroak honako hauek bilduko ditu nahitaez: diziiplina anitzeko prestakuntza-programa teoriko bat; tutoretzapeko praktikaldia, jurisdikzio-ordena guztietako organoetan betetzekoa, eta praktiketako epaileek ordezkapen-eta errefortzu-funtzioak egingo dituzten aldia. Hurrengora igarotzeko, nahitaez gainditu beharko da haietako bakoitza.

Diziiplina anitzeko prestakuntza-fase teorikoan, sakonki aztertuko dira diskriminaziorik ezaren printzipioa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna jorratzen dituzten arloak; bereziki, emakumeen aurkako mota guztietako indarkeriari aurre egiteko dagoen legedi berezia. Horrez gain, haurren eta nerabeen eskubideei buruzko nazioarteko eta nazioarteko legedia sakon aztertuko da, arreta berezia eskainiz Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioari eta haren ohar orokorre».

Bi. Aldatu egiten da 310. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«310. artikulua.

Karrera judizialean eta fiskalean sartzeko eta igotzeko hautapropa guztiek kontuan hartuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa aztertzea, genero-indarkeriaren aurkako neurriak barne, eta printzipio hori jurisdikzio-funtzioaren esparruan zeharkakotasunez aplikatzea.

Gai-zerrendak bermatu beharko du ezagutzak eskuratuko direla diskriminaziorik ezaren printzipioari buruz eta, bereziki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz, eta azpimarra jarriko du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko ezarrita dagoen araudi espezifikokoaren ezagutzan, barnean hartuta Europar Batasunaren araudia eta Espainiak berdintasunaren, diskriminazioaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren gainean berretsi dituen nazioarteko tratatu eta tresnak.

Era berean, hautaprobek haurren eta nerabeen eskubideen babes judizialaren azterketa, haien babesaren eta adingabearen interes gorenaren printzipioaren aplikazioa jasoko dituzte. Gai-zerrendak barne-araudiari, Europakoari eta nazioarteko araudiari buruzko ezagutzak eskuratzea bermatu beharko du, arreta berezia eskainiz Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioari eta haren ohar orokorre».

Hiru. Aldatu egiten da 433 bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«5. Karrera Judizialeko Etengabeko Prestakuntza Planean, diziiplina anitzeko ikastaro espezifikokoak jasoko dira gai hauei buruz: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren babes judiziala; sexuaren ziozko diskriminazioa; diskriminazio anizkoitza eta emakumeen aurkako indarkeria; gizakien salerosketa mota guztiak, eta Zuzenbidea interpretatu eta aplikatzean genero-ikuspuntua aplikatzeko gaikuntza. Gainerako ikastaroetan ere halako prestakuntza sartuko da, zeharkakotasunez.

Halaber, Etengabeko Prestakuntza Planak haurren eta nerabeen eskubideen babes judizialari buruzko diziplina-ikastaro espezifikoak jasoko ditu. Betiere, prestakuntza-ikastaroetan haurren eta nerabeen desgaitasunaren ikuspegia jasoko da».

Lau. Aldatu egiten da 434. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Zentroaren eginkizuna Justizia Ministerioarekin lankidetzan aritzea izango da, Karrera Fiskaleko kideak, Letraduen Kidegoa eta Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten gainerako langileak hautatu eta haiei hasierako eta etengabeko prestakuntza emateko zereginean.

Ikasketa Juridikoen Zentroak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioari eta horren aplikazio transbertsalari buruzko prestakuntza-ikastaroak emango dizkie urtero Karrera Fiskaleko kideei, Letraduen Kidegoari eta Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten gainerako langileei, bai eta genero-indarkeriako egoerak goiz detektatzeari eta tratatzeari buruzkoak ere.

Halaber, Ikasketa Juridikoen Zentroak haurren eta nerabeen eskubideen babes judizialari buruzko diziplina anitzeko ikastaro espezifikoak emango ditu urtero. Betiere, prestakuntza-ikastaroetan haurren eta nerabeen desgaitasunaren ikuspegia jasoko da».

Bost. Aldatu egiten dira 480. artikulua 3. eta 4. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«480. artikulua.

3. Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko fakultatiboak karrerako funtzionarioak dira, eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko goi-mailako tituludunen kidego nazional bat osatzen dute. Institutuaren jardura tekniko eta zientifikoaren arabera, espezialitateak ezarri ahal izango dira kidego horren barruan.

Funtzio hau du Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko Fakultatiboen Kidegoak: laguntza teknikoa ematea, bere lanbide-diziplinetako gaietan, agintari judizialei, gobernu-agintariei, Fiskaltzari eta auzitegi-medikuei, hala jarduketa judizialean nola aurretiazko ikerketa-eginbideetan. Horretarako, eskatzen zaizkien analisiak eta ikerketak egingo dituzte, behar diren irizpen eta txostenak emango dituzte, eta aipaturiko agintariek egindako kontsultei erantzunak diete, baita partikularrek prozesu judizialean egindakoei eta erakunde edo enpresa publikoek egindakoei ere, interes orokorrean eragina dutenean; orobat, intoxikazioen prebentzioan lagunduko dute.

Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionalean jardungo dute, bai eta auzitegi-medikuntzako eta auzitegi-zientzietako Institutuetan eta ezartzen diren administrazio-unitateetan ere, lanpostu-zerrendetan zehazten diren kasu eta baldintzetan.

4. Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko teknikari espezialistak karrerako funtzionarioak dira, eta laguntza espezializatuko kidego nazional bat osatzen dute, Justizia Administrazioaren zerbitzura dagoena; laguntza tekniko espezializatuko funtzioak beteko dituzte aipaturiko institutuaren berezko zientzia- eta ikerketa-jardueretan, bai eta auzitegi-medikuntzako eta auzitegi-zientzietako institutuak ere.

Erakunde horien lanpostu-zerrendetan ezarritako kasu eta baldintzetan emango dute zerbitzua».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorra aldatzea.*

Aldatu egiten da Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorraren 3. artikulua a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Pertsonaren duintasunaren aurka egiten duen publizitatea edo Espainiako Konstituzioan aitortutako balio eta eskubideak urratzen dituena; bereziki, 14. eta 18. artikulukoak eta 20. artikulua 4. apartatukoak.

Aurreko aurreikuspenean, emakumeak modu iraingarri edo diskriminatzailean aurkezten dituzten iragarkiak sartuko dira, hala haien gorputza edo gorputzaren zati batzuk sustatu nahi den produktuarekin loturik ez duten objektu soil gisa zehazki eta zuzenean erabiltzen dituztenak, nola haien irudia gure ordenamenduaren oinarriak urratzen dituzten jokabide estereotipatuei lotuta azaltzen duten iragarkiak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak aipatzen duen indarkeria sortzen laguntzen dutenak.

Era berean, aurreko aurreikuspenean sartuko da adingabeengan edonolako indarkeria edo diskriminazioa sortzen laguntzen duen publizitate mota oro, edo estereotipo sexistak, arrazistak, estetikoak, homofobikoak, transfobikoak edo desgaitasun-arrazoietan oinarritutakoak sustatzen dituena».

Azken xedapenetako seigarrena. *Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 22. artikuluko 4. inguruabarra, eta honela geratzen da idatzita:

«4.a Delitu egitea arrazakeria- nahiz antisemitismo-arrazoiengatik, edo honako hauei lotutako bestelako diskriminazio mota batengatik: biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmena; haren etnia, arraza edo nazioa; sexua; adina; sexu- edo genero-orientazio edo -identitatea; aporofobia edo gizarte-bazterkeria; haren gaixotasuna edo desgaitasuna. Eta ez da kontuan hartzen jokabide horren biktima den pertsonak benetan betetzen dituen baldintza edo inguruabar horiek».

Bi. Aldatu egiten da 39. artikulua b) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«b) Enplegu edo kargu publikorako, lanbide, ogibide, industria edo merkataritzarako edo beste jarduera batzuetarako desgaitasuna berezia, horiek ordainduak izan zein ez; edo guraso-ahalaren eskubidea, tutoretza-, zaintza- edo kuradoretza-eskubidea, animaliak edukitzeko, sufragio pasiboko eskubidea edo beste edozein eskubide egikaritzeko desgaitasuna berezia».

Hiru. Aldatu egiten da 45. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«45. artikulua.

Lanbide, ogibide, industria edo merkataritzarako edo beste jarduera batzuetarako desgaitasuna bereziak —jarduera ordainduak izan zein ez—, edo beste edozein eskubidetakoa desgaitasuna bereziak, zeina beren-beregi eta zioak emanez zehaztu behar baita epaian, kendu egiten dio zigortuari kondenak irauten duen bitartean horiek baliatzeko ahalmena. Agintari judizialak lanbide edo ogibidearen jarduera edo funtzio jakin batzuetara mugatu dezake desgaitasuna, lanbide edo ogibide hori ordaindua izan zein ez; eta, ahal izanez gero, egindako delituarekin zuzenean lotuta ez dauden funtzioak betetzeko aukera emango du».

Lau. Aldatu egiten da 46. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«46. artikulua.

Guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaiakuntza bereziak kendu egiten dizkio kondenatuari guraso-ahalari lotutako eskubideak, eta azkendu egiten dizkio gainerakoak; horrez gain, desgaiakuntza berezi hori dela eta, kondenak irauten duen bitartean kondenatua ezin izango da izendatu kargu horietarako. Guraso-ahalaz gabetzeko zigorra ezartzearekin bat, galdu egiten da guraso-ahalaren titulartasuna. Epaileak zehaztuko du semearen edo alabaren titulartasuneko zer eskubidek iraungo duten pertsona kondenatuarekiko. Agintari judizialak kondenatuaren ardurapean dauden adingabe edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsona guztiei edo batzuei dagokienez erabaki ahal izango ditu zigor horiek.

Guraso-ahala kenduz gero adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonen zer eskubidek iraungo duten erabakitzeke, eta zigorra norekiko ezartzen den zehazteko, agintari judizialak adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren interes gorena baloratuko du, kasu zehatzaren inguruabarrak aintzat hartuta.

Artikulu honen ondoreetarako, guraso-ahalaren barruan sartzen dira hala Kode Zibilean araututakoa, barnean direla luzatua etabirgaitua, nola autonomia-erkidegoetako legedi zibilean aurreikusitako instituzio analogoak».

Bost. Aldatu egiten da 49. artikulua sarrerako paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Gizartearentzako lanak ezartzeko, kondenatuaren adostasuna behar da. Lan horiek onura publikoko jarduera jakin batzuetan ordaindu gabeko laguntza ematera behartzen dute kondenatua. Jarduera horiek, kondenatuak egindako delituaren izaerarekin duten antzekotasunagatik, eragindako kalteak erreparatzea edo biktimei babesa edo laguntza ematea izaten ahalko dira, bai eta kondenatuak prestakuntza-tailer edo -programetan parte hartzea ere; berreziketarako tailer eta programak, lanekoak, kulturalak, bide-hezkuntzakoak, sexu-hezkuntzakoak, gatazkak modu baketsuan konpontzekoak, gurasotasun positibokoak eta antzekoak izan daitezke. Horien iraupena ezin da izan egunean zortzi ordutik gorakoa, eta baldintza hauetan gauzatuko dira:»

Sei. Aldatu egiten da 57. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Agintari judizialek, egitateen astuntasuna edo delitugilearen arriskutsutasuna kontuan hartuta, erabaki dezakete 48. artikuluan jasotako debekuetatik bat edo batzuk ezartzea epailetan honako delitu hauetan: giza hilketa-, abortu-, lesio-delituetan, askatasunaren aurkako delituetan, tortura-delituan, osotasun moralaren aurkako delituetan, gizakiak salerostearen delituetan, sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren, intimitatearen, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxaezintasunaren, ohorearen, ondarearen, ordena sozioekonomikoaren eta familia-harremanen aurkako delituetan. Debekua ez da izango hamar urte baino gehiagoko epealdi baterako, delitua astuna bada, edo bost urte baino gehiagoko epealdi baterako, delitua astuntasun txikiagokoa bada.

Aurrekoa gorabehera, kondenatuari espetxe-zigorra ezarri bazaio, eta epaile edo auzitegiak debeku horietatik bat edo batzuk ezartzea erabakitzen badu, debekuok epaian ezarritako espetxe-zigorraren iraupena baino urtebetetik hamar urtera arte luzeagoak izango dira, delitua astuna bada, eta urtebetetik bost urtera arte luzeagoak, delitua astuntasun txikiagokoa bada. Kasu horretan, kondenatuak aldi berean beteko ditu, nahitaez, espetxe-zigorra eta aipatutako debekuak».

Zazpi. Aldatu egiten da 83. artikulua 1. apartatuko 6. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«6.a Programa hauetan parte hartzea: prestakuntza-programetan, laneko programetan, kulturako programetan, bide-hezkuntzakoetan eta sexu-hezkuntzakoetan eta ingurumenaren defentsari, animalien babesari, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari, gatazken konponbide baketsuari, gurasotasun positiboari eta antzekoei buruzko programetan».

Zortzi. Aldatu egiten da 107. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«107. artikulua.

Agintari judizialak, zioak emanez, norbaitek eskubide jakin bat baliatzeko edo lanbide, ogibide, industria, merkataritza, kargu, enplegu edo jarduera jakin batean aritzeko desgaitasun-neurria dekretuaren bidez, urtebetetik bost urtera artekoa, jarduera ordaindua izan zein ez, baldin eta pertsona horrek delitua egin badu gehiegikeriaz arituz edo jardun horren harira, eta inguruabarrak baloratuz ondoriozta badaiteke delitu bera edo antzeko beste batzuk berriro egiteko arriskua dagoela, eta betiere ezin bazaio dagokion zigorra ezarri, 20. artikulua 1., 2. edo 3. apartatuetan aurreikusitako egoeraren batean dagoelako».

Bederatzi. Aldatu egiten da 130. artikulua 1. apartatuko 5. paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«5.a Ofendituaren barkamena, laidotuak hala eskaturik pertsegi daitezkeen delitu arinak direnean edo legeak hala aurreikusten duenean. Barkamena espresuki eman behar da, epaia eman baino lehen. Horretarako, epaia eman behar duen agintari judizialak, epaia eman baino lehen, entzun egin behar du delituak ofenditutako pertsona.

Adingabeen edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen aurka egindako delituetan, delituek batez ere pertsonalak diren ondasun juridikoei eragiten dietenean, ofendituaren barkamenak ez du erantzukizun kriminala azkenduko».

Hamar. Aldatu egiten da 132. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Aurreko artikuluan ezarritako epeak arau-hauste zigorgarria egin den egunetik zenbatuko dira. Delitu jarraituaren, delitu iraunkorraren eta ohikotasuna eskatzen duten arau-hausteen kasuetan, epe horiek azken arau-haustea egin den egunetik, egoera ez-zilegia ezabatu zen egunetik eta jokabidea amaitu zen egunetik zenbatuko dira, hurrenez hurren.

Baimendu gabeko abortuaren delituetan, lesio-delituetan, askatasunaren aurkakoetan, tortura-delituetan, osotasun moralaren eta intimitatearen aurkako delituetan, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxaezintasunaren aurkako delituetan, bai eta familia-harremanen aurkako delituetan ere, hurrengo paragrafoan jasotako delituak alde batera utzita, biktima 18 urte baino gutxiagokoa denean, biktima adin-nagusitasunera iristen den egunetik zenbatuko dira epeak, eta adin-nagusitasunera iritsi baino lehen hiltzen bada, berriz, hil den egunetik.

Giza hilketaren saiakuntzaren delituetan, 149. eta 150. artikuluetako lesio-delituetan, 173.2 artikuluan aurreikusitako ohiko tratu txarren delituan, askatasunaren aurkako delituetan, sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituetan eta gizakien salerosketaren delituetan, biktima 18 urte baino gutxiagokoa denean, biktimak 25 urte betetzen dituen egunetik zenbatuko dira epeak, eta adin horretara iritsi baino lehen hiltzen bada, berriz, hil den egunetik».

Hamaika. Aldatu egiten da 140 bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«140 bis artikulua.

1. Titulu honetan jasotako delitu bat edo gehiago egiteagatik kondenatutakoei zaintzapeko askatasunaren neurri bat ere ezarri ahal izango zaie.

2. Biktimak eta aurreko hiru artikuluetan aurreikusitako delituen egileak seme edo alaba bat badute elkarrekin, agintari judizialak guraso-ahalaz gabetzen duen zigorra ezarriko dio delitugileari.

Zigor hori bera ezarriko da, biktima delitugilearen seme edo alaba denean, beste seme edo alabekiko, halakorik egonez gero».

Hamabi. 143 bis artikulua eransten da; honela dio:

«143 bis artikulua.

Adingabeen edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen suizidioa bultzatzeko, sustatzeko edo eragiteko helburu espezifikoak duten edukiak Interneten, telefonoaren edo informazio edo komunikazioaren beste edozein teknologiaren bidez jendaurrean banatzen edo zabaltzen dituenari urtebetetik lau urtera arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio.

Agintari judizialek beharrezkoak diren neurriak hartzeko agindua emango dute aurreko paragrafoan aipatutako edukiak kentzeko, nagusiki eduki horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak eteteko, edota, atzerrian daudenean, batzuk eta besteak blokeatzeko».

Hamahiru. Aldatu egiten da 148. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3.a Biktima 14 urtetik beherako adingabea edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona izatea».

Hamalau. Aldatu egiten da 156 ter artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«156 ter artikulua.

Adingabeen edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen autolesioa bultzatzeko, sustatzeko edo eragiteko helburu espezifikoak duten edukiak Interneten, telefonoaren edo informazio edo komunikazioaren beste edozein teknologiaren bidez jendaurrean banatzen edo zabaltzen dituenari sei hilabetetik hiru urtera arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio.

Agintari judizialek beharrezkoak diren neurriak hartzeko agindua emango dute aurreko paragrafoan aipatutako edukiak kentzeko, nagusiki eduki horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak eteteko, edota, atzerrian daudenean, batzuk eta besteak blokeatzeko».

Hamabost. 156 quater artikulua eransten da; honela dio:

«156 quater artikulua.

Titulu honetan jasotako delitu bat edo batzuk egiteagatik kondenatuta daudenei zaintzapeko askatasunaren neurria ere ezarri ahal izango zaie, biktima 173. artikulua 2. apartatua adierazitako pertsonetako bat denean».

Hamasei. 156 quinquies artikulua eransten da; honela dio:

«156 quinquies artikulua.

147.1, 148., 149., 150. eta 153. artikuluetan aurreikusitako delituen bat egiteagatik kondenatutako pertsonen, biktima adingabea denean, dagozkien zigorrez



gain, desgaiakuntza bereziko zigorra ere ezarri ahal izango zaie adingabeekin zuzenean eta arruntean harremana izatea dakarren edozein lanbide, ogibide edo jardueratan aritzeko, hura ordaindua izan edo ez. Desgaiakuntza bereziko zigorraren iraupena epaian ezarritako zigor askatasun-gabetzailearena baino hiru urtetik bost urtera arte luzeagoa izango da, edo bi urtetik bost urtera arte luzeagoa, espetxe-zigorrik ezarri ez bada. Bi kasuetan, proportzionalki hartuko dira kontuan delituaren astuntasuna, egindako delituen kopurua eta kondenatutako pertsonaren inguruabarrak».

Hamazazpi. Aldatu egiten da 177 bis artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Bost urtetik zortzi urtera arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio, gizakien salerosketaren errudun gisa, biktima nazional edo atzerritar baten kontra indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, nagusitasun-egoeraz edo biktimaren premia- edo kalteberatasun-egoeraz abusatuz edo haren gaineko kontrola duen pertsonaren adostasuna izate aldera ordainketak edo etekinak emanaz edo jasoz biktima dela Espainiako lurraldean dela Espainiatik, iraganbidean edo Espainiara bidean helburu hauetako edozeinekin harrapatzen, garraiatzen, lekualdatzen, hartzen edo jasotzen duenari edo haren gaineko kontrola trukatzeko edo eskualdatzen duenari:

- a) Bortxazko lan edo zerbitzuak eginaraztea, esklabotzan aritzera behartzea edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasunaren antzeko praktikak eginaraztea.
- b) Sexu-esplotazioan erabiltzea, pornografia barne.
- c) Delitu-jarduerak egiteko esplotatzea.
- d) Haren gorputz-organoak erauztea.
- e) Ezkontza behartuak eginaraztea.

Pertsonak premia- edo kalteberatasun-egoeran daude dituzten aukeren artean benetakoa edo onargarria den bakarra abusua pairatzea denean.

Gizakien salerosketaren biktima adingabea denean, edozein lanbide, ogibide edo jarduerarako desgaiakuntza bereziko zigorra ezarriko da betiere, baldin eta lanbide, ogibide edo jarduera horiek, ordainduak izan edo ez, adingabeekin zuzenean eta arruntean harremana izatea badakarte. Desgaiakuntza horren iraupena ezarritako zigor askatasun-gabetzailearena baino sei urtetik hogeitaz urtera arte luzeagoa izango da».

Hemezortzi. Aldatu egiten dira 180. artikulua 1. apartatuko 3. eta 4. inguruabarrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«3.a Egitateak adina, gaixotasuna, desgaitasuna edo beste edozein inguruabar dela-eta kalteberatasun bereziko egoeran dagoen pertsona baten aurka egiten direnean, 183. artikuluan xedatutakoa salbu.

4.a Erantzulea delitu egiteko bizikidetzako egoera batez edo nagusitasun- edo ahaidetasun-harreman batez baliatu denean, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko ahaidea izateagatik, neba-arrebak izateagatik edota antzeko harremana izateagatik».

Hemeretzi. Aldatu egiten dira 183. artikulua 4. apartatuko a) eta d) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«a) Biktima duen adina, gaixotasuna, desgaitasuna edo beste edozein inguruabar dela-eta kalteberatasun bereziko egoera batean dagoenean, eta, betiere, lau urte baino gutxiago dituenen.

d) Erantzulea delitu egiteko bizikidetzako egoera batez edo nagusitasun- edo ahaidetasun-harreman batez baliatu denean, odolez edo adopzioz biktimaren

aurreko ahaidea izateagatik, neba-arrebak izateagatik edota antzeko harremana izateagatik».

Hogei. Aldatu egiten da 183 quater artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«183 quater artikulua.

Hamasei urte baino gutxiagoko adingabeak adostasuna askatasunez ematen duenean, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da kapitulu honetan aurreikusitako delituen egilea, adinean eta garapen- edo heldutasun fisiko eta psikologikoan adingabearengandik hurbil dagoen pertsona bat denean, Zigor Kodearen 183.2 artikuluko kasuetan izan ezik».

Hogeita bat. Aldatu egiten dira 188. artikuluen 3. apartatuko a) eta b) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«a) Biktima duen adina, gaixotasuna, desgaitasuna edo beste edozein inguruabar dela-eta kalteberatasun bereziko egoera batean dagoenean.

b) Erantzulea delitu egiteko bizikidetz-egoera batez edo nagusitasun- edo ahaidetasun-harreman batez baliatu denean, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko ahaidea izateagatik, neba-arrebak izateagatik edota antzeko harremana izateagatik».

Hogeita bi. Aldatu egiten dira 189. artikuluen 2. apartatuaren b), c) eta g) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«b) Egitateak bereziki apalesgarriak edo iraingarriak direnean, material pornografikoa lortzeko indarkeria fisiko edo sexuala erabiltzen denean edo indarkeria fisiko edo sexuarekin eszenak irudikatzen direnean.

c) Gaixotasunak, desgaitasuna edo beste edozein inguruabar direla-eta kalteberatasun bereziko egoeran dauden adingabeak erabiltzen direnean.

g) Erantzulea adingabearen edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsonaren aurreko ahaidea, tutorea, kuradorea, zaintzailea, irakaslea edo izatezko edo zuzenbidezko ardura duen beste edozein pertsona denean, behin-behinean bada ere; edo adingabearekin edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsonarekin bizi den edozein pertsona denean, edo konfiantzaz edo agintaritzaz abusatuz jardun duen beste pertsona bat denean».

Hogeita hiru. Aldatu egiten da 189 bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«189 bis artikulua.

Kapitulu honetan eta titulu honetako II bis eta IV. kapituluetan aurreikusitako delituak egitera bultzatzeko, sustatzeko edo delitu horiek eragiteko helburu espezifikoak duten edukiak Interneten, telefonoaren edo informazio edo komunikazioaren beste edozein teknologiaren bidez jendaurrean banatzen edo zabaltzen dituenari sei hilabetetik hamabira arteko isuna ezarriko zaio, edo urtebetetik hiru urtera arteko espetxe-zigorra.

Agintari judizialek beharrezkoak diren neurriak hartzeko agindua emango dute aurreko paragrafoan aipatutako edukiak kentzeko, nagusiki eduki horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak eteteko, edota, atzerrian daudenean, batzuk eta besteak blokeatzeko».

Hogeita lau. 189 ter artikulua eransten da; honela dio:

«189 ter artikulua.

Baldin eta, 31 bis artikuluan ezarritakoaren arabera, pertsona juridiko bat bada kapitulu honetan bildutako delituen erantzulea, orduan, honako zigor hauek ezarriko zaizkio:

- a) Lortutako onura halako hirutik bostera arteko isuna, pertsona fisikoak egindako deliturako bost urte baino gehiagoko espetxe-zigorra badago aurreikusita.
- b) Lortutako onura halako bitik laura arteko isuna, pertsona fisikoak egindako deliturako bi urte baino gehiagoko espetxe-zigorra badago aurreikusita eta aurreko tartekian zehaztuta ez badago.
- c) Lortutako onura halako bitik hirura arteko isuna gainerako kasuetan.

66 bis artikuluan ezarritako erregelei jarraikiz, 33. artikulua 7. apartatuaren b) letratik g) letrara bitartean jasotako zigorrak ere ezarri ahal izango dituzte agintari judizialek».

Hogeita bost. Aldatu egiten da 192. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Agintari judizialak, zioak emanez, guraso-ahalaz gabetzeko zigorra edo guraso-ahalaren, tutoretzaren, kuradoretzaren, zaintzaren edo harreraren eskubideak baliatzeko desgaiakuntza bereziko zigorra ere ezarri ahal izango du, sei hilabetetik sei urtera artekoa, bai eta enplegu edo kargu publikoan jarduteko edo lanbidean nahiz ogibidean —ordaindua izan edo ez— aritzeko desgaiakuntza-zigorra ere, sei hilabetetik sei urtera artekoa.

Agintari judizialak desgaiakuntza bereziko zigorra ezarriko die titulu honetan jasotako delituen erantzuleei, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera dagozkien zigorrez gain, adingabeekin zuzenean eta arruntean harremana izatea dakarren edozein lanbide, ogibide edo jardueratan aritzeko, hura ordaindua izan zein ez. Desgaiakuntza bereziko zigorraren iraupena epaian ezarritako zigor askatasun-gabetzailarena baino bost urtetik hogeitaz urtera arte luzeagoa izango da, delitua astuna bada, eta bi urtetik hogeitaz urtera arte luzeagoa, astuntasun txikiagokoa bada. Bi kasuetan, proportzionalki hartuko dira kontuan delituaren astuntasuna, egindako delituen kopurua eta kondenatutako pertsonaren inguruabarrak».

Hogeita sei. Aldatu egiten da 201. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Kapitulu honetan aurreikusitako delituen ondoriozko prozedura hasteko, beharrezkoa da laidoztatuak edo haren legezko ordezkariak salaketa jartzea.

2. Prozedura hasteko, aurreko apartatuan eskatutako salaketa ez da beharrezkoa izango kode honen 198. artikuluan azaldutako egitateen kasuan, ezta delitua egiteak interes orokorrei edo pertsona frankori eragiten dienean ere, ez eta biktima adingabea denean edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duen pertsona denean ere.

3. Ofendituaren edo haren legezko ordezkariaren barkamenak, hala dagokionean, azkendu egiten du akzio penala, 130.1.5 artikulua bigarren paragrafoan besterik xedatzen ez bada».

Hogeita zazpi. Aldatu egiten da 215. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Ofenditutako pertsonaren barkamenak azkendu egiten du akzio penala, kode honen 130.1.5 artikulua bigarren paragrafoan besterik xedatzen ez bada».

Hogeita zortzi. Aldatu egiten da 220. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Zigor bera ezarriko zaio 18 urte baino gutxiagoko adingabe bat beraren filiazioa aldatzeko edo aldarazteko ezkututzen duenari edo beste bati ematen dionari».

Hogeita bederatzia. Aldatu egiten da 225 bis artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. artikulua honen ondoretarako, ostetzat hartuko da:

1.a Adingabe bat bere ohiko bizilekutik lekualdatzea, beste gurasoaren adostasunik gabe edo haren zaintza edo jagoletza bere esku duen pertsonaren edo erakundearen adostasunik gabe.

2.a Adingabe bat atxikitzea, ebazpen judizial edo administratibo bidez ezarritako eginbeharra modu larrian urratuz».

Hogeita hamar. Aldatu egiten da 267. artikulua hirugarren apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Kasu horietan, ofendituaren barkamenak azkendu egiten du akzio penala».

Hogeita hamaika. Aldatu egiten da 314. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«314. artikulua.

Sei hilabetetik bi urtera arteko espetxe-zigorra ezarriko zaie, edo hamabi hilabetetik hogeita lau hilabetera arteko isuna, ideologia, erlijio edo sinesmenengatik, familia-egoeragatik, etnia, arraza edo nazio batekoa izateagatik, jatorri nazionalagatik, sexuagatik, adinagatik, sexu- edo genero-orientazio edo -identitateagatik, genero-arrazoiengatik, aporofobiagatik, gizarte-bazterkeriagatik, daukaten gaixotasun edo desgaitasunagatik, langileen ordezkari legal edo sindikala izateagatik, enpresako beste langile batzuen ahaide izateagatik edo Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialen bat erabiltzeagatik inoren aurka enplegu publikoan edo pribatuan diskriminazio larria eragiten dutenei, errekerimenduaren edo administrazio-zehapenaren ondoren legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badute».

Hogeita hamabi. 361 bis artikulua eranstean da; honela dio:

«361 bis artikulua.

Sei hilabetetik hamabi hilabetera arteko isuna ezarriko zaio, edo urtebetetik hiru urtera arteko espetxe-zigorra, Interneten, telefonoaren edo informazio edo komunikazioaren beste edozein teknologiaren bidez jendaurrean edukiak banatzen edo zabaltzen dituenari, baldin eta eduki horien berriazko helburua bada produktuak, prestakinak edo substantziak kontsumitzera edo elikagaiak irensteko edo ezabatzeko teknikak erabiltzera sustatzea edo hura erraztea adingabeen artean edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen artean, eta horiek erabiltzeak arriskua sor badezake pertsonen osasunerako.

Agintari judizialek beharrezkoak diren neurriak hartzeko agindua emango dute aurreko paragrafoan aipatutako edukiak kentzeko, nagusiki eduki horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak eteteko, edota, atzerrian daudenean, batzuk eta besteak blokeatzeko».

Hogeita hamahiru. Aldatu egiten da 511. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«511. artikulua.

1. Sei hilabetetik bi urtera arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau hilabetera arteko isuna eta enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna berezia ere, urtebetetik hiru urtera artekoa, zerbitzu publiko batez arduratzen den partikularrari, baldin eta inori bere ideologia, erlijioa, sinesmena, familia-egoera, etnia, arraza, nazioa, jatorri nazionala, sexua, adina, sexu- edo genero-orientazio edo -identitatea, genero-arrazoiak, aporofobia edo gizarte-bazterkeria direla-eta prestazio bat ukatzen badio hark prestazio horretarako eskubidea izanik.

2. Zigor berberak ezarriko dira, baldin eta egitateak elkarte, fundazio, sozietate edo korporazio baten aurka edo horietako kideen aurka gauzatzen badira haien ideologia, erlijioa, sinesmena, familia-egoera, etnia, arraza, nazioa, jatorri nazionala, sexua, adina, sexu- edo genero-orientazio edo identitatea, genero-arrazoiak, aporofobia, gizarte-bazterkeria, gaixotasuna edo desgaitasuna direla eta.

3. Funtzionario publikoek artikulua honetan aurreikusitako egitateetako bat gauzatzen badute, zigor berberak ezarriko zaizkie, goiko erdian, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna berezia ere, bi urtetik lau urtera artekoa.

4. Kasu guztietan, gainera, irakaskuntzaren, kirolaren eta aisialdiaren arloetako hezkuntza-lanbide nahiz -ofiziorako desgaitasuna bereziko zigorra ezarriko da, ezarritako zigorraren iraupena baino urtebete eta hiru urtera arte bitartean luzeagoa, baldin eta zigor hori askatasun-gabetzailea bada, eta ezarritako zigorra isuna bada, desgaitasuna bereziko zigorra urtebetetik hiru urtera artekoa izango da. Betiere, proportzionalki hartuko dira kontuan delituaren astuntasuna eta delitugilearen inguruabarrak».

Hogeita hamalau. Aldatu egiten da 512. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«512. artikulua.

Inork lanbide- edo enpresa-jarduerak gauzatzean pertsona bati prestazio bat emateari uko egiten badio pertsona horren ideologia, erlijioa, sinesmenak, familia-egoera, etnia, arraza, nazioa, jatorri nazionala, sexua, adina, sexu- edo genero-orientazio edo -identitatea, genero-arrazoiak, aporofobia, gizarte-bazterkeria, gaixotasunak edo desgaitasuna direla-eta eta pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea badu, orduan, halakoari lanbidean, ofizioan, industrian edo merkataritzan aritzeko desgaitasuna bereziko zigorra ezarriko zaio, bai eta irakaskuntzaren, kirolaren eta aisialdiaren arloetako hezkuntza-lanbide nahiz -ofiziorako desgaitasuna bereziko zigorra ere, urtebetetik lau urtera artekoa».

Hogeita hamabost. Aldatu egiten da 515. artikulua 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4.a Pertsona, talde edo elkarten aurka zuzenean edo zeharka gorrotoa, etsaigoa, diskriminazioa edo indarkeria sustatzen, bultzatzen edo eragiten dutenak haien ideologia, erlijioa edo sinesmenak direla eta, horko kideetakoren bat edo guztiak etnia, arraza eta nazio batekoak direla eta, edo haien jatorri nazionala, sexua, adina, sexu- edo genero-orientazio edo -identitatea, genero-arrazoiak, aporofobia, gizarte-bazterkeria, familia-egoera, gaixotasunak edo desgaitasuna direla eta».

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 2. artikuluko g) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«g) Auzitan aritzeko baliabiderik baden alde batera utzita, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzen zaie eta berehala eman beharko zaie honako hauei: batetik, genero-indarkeriaren, terrorismoaren eta gizakien salerosketaren biktimei, biktima-izaerarekin lotura duten, izaera horretatik eratortzen diren edo horren ondorio diren prozesuetan; eta, bestetik, adingabeei eta desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsoneri, giza hilketa delituaren, 149. eta 150. artikuluetako lesio-delituen, 173.2 artikuluan aurreikusitako tratu txarren delituaren, askatasunaren aurkako delituen, sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituen eta gizakien salerosketaren delituen biktima direnean.

Biktima hil egiten bada, kausadunek ere izango dute eskubide hori, baldin eta egitateetan parte hartu ez badute.

Doako justiziaren onura emateari begira, letra honetan aipatutako delituetako batengatik salaketa edo kereila aurkezten denean edo prozedura penal bat hasten denean eskuratzen da biktima-izaera, eta prozedura penalak indarrean irauten duen bitartean eutsiko zaio, edota prozedura amaitu eta kondena-epaia ematen denean. Doako justiziaren onura galdu egingo da absoluzio-epaia irmo bihurtzean edota, delitu-egitateak egiaztatu ez direlako, behin betiko edo behin-behinean largestean. Ordura arte doan jasotako prestazioen kostua ez da ordaindu beharrik izango.

Letra honetan aipatzen diren delituen biktima izatearen ondorioz hasten diren prozesuetan, eta, bereziki, genero-indarkeria-koetan, abokatuak berak eman behar dio laguntza biktimari, baldin eta horrela behar bezala bermatzen bada haren defentsa-eskubidea».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, partzialki aldatzen dituen Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten dira 2. artikuluan 5. apartatuaren lehen paragrafoa eta c) letra, eta honela geratzen dira idatzita:

«5. Edozein jurisdikzio-ordenatako ebazpen oro eta adingabearen interes gorenari jarraikiz hartutako neurri oro prozesuaren berme egokiak errespetatuz hartu beharko da, eta, bereziki:

[...]

c) Adingabearen gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak parte hartu ahal izango dute, edota defendatzaile judizial batek, haien artean interes-gatazka edo desadostasunik badago, eta Fiskaltzak, adingabearen interesak defendatzeko. Interes-gatazka dagoela iritziko zaio adingabearen iritzia adingabearen gainean hartzen den neurriaren aurkakoa denean edo neurriak haren eskubideak murrizten dituenean».

Bi. Aldatu egiten da 12. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«12. artikulua. *Babes-jarduketak.*

1. Botere publikoek, adingabeak babesteko, prebenitu, detektatu eta zuzendu egingo dituzte arrisku-egoerak; horretarako, zerbitzu eta baliabide egokiak ezarriko



dituzte, zaintza egikarrituko dute, eta, desanparoa aitortzen den kasuetan, tutoretza beren gain hartuko dute, lege-aginduz. Babes-jarduketetan, betiere, familia-neurriak lehenetsiko dira egoitza-neurrien aurrean, neurri egonkorak aldi baterakoan aurrean, eta adostutakoak agindutakoan aurrean.

2. Botere publikoek zainduko dute gurasoek, tutoreek, zaintzaileek edo harreragileek behar bezala betetzen dituztela beren erantzukizunak, eta prebentzio-, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu eskuragarriak emango dizkiete adingabeen garapenean eragina duten arlo guztietan.

3. Adingabeak genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima den pertsona baten guraso-ahalaren, tutoretzaren, zaintzaren edo harreraren pean daudenean, botere publikoen jarduketan helburua izango da behar duten laguntza ematea, adingabeek harekin jarrai dezaten, adina edozein dela ere, bai eta babestea, arreta espezializatua ematea eta errekuperatzen laguntzea ere.

4. Pertsona bat adin nagusikoa den jakiterik ez dagoenean, hura adingabetzat hartuko da lege honetan aurreikusitako ondoreetarako, harik eta haren adina zehazten den arte. Horretarako, fiskalak proportzionaltasun-judizio bat egin beharko du, eta bertan modu egokian haztatuko du zergatik uste duen aurkeztu den pasaporte eta edo nortasun-agiri baliokidea, hala badagokio, ez dela fidagarria. Adingabeen adina zehazteko proba medikoak azkartasun-printzipioari jarraikiz egingo dira, ukitutako pertsonaren aurretiko baimen informatua jasota, haren duintasuna errespetatuz eta haren osasunerako arriskurik eragin gabe; proba horiek, bestalde, ezin izango dira bereizi gabe aplikatu. Inola ere ezin izango da egin biluzte integralik, genitalen miaketarik edo bestelako proba mediko biziki inbaditzaileak.

Halaber, Espainiara bakarrik iritsi diren adingabeei dagokienez zaintza- edo tutoretza-neurria hartu eta gero, entitate publikoek Barne Ministerioari komunikatuko diote neurri hori hartu dela, dagokion estatu-erregistroan inskribatzeko.

5. Entitate publikoek lege honetan aitortzen diren eskubideak bermatuko dizkiete adingabeei, babes-baliabide bat lehen aldiz eskuratzen duten unetik aurrera, eta berehalako arreta integral eta egokia emango diete haien premiei, behin-behineko neurriei eutsi gabe eta lehen harrerako baliabideetako egonaldia luzatu gabe ahal dela.

6. Hiru urtetik beherakoei dagokienez hartzen den babes-neurri ez-iraunkor oro hiru hilean behin berrikusiko da; adin horretatik gorakoei dagokienez, berriz, sei hilean behin. Harrera iraunkorretan, berrikuspena sei hilean behin egingo da lehen urtean; bigarren urtetik aurrera, berriz, hamabi hilean behin.

7. Entitate publikoak, legeak esleitzen dizkion funtzioak betetzeaz gain, adingabe zehatz baten egoera justifikatzen duen txostena igorriko dio Fiskaltzari, adingabe hori bi urtetik gora egon bada egoitza-harreran edo aldi baterako familia-harreran, eta erakunde publikoak justifikatu beharko du zergatik ez den babes-neurri egonkorragorik hartu tarte horretan.

8. Botere publikoek bermatu egingo dituzte desgaitasuna duten adingabeek beren zaintzari, tutoretzari, babesari, adopzioari edo antzekoei dagokienez dauzkaten eskubide eta betebeharrak, eta al bait gehien babestuko dute adingabearen interes gorena. Era berean, bermatuko dute desgaitasuna duten adingabeek eskubide berberak dituztela familia-bizitzari dagokienez. Eskubide horiek gauzatzeari begira, eta desgaitasuna duten adingabeak ezkutuan, abandonatuta, zabarkerian edo segregatuta egon ez daitezen, adingabe horiei eta haien familiei aldeztu aurretik informazio, zerbitzu eta babes orokorrak ematen zaizkiela zainduko dute».

Hiru. Aldatu egiten da 13. artikulua 1. apartatua, zeina honela geratzen den idatzita, eta kendu egiten dira 4. eta 5. apartatuak:

«1. Adingaberen bat arriskuan edo agian desanparatuta dagoela detektatzen duenean, pertsona edo agintari orok —eta batez ere bere lanbide, ofizio edo

jardueragatik hori detektatzen duenak— gertueneko agintariari edo haren agenteei jakinaraziko die, adingabeari berehala behar duen laguntza emateari utzi gabe».

Lau. 14 bis artikulua eransten da; honela dio:

«14 bis artikulua. *Presako kasuetan jardutea.*

1. Kasuaren presa dela-eta beharrezkoa denean, gizarte-zerbitzuek berehala ekingo diote, aurreko artikuluan eta Kode Zibilaren 172.4 artikuluan aipatutako behin-behineko zaintza ezertan eragotzi gabe.

2. artikulu honetan aipatzen diren presa-kasuei heltzeko, ez da prozedurazko eta formazko betekizunik bete behar, eta, betiere, adingabeei berehala eman behar zaie behar duten laguntza».

Bost. Aldatu egiten dira 17. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Arrisku-egoeratzat hau jotzen da: familiaren, gizartearen edo hezkuntzaren arloko inguruabarren, gabezien edo gatazken ondorioz adingabeari kalte egiten diona garapen pertsonalean, familiakoan, sozialean edo hezkuntzakoan, ongizatean edo eskubideetan; betiere, desanparo-egoera deklaratzera eta legearen aginduz tutoretza hartzeraz eramango lukeen maila, intentsitatea edo iraunkortasuna izatera iristen ez dena, baina hala ere beharrezkoa duena administrazio publiko eskudunak esku hartzea, adingabeari eragiten dioten zailtasunak edo egokitu ezina ezabatzeko, murrizteko edo konpentsatzeko eta haren desanparoa eta gizarte-bazterkeria saihesteko, adingabea familia-inguruetik bereizi beharrik izan gabe.

2. Besteak beste, hauek jotzen dira arrisku-adierazletzat:

a) Haurren edo nerabearen gurasoek edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituzten pertsonak arreta fisiko edo psikikorik ez ematea, baldin eta horrek haurren edo nerabearen osasun fisikoari edo emozionalari kalte arina eragiten badiu eta irizten bazaio horrek iraun egin dezakeela edo ondoreak larritzeko arriskua dagoela gertaeren izaeragatik edo haiek errepikatzeagatik.

b) Gurasoek edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituzten pertsonak adingabeen zaintzan zabarkeriaz jokatzeko eta mediku-jarraipenik ez egitea.

c) Anaia edo arreba bat arriskuan edo desanparatuta dagoela deklaratu egotea, familia-inguruabarrak nabarmen aldatu direnean salbu.

d) Gurasoek edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenek ohikotasunez neurritz kanpoko zigorrak eta indarkeriazko zuzentze-jarraibideak erabiltzea, gertakari larriak edo indarkeriazko patroik kronikoak izan gabe ere adingabearen garapenari kalte egiten diotenak betiere.

e) Familiarekin jarraitutako esku-hartze programek bilakaera txarra izatea eta programa horien garapena eta abiaraztea oztopatzea.

f) Gurasotasunaren arduradunek haurren eta nerabeen aurka jokaera diskriminatzaileak izatea eta jokaera horiek haurren eta nerabeen ongizateari eta osasun mental eta fisikoari kalte egitea; bereziki, jokaera hauek:

1.a Generoa, adina edo desgaitasuna dela-eta arrisku hauek areagotu ditzaketen jarrera diskriminatzaileak: etxean konfinatzea, hezkuntzarako sarbiderik ez izatea, aisiarako aukera urriak izatea, arterako eta bizitza kulturalerako sarbiderik ez izatea; eta generoa, adina edo desgaitasuna dela-eta beren eskubideak berdintasunez baliatzea eragotzen dien beste edozein inguruabar.

2.a Adingabearen sexu-orientazioa, genero-identitatea edo sexu-ezaugarriak ez onartzea.

g) Emakumezko haur eta nerabeek ablazioa, mutilazio genitala edo beste edozein indarkeria mota jasateko arriskua izatea, generoan, promesetan edo ezkontza behartuko akordioetan oinarrituta.

h) Amak gizakien salerosketaren biktima gisa identifikatzea.

i) Emakumezko haur eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima gisa identifikatzea, Genero Indarkeriaren Aurka Babes Integrala Emateko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 1.1 artikuluan ezarritako moduan.

j) Adingabeak hainbat ospitaletan maiz ospitaleratzea, behin eta berriz sintoma berak dituztela, azaldu ezin diren sintomak dituztela edo diagnostikoan berresten ez diren sintomak dituztela.

k) Adingabeek droga toxikoak edo edari alkoholodunak hartzeko ohitura izatea.

l) Adingabea etxeko indarkeriako edo genero-indarkeriako edozein egoeraren eraginpean egotea.

m) Adingabeen aurkako indarkeria dakarren beste edozein inguruabar, iraunez gero haurra edo nerabea babesik gabe utz dezakeena».

Sei. 17 bis artikulua eransten da; honela dio:

«17 bis artikulua. *Legearekin gatazkan diren 14 urtetik beherako adingabeak.*

Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak jarraipen-plan batean sartuko dira, haien gizarte- eta familia-egoera baloratzeko. Autonomia-erkidego bakoitzean eskumena duten gizarte-zerbitzuek diseinatuko eta gauzatuko dute plan hori.

Indarkeriazko egintza sexu-askatasun edo -ukigabetasunaren aurkako delitua edo genero-indarkeriaren delitua izan badaiteke, jarraipen-planean genero-berdintasunaren arloko prestakuntza-modulu bat sartu beharko da».

Zazpi. Aldatu egiten da 20. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Jatorrizko familia-ingurunean jarraitzea ezinezkoa denean, familia-harrerak, bere helburuaren arabera eta erabakitzen den prozedura gorabehera, Kode Zibilean ezarritako modalitateak izango ditu, eta, adingabeak familia harreragilearekin duen loturaren arabera, eta betiere adingabearen interes gorenari jarraikiz, adingabearen familia zabalean bertan edo kanpoko familia batean egin ahal izango da.

Familia-harrera espezializatua izaten ahalko da; hau da, harrera eskaintzen duen familia-unitateko pertsona batek edo batzuek kualifikazio, esperientzia edo prestakuntza espezifikoa izatea premia edo inguruabar bereziak dituzten adingabeekin eginkizun hori betetzeko. Trukean, konpentsazio bat jaso ahal izango du familia-unitateak.

Harrera espezializatua arduraldi eksklusibokoa izaten ahalko da, entitate publikoak hala erabakitzen badu harrera-egoeran dagoen adingabearen premia eta inguruabar bereziak aintzat hartuta. Kasu horretan, hartzaile izendatutako pertsonak edo pertsonak konpentsazio bat jasoko dute ardura hori dela eta».

Zortzi. 20 ter artikulua eransten da; honela dio:

«20 ter artikulua. *Adingabeak Espainian mugaz haraindi hartzeko Europar Batasuneko estatuak edo 1996ko Hagako Hitzarmeneko estatuak igorritako eskaerak izapidetzea.*

1. Justizia Ministerioa izango da, Espainiako Agintaritza Zentrala den aldetik, adingabeen mugaz haraindi hartzeko Europar Batasuneko estatuak edo 1996ko Hagako Hitzarmeneko estatuak igorritako -eskaerak jasotzeko agintaritza eskuduna. Harrera gertatu baino lehen, dagokion Estatuko Agintaritza Zentralak eskaera igorri behar du, agintari espainiar eskudunen nahitaezko baimena jasotzeko.

2. Harrera-eskaerak idatziz egin behar dira, eta dokumentu hauek erantsi behar zaizkie: neurria adingabearen onerako egokia den ebaluatzeko eta establezimenduak edo familiak harrera hori egiteko gaitasuna duen ebaluatzeko Espainiako Agintaritzak Zentralak eskatzen dituenak. Edozein kasutan, aplikatzeko den nazioarteko araudiak eskatzen duenaz gain, txosten bat aurkeztu behar da, alderdi hauek jasoko dituenak: haur edo nerabearen datuak eta ezaugarriak, harrera egiteko proposamenaren zergatiak, harrera-modalitatea, harreraren iraupena eta neurriaren jarraipena egiteko aurreikusitako modua.

3. Mugaz haraindiko harreraren eskaera jasotakoan, Espainiako Agintaritzak Zentralak egiaztatuko du eskaerak aurreko apartatuan zehazten diren edukia eta betekizunak betetzen dituela, eta eskumena duen administrazio autonomikoari helaraziko dio, onets dezan.

4. Administrazio autonomiko eskudunak, eskaera ebaluatu ondoren, Espainiako Agintaritzak Zentralari igorriko dio bere erabakia, eta hark eskaera egin duen estatuaren Agintaritzak Zentralari helaraziko dio. Erabakia aldekoa denean soilik, estatu horretako agintari eskudunek ebazpen bat emango dute, Espainian harrera egiteko agintzen duena; alderdi interesdun guztiei jakinaraziko diete, eta hura Espainian aitortzeko eta betearazteko eskatuko dute, lurraldearen arabera eskuduna den Espainiako epaitegi edo auzitegian zuzenean.

5. Eskaera izapidetzeko eta erantzuna emateko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da.

6. Harrera-eskaerei eta erantsitako dokumentuei espainierazko itzulpen legeztatua erantsi beharko zaie».

Bederatzi. 20 quater artikulua eransten da; honela dio:

«20 quater artikulua. *Espainian adingabeak mugaz haraindi hartzeko eskaerak ezesteko arrazoiak.*

1. Espainiako Agintaritzak Zentralak ezetsi egingo ditu mugaz haraindiko harreraren eskaerak kasu hauetan:

a) Harrera-eskaeraren xedeak edo helburuak adingabearen interes gorenara bermatzen ez duenean; horretarako, bereziki, Espainiarekin loturarik baduen hartuko da kontuan.

b) Eskaerak izapidetzeko eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzenean. Kasu horretan, eskaera egin duen Agintaritzak Zentralari itzuli egingo zaio eskaera, eta itzultzeko arrazoi zehatzak adieraziko, zuzendu ahal izan ditza.

c) Prozedura penal edo zehatzaile batean sartuta dagoen adingabe bat edo legez kontrako edozein egintza penal edo administratiborengatik kondenatua edo zigortua izan den adingabe bat lekualdatzeko eskatzen denean.

d) Adingabeak esateko duena entzunarazteko duen oinarritzko eskubidea errespetatu ez denean, bai eta gurasoekin edo bere legezko ordezkariekin egotekoa errespetatu ez denean ere, hori adingabearen interes gorenaren aurkakoa denean salbu».

Hamar. 20 quinquies artikulua eransten da; honela dio:

«20 quinquies artikulua. *Espainiatik Europar Batasuneko beste estatu batera edo 1996ko Hagako Hitzarmeneko estatu batera adingabeak mugaz haraindi hartzeko eskaerak helarazteko prozedura.*

1. Adingabeen babesaren arloan eskumena duten agintariek egiten dituzten mugaz haraindiko harreraren eskaerak idatziz igorriko zaizkio Espainiako Agintaritzak Zentralari, eta hark, berriz, eskaerak egiten zaizkion estatu kideko agintari eskudunei bidaliko dizkie, izapideak egin ditzaten.

2. Eskaerak egiten zaizkion estatu kideko zuzenbide nazionalaren arabera izapidetuko eta onetsiko dira beroriek.

3. Espainiako Agintaritza Zentralak agintari eskatzaileari igorriko dio eskatutako harreraren gaineko erabakia.

4. Atzerriko agintari bati zuzendutako harrera-eskaerekin eta erantsitako dokumentuekin batera, eskaerak egiten zaizkion estatuko edo hark onartutako hizkuntza ofizial batera egindako itzulpena aurkeztu behar da».

Hamaika. 21 ter artikulua eransten da; honela dio:

«21 ter artikulua. *Haurrak eta nerabeak babesteko zentroetan bizikidetza eta segurtasuna bermatzeko neurriak.*

1. Haurrak eta nerabeak babesteko zentroetan bizikidetza eta segurtasuna bermatzeko hartutako neurriak prebentzio- eta deseskalatze-neurriak izango dira. Salbuespenez, eta azken baliabide gisa, adingabeari fisikoki eusteko neurriak ere har daitezke.

Debekatu egiten da euste mekanikoa; hots, adingabea ohe artikulatu bati lotzean edo instalazioei edo objektu higigarriari ainguratutako objektu bati edo objektu finko bati lotzean datzana.

2. Haurrak eta nerabeak babesteko zentroetan bizikidetza eta segurtasuna bermatzeko aplikatzen den neurri oro legezketasunaren, premiaren, indibidualizazioaren, proportzionaltasunaren, egokitasunaren, graduazioaren, gardentasunaren eta gobernu onaren printzipioak betez ezarriko da.

Halaber, salbuespenaren, al bait intentsitate txikiaren eta ezinbestekoa den denboraren printzipioak betez ezarriko dira euste-neurriak, eta betiere adingabearen duintasuna, pribatasuna eta eskubideak errespetatuz.

3. Haurren eta nerabeen eskubideei, gatazkak ebazteari eta pertsonei eusteko teknikei buruzko prestakuntza duten langile espezializatuek aplikatu behar dituzte deseskalatze- eta euste-neurriak.

4. Deseskalatze-neurriak dira kudeaketa emozionaleko hitzezko teknika guztiak, adingabea aztoratuta edo asaldatuta dagoenean eta aztoramendu edo asaldur horrek adingabearen edo beste pertsona batzuen bizitzarako eta osotasunerako arrisku larri eta berehalakoa dakarrenean tentsioa edo etsaitasuna apaltzeko asmoz erabiltzen direnak.

5. Fisikoki eusteko neurriak hauek izan daitezke: adingabearen eta arriskuan dagoen pertsonaren edo objektuaren artean jartzea, espazioak edo mugimenduak fisikoki murriztea, eta, azken aukera gisa, eta protokolo zorrotz baten pean betiere, zentroko langile espezializatuek adingabea fisikoki immobilizatzea.

Salbuespenetzko neurri gisa, eta jokabide-nahasmenduak dituzten adingabeak babesteko zentroetan soilik, fisikoki eusteko neurria adingabearen eskumuturrak ekipamendu homologatuekin lotzea izaten ahalko da. Neurri hori lege honen 28. artikuluan aurreikusitako bermeekin aplikatuko da.

6. Haurrak eta nerabeak babesteko zentroetan aplikatutako euste-neurriak berehala komunikatu behar zaizkie entitate publikoari eta Fiskaltzari. Halaber, Gorabeheren Erregistro Liburuan idatziko dira, zeina zentroko zuzendaritzak gainbegiratuko duen, bai eta adingabearen espediente indibidualizatuan ere, zeina eguneratuta eduki behar den.

Euste-neurriak aplikatzean indarra erabiltzen den kasu guztietan, medikuak adingabearen miaketa fisikoa egin behar du, 48 ordu igaro baino lehen, eta dagokion mediku-txostena.

7. Euste-neurriak ezin izango zaizkie aplikatu 14 urtetik beherakoei, haurdun dauden adingabeei, haurdunaldia amaitu zenetik sei hilabete igaro gabe dauden adingabeei, ama bular-emaileei, seme-alabak berekin dituzten pertsonei eta gaixotasun larriagatik eriondoan daudenei, salbu eta haien jarduketengatik

berehalako arrisku larria sor badaiteke adingabearen bizitzarako eta osotasunerako edo beste pertsona batzuen erako.

Zentroko zuzendariari edo hark erabakiak delegatu dizkion pertsonari dagokio erabakiak hartzea espazioak eta mugimenduak murriztean edo adingabea immobilizatzean oinarritzen diren euste fisikoko neurriei buruz. Neurri horiek arrazoitu egin behar dira, eta berehala jakinarazi behar zaizkie entitate publikoari eta Fiskaltzari».

Hamabi. Aldatu egiten da 27. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«27. artikulua. *Segurtasun-neurriak.*

1. Honako hauek izaten ahalko dira segurtasun-neurriak: adingabeari eustea, hura behin-behinean bakartzea edo erregistro pertsonal eta materialak egitea. Prebentzio- eta deseskalatze-neurriek dute lehentasuna, eta horiek huts egitean soilik erabil daitezke segurtasun-neurriak.

2. Haur eta nerabeen eskubideei, gatazkak ebazteari eta euste-teknikei buruz prestakuntza duten langile espezializatuek aplikatu behar dituzte segurtasun-neurriak. Langile horiek azken baliabide gisa soilik erabil ditzakete segurtasun-neurriak adingabeekin, kasu hauetan: ihes egiteko saioak daudenean, bizikidetzara larriki nahasten duen erresistentzia aktiboa dagoenean, edo beste adingabe batzuen eskubideak larriki urratzea eragiten duena dagoenean, edota autolesiorako, beste batzuei lesioak eragiteko edo instalazioei kalte larriak eragiteko arrisku zuzena dagoenean.

3. Zentroko zuzendariari edo hark erabakiak eskuordetu dizkion pertsonari dagokio segurtasun-neurriei buruzko erabakiak hartzea. Erabaki horiek behar bezala arrazoituta egon behar dute, eta berehala jakinarazi behar zaizkie entitate publikoari eta Fiskaltzari. Adingabeak, Fiskaltzak eta entitate publikoak erabakiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute barneratzeaz arduratzen ari den organo judizialean, eta organo horrek ebazpena emango du, zentroaren txostena jaso ondoren eta adingabeari eta Fiskaltzari entzun ondoren.

4. Aplikaturako segurtasun-neurriak Gorabeheren Erregistro Liburuan erregistratu beharko dira, eta zentroko zuzendaritzak ikuskatuko du erregistro-liburu hori».

Hamahiru. Aldatu egiten da 28. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«28. artikulua. *Euste-neurriak.*

1. Euste-neurriak artikulua honen hurrengo apartatuetan ezartzen diren inguruabarrak kontuan hartuta ezarriko dira, eta horietan xedatzen den moduan.

2. Zentroetako langileek bizikidetzara eta segurtasuna deseskalatze-neurrien bidez lehengoratzeko ahalegina egin ondoren soilik erabili ahal izango dituzte euste-neurriak.

3. Fisikoki eusteko neurriak soilik hauek izan daitezke: adingabearen eta arriskuan dagoen pertsonaren edo objektuaren artean jartzea; espazioak eta mugimenduak fisikoki mugatzea, eta, besterik ezinean, eta protokolo zorrotz baten pean betiere, zentroko langile espezializatuek adingabea fisikoki immobilizatzea.

Jokaera-arazoak dituzten adingabeak babesteko zentro berezietan, salbuespenez eta protokolo zorrotz baten pean bakarrik lotu ahal izango zaizkie adingabeari eskumuturrak ekipamendu homologatuekin, ezinezkoa bada beste bide batzuetatik saihestea adingabearen edo hirugarrenen bizitzarako edo osotasun fisikorako arrisku larria. Salbuespenezko neurri hori ezinbestekoa den gutxieneko denboran soilik aplikatu ahal izango da, gehienez ere ordubetez. Denbora horretan, zentroko hezitzaile batek edo heziketa-lantalde edo lantalde teknikoko beste profesional batek lagun egingo dio adingabeari une oro, edo haren begiradapean egongo da etengabe.



Entitate publikoari, Fiskaltzari eta barneratzeaz arduratzen ari den organo judizialari berehala jakinaraziko zaie neurri hori hartu dela.

4. Euste mekanikoa debekatuta dago, lege honen 21 ter artikuluan ezarritako baldintzetan».

Hamalau. Aldatu egiten da 29. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«29. artikulua. *Adingabea bakartzea.*

1. Adingabea honelakoak saihesteko bakarrik bakartu ahal izango da irtetea ezinezkoa den gune egoki batean behin-behinean: indarkeriazko egintzak; autolesioak; zentroan bizi diren beste adingabe batzuei, langileei edo hirugarrenei lesioak eragitea, eta instalazioetan kalte larriak eragitea. Une jakinetan bakartuko da, beharrezkoa denean, eta inola ere ez diziplina-neurri gisa.

2. Adingabea hiru orduz segidan bakartu ahal izango da gehienez ere, eta ez zaio eragotziko atseden hartzeko duen eskubidea. Bakartuta dagoen bitartean, zentroko hezitzaile batek edo heziketa-lantalde edo lantalde teknikoko beste profesional batek lagun egingo dio adingabeari une oro, edo haren begiradapean egongo da etengabe».

Hamabost. Aldatu egiten da 30. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«30. artikulua. *Erregistro pertsonalak eta materialak.*

1. Erregistro pertsonalak eta materialak adingabearen duintasuna, pribatutasuna eta oinarriko eskubideak errespetatuz egingo dira, berez edo gaizki erabiltzeagatik arriskutsuak edo kaltegarriak izan daitezkeen objektu, tresna edo substantziak zentrori sartzeak edo handik ateratzeak dakartzan arrisku-egoerak saihesteko.

Ahal dela, bitarteko elektronikoak erabiliko dira.

2. Adingabearen erregistro pertsonala eta miaketa ezinbestekoak diren langileek egingo dituzte. Langile horiek zentroko bi profesional izango dira gutxienez, adingabearen sexu berekoak. Gorputzaren zatiren bat erakutsi behar denean, partzialki erakutsiko da, leku egoki batean, beste adingaberik aurrean ez dagoela, eta adingabearen intimitatea albait gehien babestuz.

3. Zentroko langileek adingabearen gauzak erregistratu ahal izango dituzte, eta kendu egin ahal izango dizkiote legez kontrako jatorria izan dezaketen objektuak, norberarentzat nahiz beste pertsona batzuentzat edo zentroko instalazioetarako kaltegarriak izan daitezkeenak, edo adingabeentzat baimenduta ez daudenak. Erregistro materialak aurretiaz komunikatu beharko zaizkio adingabeari haren aurrean egin ezin diren guztietan».

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten dira 779. eta 780. artikulua, eta honela geratzen dira idatzita:

«779. artikulua. *Prozeduraren lehentasunezko izaera. Eskumena.*

Adingabeen babesari buruzko administrazio-ebazpenen aurkakotza bideratzen duten prozedurek lehentasuna izango dute, eta hasiera ematen zaien egunetik hiru hilabeteko epean gauzatu beharko dira. Prozedurak metatzeak ez du etengo gehieneko epea.

Erakunde publikoaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegia izango da haietaz arduratzeko eskuduna, eta, halakorik ezean, edo Kode Zibilaren 179. eta 180. artikuluetako kasuetan, adoptatzailearen egoitzako auzitegia.

780. artikulua. *Adingabeen babesari buruzko administrazio-ebazpenen aurka egitea.*

1. Adingabeen babesari buruzko administrazio-ebazpenei auzitegi zibiletan aurka egiteko, ez da beharrezkoa izango aurretiaz administrazio-bidean erreklamazioa egitea. Jakinarazten direnetik bi hilabeteko epean aurka egin ahal izango zaie.

Adingabeen babesari buruzko administrazio-ebazpenei aurka egiteko legitimazioa izango dute, betiere ebazpen horretan interes legitimoa eta zuzena izanez gero, ebazpenak ukitutako adingabeek, gurasoek, tutoreek, harreragileek, zaintzaileek, Fiskaltzak eta legeak berariaz legitimatutako pertsonak. Auzi-jartzaile izan ez arren, edozein unetan pertsonatu ahal izango dira prozeduran. Jarduketek ez dute atzera egingo horregatik.

Adingabearen Babes Juridikoaren Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritz, adingabeek eskubidea dute prozesuan alderdi izateko eta esan nahi dutena entzunarazteko. Beren legezko ordezkarien bidez, baldin eta berekin interes kontrajarririk ez badute, edo berak ordezkatzeko defendatzaile izendatzen den edo berek izendatzen duten pertsonaren bidez egikarrituko dituzte berak ukitzen dituzten administrazio-ebazpenei lotutako uziak.

2. Adingabeen babesari buruzko administrazio-ebazpen baten aurka egiteko prozesua hasierako idazki bat aurkeztuz abiatuko da; bertan, auzi-jartzaileak labur-labur adieraziko du uzia zein den eta zein ebazpeni aurka egiten dion.

Idazkian, berariaz jasoko du administrazio-ebazpenaren jakinarazpen-data, eta adingabe horri buruzko prozedurarik baden adieraziko du.

3. Justizia Administrazioaren letraduak espedientearen lekukotza osoa eskatuko dio administrazio-erakundeari, eta erakundeak hamar eguneko epean eman beharko dio.

Ikustaldia egin aurretik, auzitegiari adingabearen espedientearen gertatu diren eguneraketak emateko eskatu ahal izango zaio administrazio-erakundeari.

4. Administrazio-espedientearen lekukotza jaso ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak, gehienez ere bost eguneko epean, hamar eguneko epatuko du auzi-jartzailea, demanda aurkez dezan. Demanda hori 753. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

Auzitegiak judizioa amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan emango du epaia.

5. Kendu egiten da.

6. Fiskaltzak, alderdiek edo epaile eskudunak jakiten badute adingabe baten beraren babesari buruzko administrazio-ebazpenei aurka egiteko prozedura bat baino gehiago daudela, prozedurarik antzinakoenaz arduratzen ari den epaitegian meta daitezela eskatuko dute lehenengoez eta xedatuko du bigarrenak, baita ofizioz ere.

Prozesuak metatzea erabaki ondoren, 84. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da, baina berezitasun honekin: metatutako gainerako prozesuak seinalamenduak zehaztutako epean izapidetzea posible izanez gero, jada seinalatuta dagoen ikustaldia ez da etengo. Osterantzean, ikustaldia jada finkatua duena etetea erabakiko du Justizia Administrazioaren letraduak, gainerakoak egoera berean egon arte, eta beste seinalamendu bat egingo du guztientzat, lehenetasunez, eta hurrengo hamar egunen barruan betiere.

Prozesuak metatzea ezesten duen autoaren aurka berraztertze-errekurtsoa eta apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango dira, etete-ondorerik gabe. Prozesuak metatzea erabakitzen duen autoaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri».

Azken xedapenetako hamargarrena. *Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, eta honela geratzen da idatzita:

1. artikuluari 4. apartatua eransten zaio; hau izango da haren edukia:

«4. Lege honetan aipatzen den genero-indarkeriaren barruan sartzen da, orobat, lehenengo apartatuan adierazitako pertsonen emakumeei galera edo kaltea eragiteko helburuarekin haien senide edo hurbileko adingabeen kontra erabiltzen duten indarkeria».

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 4. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. artikulua. *Biktimen eta kaltetunen eskubideak.*

Fiskaltzak eta adingabeen epaileak une oro zainduko dute adingabeek egindako arau-hausteen biktimen eta kaltetunen eskubideak babesten direla.

Berehala azalduko zaizkie indarreko legediak biktimei laguntzeko aurreikusten dituen neurriak, eta Justizia Administrazioaren letraduak Biktimari Laguntzeko Bulego eskudunera bideratu beharko du indarkeriaren biktima.

Biktimek eta kaltetunek eskubidea izango dute ondore horietarako hasitako espedientean pertsonatzeko eta parte izateko; horretarako, Justizia Administrazioaren letraduak Prozedura Kriminalaren Legearen 109. eta 110. artikuluetan aurreikusitako moduan jakinaraziko die letradua izendatzeko edo ofiziozko izendapena eskatzeko eskubidea dutela, doako laguntza juridikorako eskubidearen titularrak izanez gero. Halaber, jakinaraziko die espedientean pertsonatzen ez badira eta akzio zibilei uko egiten ez badiete edo akzio horiek erreserbatzen ez badituzte Fiskaltzak egikarituko dituela, hala egokituz gero.

Pertsonatzen direnek, une horretatik aurrera, jardun guztiaren berri izaten ahalko dute, eta eginbideak gauzatzeko eta beren eskubideari komeni zaiona egiteko eskatu ahal izango dute. Aurrekoa alde batera utzi gabe, Fiskaltzak eta adingabeen epaileak hartutako ebazpen guztiak komunikatu beharko dizkie Justizia Administrazioaren letraduak biktimei eta kaltetunei, bertaratu edo ez, haien interesetan eragina izan dezaketenean.

Bereziki, lege honen 18. artikuluan xedatutakoa betez Fiskaltzak espedientea hasteari dagokionez atzera egiten duenean, berehala jarri beharko ditu biktimak eta kaltetunak jakinaren gainean, eta jurisdikzio zibilean dagozkien akzio zibilak egikaritzeko eskubidea dutela jakinaraziko die.

Era berean, Justizia Administrazioaren letraduak idatziz jakinaraziko die epaia arau-hauste penalaren biktimei eta kaltetunei, nahiz eta espedientean alderdi gisa agertu ez.

Genero-indarkeriaren delituaren biktimak eskubidea du hartzen diren babeserako kautela-neurriak idatziz jakinaraz diezazkitoten, lekukotza osoaren bidez. Babes-neurriak hartzeko eskumena duten administrazio publikoei ere komunikatuko zaizkie kautela-neurri horiek; babes-neurriak izaten ahalko dira segurtasunekoak edo laguntza sozial, juridiko, sanitario, psikologiko edo beste edozein motatakoak.

Indarkeriazko delitu baten biktimak eskubidea du ustezko erasotzailearen egoera prozesalari buruzko informazioa etengabe jasotzeko. Bereziki, kautelazko edo behin betiko barneratze-neurrien kasuan, biktimari une oro emango zaio ustezko erasotzailearen baimenei eta zentrotik dituen irteerei buruzko informazioa, jakinarazpenik jaso nahi ez duela adierazten duen kasuetan salbu».

Bi. Aldatu egiten da 59. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«59. artikulua. *Jagoletza- eta segurtasun-neurriak.*

1. Zentroetan jagoletza eta barne-segurtasuna gauzatzean, ikuskapenak egin ahal izango dira lokaletan eta geletan, eta barneratutako adingabeak eurak edota haien arropak eta tresnak erregistratu ahal izango dira. Erregelamendu bidez zehaztuko da ikuskapen eta erregistro horiek nola eta zenbatean behin egin ahal izango diren.

2. Erregelamendu bidez zehaztutako euste-neurriak baino ezin izango dira erabili lege honetako neurriak betetzen dituzten pertsonen indarkeria-ekintzarik edo lesiorik egin ez diezaioten beren buruari edo beste pertsona batzuei, zentrotik ihes egin ez dezaten eta zentroko instalazioetan kalterik egin ez dezaten, edota zentroko langileek beren kargua legitimoki betetzean emandako jarraibideei pertsona horiek kontra biziki egiten dietenean.

Salbuespenez eta protokolo zorrotz baten pean bakarrik lotu ahal izango zaizkio barneratze-neurria betetzen ari den pertsonari eskumuturrak ekipamendu homologatuak erabiliz, eta kalte txikiagoko neurriak aplikatzea ezinezkoa izanez gero.

3. Debekatu egiten da pertsona ohe artikulatu bati lotzean edo instalazioei edo objektu higagarriei ainguratutako objektu bati edo objektu finko bati lotzean datzan euste mekanikoa.

4. Euste-neurriak aplikatzean indarra erabiltzen den kasu guztietan, medikuak barneratuaren miaketa fisikoa egin behar du, 48 ordu igaro baino lehen, eta dagokion mediku-txostena.

5. Zentroetan aplikatutako euste-neurriak berehala jakinarazi behar zaizkie Adingabeen Epaitegiari eta Fiskaltzari. Halaber, Gorabeheren Erregistro Liburuan idatziko dira, zeina zentroko zuzendaritzak gainbegiratuko duen, bai eta adingabearen espediente indibidualizatuan ere, zeina eguneratuta eduki behar den».

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onesten duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua aldatzea.*

Beste apartatu bat eransten zaio, 19.a, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 8. artikuluari. Honela dio:

«19. Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren Lege Organikoaren 57.3 artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea».

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legea aldatzea.*

Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legearen 15. artikuluari 5. apartatua eransten zaio; honela dio:

«5. Osasun-arreta adingabeen aurka indarkeria erabili izanaren ondorioz eman denean, historia klinikoak berariaz adieraziko du inguruabar hori, eta apartatu honetan aipatzen den informazioa ere jasoko du».

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Osasun Lanbideak Antolatzeko azaroaren 21eko 44/2003 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Osasun Lanbideak Antolatzeko 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 17. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Osasun-zientzietako espezialista-tituluak Osasun Ministerioak emango ditu».

Bi. Xedapen iragankor bat eransten da, zazpigarrena; honela dio:

«Zazpigarren xedapen iragankorra. *Osasun-zientzietako espezialista-tituluak ematea.*

Tituluak emateko 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako eta oraindik abian diren prozedurak Unibertsitateetako Ministerioak izapidetuko ditu, eta, beraz, berak emango ditu tituluak».

Azken xedapenetako hamabosgarrena. *Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legearen 18. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«4.a Espedienteak adingabe baten edo desgaitasuna duen pertsona baten interesak ukitzen dituenean, ekitaldian bertan egingo dira interes horiei buruz ofizioz edo Fiskaltzak eskatuta erabakitzen diren eginbideak, edo, ezin bada, hurrengo hamar egunen barruan.

Adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren entzunaldia ekitaldi bereizi batean eta beste pertsona batzuen interferentziarik gabe egitea erabaki dezake agintari judizialak edo Justizia Administrazioaren letraduak. Ekitaldi horretara Fiskaltzak agertu beharko du. Betiere, bermatu egingo da behar bezala entzun ahal izango zaiola, harentzat irisgarria eta ulergarria den moduan, eta haren adina, heldutasuna eta inguruabarrak kontuan hartuta; beharrezkoa bada, espezialisten laguntza eskatuko da.

Miaketaren emaitza akta batean jasoko du Justizia Administrazioaren letraduak betiere, eta entzunaldiaren nondik norakoen datu objektiboak emango ditu bertan, baita haurraren edo nerabearen adierazpenak ere, esanguratsuak izategatik ezinbestekoak direnak, eta horregatik guztiz garrantzitsuak direnak espedientea erabakitzeko; edozein kasutan, haurraren edo nerabearen intimitatea zaindu beharko du. Hori guztia agerraldiaren ostean egiten bada, interesdunei aktaren berri emango zaie, bost eguneko epean alegazioak egin ahal izan ditzaten.

Bai Fiskaltzak bere txostenean, bai agintari judizialak prozedura amaitzeko ebazpenean, modu arrazoituan baloratu beharko dute egindako miaketa.

Manu honetan aurreikusi ez den guztian, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak xedatutakoa ezarriko da (1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, partzialki aldatzen dituena Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituena)».

Azken xedapenetako hamaseigarrena. *Uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoa aldatzea, zeinak Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen baitu.*

Aldatu egiten da uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duena. Zehazki, haren zazpigarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Zazpigarren xedapen iragankorra. *Auzitegi Medikuen Kidegoan sartzeko, lege eta auzitegiko medikuntzako espezialitatearen betekizuna atzeratzea.*

Lege eta auzitegiko medikuntzako espezialitatea, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 475. artikuluan Auzitegi Medikuen Kidegoan sartzeko galdatutakoa, ez da izango nahitaezko betekizuna, harik eta Justizia Ministerioak nahitaezkoa dela zehazten duen arte. Nahitaezkoa denerako, gutxienez espezialista horien lehen promozioak egoitza-sistemaren bidez prestakuntza amaitua behar du, eta titulu horretara sartzeko ezohiko bideak garatua behar du, espezialitate horretan egoitza-sistemaren bidez sartzea garatzen duen errege-dekretuan araututako prozeduraren bidez».

Azken xedapenetako hamazazpigarrena. *Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Estatu Kontseilua sortzea.*

Gobernuak, lege hau onesten denetik sei hilabete igaro baino lehen, Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Estatu Kontseilua sortuko du, haurrei eta nerabeei eragiten dieten plan, programa eta politika nazionalak formulatzean, aplikatzean eta ebaluatzean parte hartzeko eskubidea benetan baliatzen dela bermatzeko.

Azken xedapenetako hemezortzigarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege organiko hau Espainiako Konstituzioaren (aurrerantzean, EK) 149.1 artikulua 1., 2. eta 18. puntuetan aurreikusitakoaren babesean ematen da. Artikulu horrek eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari honako hauek arautzeko: konstituzio-eskusubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien arteko berdintasuna bermatzeko oinarritzko baldintzak, nazionalitatea, immigrazioa, emigrazioa, atzerritartasuna eta asilo-eskusubidea, eta administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak. Nolanahi ere, ez zaie kalterik egiten autonomia-erkidegoek Konstituzioa osatzen duten autonomia-estatutuen arabera dituzten eskumenei, betiere errespetatu egin beharko dira eta. Zehazki, lege organiko honen III. tituluko II., III., VII. eta IX. kapituluetan xedatutakoa gorabehera, autonomia-erkidegoek familia-politikaren, gizarte-laguntzaren, kirolaren eta aisiaren arloan dituzten eskumenei jarraikiz onetsitako legediari kasu egingo zaio.

Hala ere, 13. eta 14. artikulua eta azken xedapenetako zazpigarrena Estatuari justizia-administrazioaren eta legegintza prozesalaren arloan dagozkion eskumenen babesean ematen dira, EKren 149.1 artikulua 5. eta 6. puntuetan aurreikusitakoaren arabera, arlo horretan autonomia-erkidegoetako zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eratorzen diren espezialitateen kalterik gabe.

Azken xedapenetako lehena eta hamabosgarrena Estatuak legegintza prozesalaren arloan dituen eskumenen babesean ematen dira, EKren 149.1.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arlo horretan autonomia-erkidegoetako zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eratorzen diren espezialitateen kalterik gabe.

Azken xedapenetako hirugarrena EKren 149.1.6 artikulua Estatuari espetxe-legediaren arloan ematen dion eskumenaren babesean ematen da.

Azken xedapenetako seigarrena EKren 149.1.6 artikulua Estatuari zigor-arloko legediaren gainean ematen dion eskumenaren babesean ematen da.



Azken xedapenetako hamaikagarrena EKren 149.1.6 artikulua Estatuari zigor-, prozesu- eta espetxe-legediaren gainean ematen dizkion eskumenen babesean ematen da.

Seigarren xedapen gehigarria EKren 149.1.5 artikulua Estatuari justizia-administrazioaren arloan ematen dizkion eskumenen babesean ematen da.

Bederatzigarren xedapen gehigarria EKren 149.1.17 artikulua babesean ematen da.

III. tituluko IV. eta V. kapituluak EKren 149.1.30 artikulua babesean ematen dira; artikulua horrek EKren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arauen gaineko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari.

III. tituluko VI. kapituluak eta azken xedapenetako hamahirugarrena eta hamalagarrena EKren 149.1.16 artikulua babesean ematen dira. Artikulu horrek osasungintzaren oinarrien eta koordinazio orokorraren gaineko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari, betiere autonomia-erkidegoei beren autonomia-estatutuen bidez emandako eskumenak errespetatzen dituela.

III. tituluko X. kapituluak EKren 149.1.29 artikulua babesean ematen da. Artikulu horrek segurtasun publikoaren gaineko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek dagozkien estatutuetan ezartzen den moduan eta lege organiko batek xedatutakoaren esparruan poliziak sortzeko duten aukera.

55. artikulua eta azken xedapenetako laugarrena, hamaseigarrena eta hogeigarrena EKren 149.1.5 artikulua babesean ematen dira. Artikulu horrek Justizia Administrazioaren gaineko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari.

V. tituluko II. kapituluak eta azken xedapenetako hamabigarrena EKren 149.1.7 artikulua babesean ematen dira. Artikulu horrek lan-legediaren gaineko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari, baina autonomia-erkidegoetako organoek betearazten dute.

Azken xedapenetako bigarrena EKren 149.1.8 artikulua babesean ematen da. Artikulu horrek legedi zibilaren gaineko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari. Nolanahi ere, eskubide zibilak, foralak edo bereziak autonomia-erkidegoek mantendu, aldatu eta garatzen dituzte halakoak dauden lekuetan.

Azken xedapenetako bosgarrena EKren 149.1.27 artikulua babesean ematen da. Artikulu horrek prentsaren, irratia, telebista eta, oro har, komunikabide sozial guztien araubideari buruzko oinarrizko arauak onesteko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari, autonomia-erkidegoek arau horiek garatu eta betearazteko dauzkaten ahalmenak alde batera utzi gabe.

Azken xedapenetako hemeretzigarrena. *Xedapen zehatz batzuen izaera arrunta.*

Lege honek lege organikoaren izaera du, baina honako hauek ez: atariko tituluko 5., 6., 7. eta 8. artikuluek; I. tituluko 10., 11., 12., 13. eta 14. artikuluek; II., III. eta IV. tituluek; V. tituluko 57.etik 60.era bitarteko artikuluek; lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren, seigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarriek; eta azken xedapenetako lehenak, bigarrenak, bosgarrenak, zazpigarrenak, bederatzigarrenak, hamabigarrenak, hamahirugarrenak, hamalagarrenak, hamabosgarrenak eta hemeretzigarrenak.

Azken xedapenetako hogeigarrena. *Organo judizialen, fiskaltzaren eta epaitegiei eta auzitegiei laguntza espezializatu ematen dieten lantalde teknikoaren espezializazioa.*

1. Lege hau indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen, Gobernuak lege-proiektu hauek igorriko dizkie Gorte Nagusiei:

a) Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzeko proiektu bat, arau horretan aurreikusitako bideak erabiliz organo judizialen eta horien titularren espezializazioa ezartzeko, adingabeen aurka egindako delituengatik auzi penalak instruitu eta epaitzeari begira. Espezializazio hori lege honetan ezarritako printzipio eta neurrien arabera egingo da. Helburu horrekin, haurren eta nerabeen aurkako

indarkeriaren arloko epaitegiak sartzea planteatuko da, bai eta arlo penaleko epaitegiak eta probintzia-auzitegiak espezializatzea ere. Era berean egokituko dira organo espezializatuen titulartasuna lortzeko aukera ematen duten hautaprobak ere, baina aipaturiko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 312.4 artikuluan xedatutakoa bete behar da betiere.

Horrez gain, aipaturiko lege organikoaren proiektuak haurren, familiaren eta gaitasunaren arloko jurisdikzio-ordena zibilaren barruan espezializazioa bermatzeko beharrezkoak diren aldaketak xedatuko ditu.

b) Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzeko lege-proiektu bat, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren esparruan fiskalen espezializazioa ezartzeko, haien estatutu-araubidearekin bat.

2. Eskumena duten administrazioek epe horretan bertan arautuko dituzte haurren eta nerabeen arloan espezializatutako organo judizialei laguntza espezializatua emateko lantalde teknikoen osaera eta funtzionamendua, bai eta horietan sartzeko modua ere, lege honetan jasotako espezializazio- eta prestakuntza-irizpideekin bat etorriz.

Azken xedapenetako hogeita batgarrena. *Arauk garatzea eta legea betearaztea.*

Baimena ematen zaie Ministroen Kontseiluari eta Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioko, Justizia Ministerioko eta Barne Ministerioko titularrei, zeini bere eskumenen esparruan, lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko, eta, orobat, lege hau eraginkortasunez betearazten eta ezartzen dela bermatzeko behar diren neurriak ezartzeko.

Azken xedapenetako hogeita bigarrena. *Araudia egokitzea.*

Legea indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen, bertan xedatutakora egokitu beharko dira lege honetan aurreikusitakoarekin bateraezinak diren Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko arau erregulatzailerak.

Azken xedapenetako hogeita hirugarrena. *Europar Batasunaren zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bidez, Espainiako Zuzenbidean txertatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/93/EB Zuzentarauaren 3. artikulua eta 2.etik 4.era arteko apartatuak, 6. artikulua eta 9. artikulua a), b) eta g) letrak. Zuzentarau hori adingabeen sexu-abusuen, sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurka borrokatzeari buruzkoa da, eta Kontseiluaren 2004/68/JAI Esparru Erabakia ordeztzen du.

Azken xedapenetako hogeita laugarrena. *Adina zehazteko prozedura.*

Gobernuak, lege hau onesten denetik hamabi hilabete igaro baino lehen, adingabeen adina zehazteko prozedura arau bidez garatzeari ekingo dio, bermatzeko Espainiak bere gain hartutako nazioarteko betebeharrak betetzen dituela eta adingabearen interes gorena, eskubideak eta duintasuna nagusitzen direla.

Azken xedapenetako hogeita bosgarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit egunera jarriko da indarrean.

Dena den, 5.3, 14.2, 14.3, 18. eta 35. artikuluetan eta 48.1 artikulua b) eta c) letretan aurreikusitakoak legea indarrean jartzen denetik sei hilabetera sortuko ditu ondoreak.

Azken xedapenetako hamalagarrenean aurreikusitakoak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondoreak.

Horrenbestez,  
Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2021eko ekainaren 4an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN